



Eleiz-Liburuchua



A.T.V
691

SUBJECT MATTER





M: 4177
R. - 693

A.T.V
691



ELEIZ-LIBURUCHUA

JESUS'EN LAGUNDIKO

A. KANDIDO BASABE'K

EGIÑA

—

TA GIPUZKOATAR IZKUNTZARA APAIZ JUAN AYERBE'K
ITZULIA

—

BIAR DIRAN BAYAKAZ

—

BIGARREN ATERALDIA

—

Liburu onen irakurtaldi bakoitzari 50 eguneko barkapenak
ezarri diozka Obispo Jaunak.

—

BILBAON:
Editorial Vizcaina'ren Irarkolan
1914



ELEIZ-LIBURUCHUA

JESUSEN JAIGANDIKO

A. KANBIDO BASABEK

EGINA

TA GIMOKOATAR ISKUNTZARA APAS IUAN AYERREK

ITZULIA

BIAR DIRAN BAYAKAN

BIGARREREN ATERKALDIA

Liburu onen itzulitza bakoitzari 50 erandiko baxaberrak
esartu diozka Obispo Jaunak.

BILBAON:

Editorial Viscainaren Itarkolan

1814



ESNATZEAN

Esnatu ta bereala esanzazu:
‡ Nere Salbagille maitagarriaren Biotza!
Gartu ta geitu zure maitetasunean nere biotz
otza.
(300 eguneko barkapenak, esan-aldi bakoit-
tzean).

Aitaren eta Semearen † eta Espiritu
Santuaren izenean. Amen.

50 egun, bark: ur bedeinkatuaz egin ezkeru,
100 egun).

Jaiki nagitasun gabe, ta jantzi begirune aundiaz, oñaren ertzik ere, aldala, ikusten eziala, Ama Maria gatik jakintsuak dioten lez. Jantzita-koan, belaunikaturik oo-onduan edukiko dezun Jesus'en irudi-aurrean, esanzazu:

Makurturik, Jauna, zure aunditasunaren aurrean, gurtutzen (adoratzen) zaitut nere biotzeko indar guziaz. Ni lez osasundun oeratu ziranetatik, izenbat esnatuko ote-ziran gaur goizean inpernuan, edo gaixo! Eskerrak, Jauna, ta Zuretzat izan ditezela eman dirazun egun eta osasuna.

APOSTOLUTASUNENKO OTOITZA: ¡Ene Jesus! Mariaren Biotz garbiaren bitartez eskeintzen dizkitzut gaurko eskari, neke ta egin-kizun guztiak, egiten zaitzkizun iraiñen ordezt eta Zure Biotz Santuaren beste gogo guzietarako. Eta batezere Apostolutasunekuei il onetan izentau zayen asmoagatik.

Aita-gurea, Agur-Maria ta kredoa.

BANAKO-AZTERKETA: Ikusi nolako pekatu edo utsegitean geyen erortzen zeran; eta sendo erabaki, etzerala gaur eroriko. Orretan indartzeko, esan iru bider: Agur-Maria; ta arriturik geratuko zera, iri Agur-Maria onen indarra ikusita koan, onetan eta beste gauza guzietan.

- | | | |
|------------------------------|---|--|
| Andria Mariari: | { | Zeu zera nere Jabe
Eta Ama laztana
Artu nere biotza
Begi, mingain, dana. |
| San Joseri: | { | Errugeko eguna
Jose emangaizu
Zaitzalle zaitugula
Garbi ta paketsu. |
| Aingeru Gordelariari: | { | ¡Jainkoak emandak:
Aingeru maitia
Gorde ni ta zuzendu
Gaurko egun guztia. |

ANGELUS

v. Jaunaren Aingeruak Mariari berri on eman zion.

- R. Eta Espiritu Santuagandik sortu zuben.
Agur-Maria, etc.
- V. Ona emen Jaunaren mirabea.
- R. Diozun lez, nigan egin bedi.
Agur-Maria, etc.
- V. Jaungoikoaren Semea gizon egin zan.
- R. Eta gure artean bizitu zan.
Agur-Maria, etc.
- V. Erregutu gure aldez, Jaungoikoaren
Ama.
- R. Kristoren agintzak irabazi dagiguzan.

OTOITZA

Ixuri, arren, Jauna, zure grazia gure animetan, zure Seme ta gure Jaun Jesukristoren gizon-egitea, aingeruak erakutsita, ezagutu degunok, bere Nekaldi (Pasioa) ta Eriotzaren bidez, pizkundeko atsegiña iritxi dezagun, Jesukristo gure Jaun berorren bitartez.

OERAKUAN

EGUNEROKO AZTERKETA (esamiña): Bost egintza daoza, San Inazio'k erakusten duanez.

1.^a *Eskerrak* ematen diozkat, Jauna, Jesusen Biotz eta Andre-Mariaren bitartez, egin dirazun mesede aundi ta ugariagaitik; eta batezere sortu, deabruaren mendetik zure odolez erosi, kristau egin, eta eriotza-

tik jaso nozulako, pekatuan nenguanean inpernuko su-garretara bota gaberik.

2.^{en} *Argitu*, Jauna, nere adimena, ainbeste meseden ordez gaur egin ditudan utsak ezagutzeko.

3.^{en} *Azertu*: Esnatzean zure biotza Jaungoikoagana jaso dezu? Otoitz (erreguak) egin dituzu? Nola? Erabaki dezu utsegite nagusian gaur ez erortzea?—Biraurik esan dezu?—Meza, aldezula, entzun dezu? Orduetan Agur-Maria esan dezu, erantsiaz: Nere Salbagille maitegarriaren Biotza, gartu ta geitu zure maitetasunean nere biotz otza? Erregulabur au esan dezu sarritan egun guztian, batezere zirikaldi edo tentazio-aldian, pake-pakean? Janaurre ta ondorengo otoitzak (erreguak) egin dituzu ta nolatan? Errosarioa?—Egin-bear edo obligazioak bete dituzu?—Echekuekin nola ibilli zera Asarratu ote-zera; edo besteai asarratu eragin? Pensamentu, itz, egikunde charrik izan dezu?—Gezurrik esan? Gaizki-esaka ibilli?—Arrokeririk? Bestien gauzetan sartu?

4.^{en} *Damutu*: Ona, Jauna, gaur ere nolako pekatuak egin ditudan, eznitubela ge-yago egingo itza eman-arren. Baña, ezagutzen dezu nere argaltasuna-ta, zure neurrigeko ontasunagatik, barkatu gaurko ta nere bizitza guztiko pekatuak. Damudet, Jauna, pekatu egiña, Zure biotz samur, niganako maitetasunez betea, arantzaz zu-

latu deralako, ta nere buruari ekarri dizkiotedan kaltiagatik.

5.^o *Erabaki*: Ez nere indarrei begiratura, baña bai Zure laguntasunaz, erabakitzen det, ezdetala aurrerantzian onelako, ez bestelako, pekaturik egingo. Aldenduko naiz erori erazi nauten lagun eta bideetatik.

Esan Nere Jesukristo Jauna (1).

Ezin badezu egin ainbeste, beñik-bein, ez inoiz zere begirakunechubat zure buruari eman gabe utzi, erazten ari zeran bitartean bada ere.

AZKEN-OTOITZA

Gorde gaitzugu, Jauna, esnatuta gabiltzala, ta zaindu lo gaudenean, Jesus'ekin esnatuta ibilli, ta pakian lo egin dezagun.

Erantzi begirunez, eskatzen diozula Jaungoikoari erantzi zaitzala oitura char guztietatik. Oyan sartzean, oroitu alako-batean, eta onenean gaur, etzerala geyago jeikiko, ta betiko loak artuko zaituala. Ez egon oyan esnatuta.

JAN-AURRERAKO

Aitak, nai umerik chikienak:

Bedeinkatu gaitzatzu, Jauna, ta bedeinkatu.

(1) Etzaitzate oeratu beñere «Nere Jesu-kristo Jauna» esan gabe. Oitura au daukanak, zeruko giltza daukala, esan leike.

katu zazu, Zuk emanda artu bear degun jateko au.

Aita-gurea, Agur-Maria ta Gloria.

Mai onetan batu gaituanak, zeruetako mayan batu gaitzala. Ala izan bedi.

JAN-ONDORENGO

Eskerrak, Jaungoiko Guzialdun, gizaldi guztietan bizi ta agintzen dezuna, Zure mesede guziakatik.

Aita-gurea, etc.

Jaungoikoak bere pakea eman deigula. (*Erantzun*) Baita betiko bizitza ere.

SIÑESTE, ICHAROPEN

ETA MAITETASUNEN EGINTZAK

¡Ene, Jaungoikoa! Izatez egia zeralako, Zugan siñesten det. Zure aginduetan zintsoa zeralako, Zugan ichodoten det. Neurri-gabe maitegarria zeralako, maite zaitut.

(Sazpi urte ta zazpi berrogeiko barkapenak bakoitzian; osoa, illean egunero eginda).

Esan maiz, indarbide (birtute) onetan geitzea, santutasunean geitzea da-ta. Geitzen dira sarri esanaz.

EGUN GUZTIAN SARRI ESATEKO BIOTZ-OTOITZAK (JAKULATORIOAK)

Bakoitzak 300 eguneko barkapenak, esaten dan bakoitzean.

- 1.^a Jesus'en Biotz Santoa, Zugan ichodoten det.
 - 2.^a Jesus'en Biotz Santoa, siñesten det maite nazula.
 - 3.^a Jesus'en Biotz guztiz Santoa, dana Zugatik.
 - 4.^a Onetsia (bedeinkatua) Sakramentuko Jesus'en Biotz guztiz Santoa.
 - 5.^a Jesus bigun eta Biotzez apala, egizu nere biotza Zureorren antzekoa.
 - 6.^a Jesus'en Biotz guztiz Santoa, betorkigu Zure Erreiñua.
 - 7.^a Sakramentuko Jesus'en Biotza, erruki zakiguz.
 - 8.^a Jesus eta Maria.
-

MEZA SANTOA

Ez gure erligioak dauka, ez Jaungoikoak berak asmatu leike Meza Santoa baño gauza aundiago ta ongilleagorik. Jesu-Kristo gure Jaunak Aita Betikoari Kalbarioko mendian eskeiñi zioan opari edo sakrifizio berbera da Meza, berdiñeza bat bakarrez: Kalbarioan Jesu-Kristo gure Jaunaren odola ixurtzen zala, Meza-tan ez, beste guztietan bat dira.

¿Nola, orduan, batzuek, peseta bi edo iru apaiz jaunari luzatuta, esaten dute? ¿Zenbat balio du Mezak? ¿Zer diozu? ¿Ote-dago munduan urrerik ez zillarrik Meza bat erosteko? Munduko aberas-tasun guztiak utsak dira, anima bat deabruaren mendetik atera, ta inpernura bearrean, zerura eramateko. Berriz orretarako Jesu-Kristo'ren odol tanta bat naikua da. Bere odol tanta batek ainbeste balio badu, ¿zenbat balioko ote-du bere odol guztiak? Bada, Meza batek, Jesu-Kristo gure Jaunaren odol guztiak-aña balio du.

Apaizak Meza ematen duanean, dio Kenpis'ek, goratzen du Jaungoikoa, aingeruak poztutzen ditu, Eleiza geitutzen du; ematen dio biziei laguntasuna, atsedena illei. Mezatan zabalik daude zeruak, eta aingeruak gora-ta-bera dabiltz, gure eskariak eraman eta Jaungoikoaren esker edo graziarik ugarienak gureganatzen. Mezatan iño-izko onduena goratu edo onratzen da Jaungoikoa, zor diogun mesedeagaitik eskerrak ematen diozkagu, barkatzen zaizkigu pekatuak, eta eskuratzen ditugu laguntasun eta emakairik ederrenak.

Munduaren asipenetik azkeneraño gizon eta ain-

geru guztiak Jaungoikoaren maitetasunaz inu eta oiñazik gogorrenak igaro la ezerezen egonaz baño, atsegin eta goratasun geyago artzen du Jaungoikoak Mezatan. Munduko pekatu aztun eta ugariak ainbeste iraindu ta naigabetzen bodeute Jaungoikoa, aske geyago goratu ta pozituzten du Meza batek.

Izanik, bada, Meza Santoa gauza ain aundi ta ongillea, nola ezdira Kristaubak geyago zalezen maizago entzutera? ; Zergatik, dio mindurik misiolari ospatsu batek, egoten dira nagi, epel, gogo gabe, aozabalka, erdi-lo, alborabegira, parrez, izketan? ; Zer derizkiotzute aldarean auzpez belarriko zaiten aingeru Santoak, gure lotsagabelasun eta aberekeri onegatik?

¡A! lurreko errege baten aurrean era obean egongo giñake: Jesu-Kristo'ren jayotzan lotsa geyagoz egon ziran asto ta idia, gu Mezatan baño. O abereak baño abereagoak!! Au itsukeria! A esker gaiztokoak! ; Eta ze zigor gogorren begira gauden! Argatik irtetzen gera Mezatik lenaña otz, epel eta gaizto.

MEZA-EMALLEAREN JANTZIAK ZER ESAN NAI DUTEN.—*Apaizak* adierazten du Jesu-Kristo. *Eskuak garbitzeak*, nola Jesus'ek garbitu zituan apostoluen oñak. *Amiloak*, arpegia estaltzeko ipiñi zioten emn-zatia, esaten zuala belarrondokoak emanda: «Igarri nork eman dizun»; *Albak*, Herodes'ek jantzi zion zoro-soñeko zuria. *Zinguloak*, tiraka eramateko, gerritik lotu zioten soka. *Manipulo ta estolak*, esku-muturretako sokak. *Kasullak*, Pilatos'en echean ipiñi zioten errege-jantzi, gorri, parregarria. *Aldareak*, Kalbarioa. *Aldareko zapi ta korporalak*, Jesu-Kristo'ri obiratzeke ipiñi zioten izara ta buruzapia.

MEZAREN ESKEINTZA

Meza Santo au ta gaur munduan eman

go diran beste guztiak eskeintzen dizkitzut, Jauna, Zu ta Zure Seme Jesus'en goratasun eta Andra-Maria ta Santu guzien onrarako, Eleiz-Amá ta bere seme siñestendun guzien onerako, ta batez-ere atsekabetan, pekatuko edo iltzeko arriskuan gaur dagonentzeko: siñesmen bageko guztiak argitu ta katoliko egiteko, ta azkenez garbilekuko anima ta batezere nere guraso, senide, ongille, ezagun eta adiskide guztiagaitik; baita nere ta mundu guztiko pekatuen ordaiñeko ere.

Egizu aitaren, apaiz jaunakin batean; eta ikusirik nola dagoan aldaratik apur bat aldenduta, lotsaz, eta bere ta erri guztiaren pekatuagatik barkapena eskatzen, esan zazu zuk ere *Ni pekataria*, zure pekatuen damu biziáz, Meza Santuko grazi ugariak galerazi eztagien.—Igotzen da gero aldarara Meza-emallea, ta mun egiten die bertako santuen erlikiei, esanaz:

Erlikiak emen dauzkaten santuen eta beste guztien irabaziagaitik, eskatzen dizut, Jauna, barkatu dagidazula nere pekatu guztiak.

INTROITUA

Asipena esan nai du; ta Aitalen, Igarle, ta beste Lege Zarreko Santuak Jesu-Kristo gure Jauna ikusteko zeukaten egarri bizia adierazten du.

Eskerrak ematen dizut, Jauna, Jesu-Kristo gizon egin ezkerro mundura bialdu na-

zulako. ¡Ze zoria nerea, ainbeste Igarle ta Santo aundiak ikusi nai ta ikusi etzubena, aldara orretan dakustanean! Baña, batetan, ¡ze errua ayek urrutitik ainbeste maitatu zutena nerekin eduki arren, maitetzen ez-



badet, eta bere agindu^{ta} erakutsiei arre-
tarik ezbadiet!

KIRIE ELEISONAK

Esan nai dute, *Jauna erruki zaite*. Esan Aitari,
Semeari ta Espiritu Santoari, bakoitzari iru bi-

der, zure ta mundu guztjaren pekatuen barka-
pena eskatzen diozula.

Kyrie eleison	Christe eleison	Kyrie eleison
Kyrie eleison	Christe eleison	Kyrie eleison
Kyrie eleison	Christe eleison	Kyrie eleison

GLORIA IN EXCELSIS DEO

Aingeruak Jesus'en jayotzan esan zuten abesti
edo kantu ederra da.

Gloria in excelsis Deo, et in terra pax
hominibus bonæ voluntatis. Laudamus te.
Benedicimus te. Adoramus te. Glorificamus
te. Gratias agimus tibi propter magnam
gloriam tuam. Domine Deus, rex cœlestis,
Deus Pater omnipotens, Domine Fili uni-
genite Jesu-Christe, Domine Deus, Agnus
Dei, Filius Patris: qui tollis peccata mundi,
miserere nobis. Qui tollis peccata mundi,
suscipe deprecationem nostram. Qui sedes
ad dexteram Patris, miserere nobis. Quo-
niam tu solus Sanctus, tu solus Dominus,
tu solus Altissimus Jesu Christe, cum San-
cto Spiritu in gloria Dei Patris. Amen.

Omena (gloria) Jaungoikoari goyaldie-
tan, eta pakea lurrean borondate oneko
gizonei. Aundiesten (abalatzen) zaitugu,
Jauna, onesten (bedeinkatzen) zaitugu,
gurtutzen (adoratzen) zaitugu, goresten
(glorifikatzen) zaitugu. Eskerrak ematen
dizugu zure zoriontasun aundiagaitik. Zer-

uko Errege Jaungoikoa, Aita-Jaungoiko Guztialduna, Seme bakar, Jesu-Kristo Jauna, Jaungoikoa, Jaungoikoaren Bildotsa, Aitaren Semea: munduko pekatuen kentzallea, artu egiguzu gure eskaria, Aitaren eskubian zaudena, erruki zakiguz. Zu bakarrik zera Santua-ta, Zu bakarrik Jauna, Zu bakarrik gorena, Espiritu Santuakin, Aita Jaungoikoaren atsegintzan. Alaxen,

DOMINUS VOBISCUM

Onezaz esaten dio apaizak erriari: *Jauna izan bedi zuekin*. Eta erantzuten dute Meza entzuten duenen orde: *Et cum Spiritu tuo, baira zu e anmakin ere*. Apaizak aldarean, Jesu-Kristo'ri berari bezela, mun eginda, artzen duan pakea, ematen dio erriari, erriak berari beste ainbeste opa diotala. ; Ze pake, alkartasun eta maitetasun aundia nai duan Eleiz-Amak apaiz eta erriaren artean egotea!

OREMUS

Erregutu dezagun, esan nai du; ta onezaz eskatzen dio erriari, berakin batean egun artako santoari eskatu deyola. Esango dezu, ba:

Emaniguzu, Jauna, apaizak gaurko eguneko santoaren bitartez, beronen santutasun eta irabaziagaitik eskatzen dizuna. Alaxen.

EPISTOLA

Idazki edo karta, esan nai du, apostoluen eta batezere San Paulo'n idazkien zatia izaten dalako geyenean. Igarlen eta San Juan Batayatzallaren gure ziñeste edo Fedeko irakaskizunak, adierazten ditu.

Eskerrak, Jauna, zure Igarlen aurreanak egiazturik ikusten ditudalako, ta eurezaz nai ainbat ziñeskai guztiakin nere adimena argitu dezulako. ¡Zenbat ote-daude oraindik ziñesmengabetasuneko illunbe itzalian, eta zenbat kristau-arteon bertan galtzen ote-daude egunero ziñeste Santoa! Sartu munduko gizon guztien buruetan argi ongille au, ta eman deuskuzuna gorde ta geitu egiguzu; bera zuzentzalle degula, bizitza onetako bidea igaro dezagun, zeruan zure arpegi ederra estalki gabe ikusi arte. Alaxen.

E B A N J E L I O A

Jesus'en sermoyak eta eginkizunak daduzkan liburua da. Ziñestu bear degun geyena, bertan dagolako, zutitzen gera irakurraldian, prest gaudela adierazteko, ez bakarrik ziñesmena gure barrunean eduki, baita gudalarien antzera arerio guztietatik zaintzeko ere. Bekokian (lotsa agertzen dan lekuan), aoban eta biotzean zifantzen gera, erakusteko ziñesmena agertzen ezgerala lotsatuko; ta aobaz aitortu, ta biotzez mailatuko degula.



¡Oh Jesus, Aita Betikoak guretzat eman-
dako Irakaslaria! Zure Ebanjelio Santuko
irakaskizunak ondo ezagutu, ziñestu, lotsa
gabe aitortu ta biotzez maitatzeko lagun-
tasuna eman egidazu, eurezaz nere bizitza
zuzendurik, eskeintzen dirazun zerua iri-
tsi dezatan. Alaxen.

K R E D O A

Esan egizu zuk ere, ziñeskai bakoitza benebe-
netan ziñesten dezula, martirien eta Andra Ma-
riaren ziñestee bizi az zure motela bat eginda; ta

- 78 -

Inkarnatusian belaunikatu, gugatik alegiña beerratu zan Jesus'en izenean.

Credo in unum Deum. Patrem omnipotentem, factorem cœli et terræ, visibilium omnium et invisibilium. Et in unum Dominum Jesum Christum, Filium Dei unigenitum. Et ex Patre natum ante omnia sæcula. Deum de Deo, lumen de lumine, Deum verum de Deo vero. Genitum, non factum, consubstantialem Patri per quem omnia facta sunt. Qui propter nos homines, et propter nostram salutem descendit de cœlis. Et incarnatus est de Spiritu Sancto ex Maria Virgine: et homo factus est. Crucifixus etiam pro nobis: sub Pontio Pilato passus, et sepultus est. Et resurrexit tertia die secundum Scripturas. Et ascendit in cœlum: sedet ad dexteram Patris. Et iterum venturus est cum gloria judicare vivos et mortuos: cujus regni non erit finis. Et in Spiritum Sanctum, Dominum, et vivificantem; qui ex Patre Filioque procedit. Qui cum Patre et Filio simul adoratur, et conglorificatur: qui loquutus est per prophetas. Et Unam, Sanctam, Catholicam, et Apostolicam Ecclesiam. Confiteor unum baptisma in remissionem peccatorum. Et exspecto resurrectionem mortuorum: et vitam venturi sæculi. Amen.

OFETORIOA

Eskeintza esan nai du, Jesu-Kristo ren Gor-

putz eta Odol biurtu bear duben ogi ta ardoa, Jaungoikoari eskeintzen zaitzolazko. Arturik Apaizak Ostia patenan esaten du:

Aita deun (santu), Guzti-aldun, betiko Jaungoikoa, Zure otsein (*serbitzari*) duiñez onek Zuri, nere Jaungoiko bizi ta benetakoa, eskeintzen dizuan orban gabeko opagai au artu egidazu, nere zenbatu eziñalako pekatu, irain eta nagitasunakaitik, emen gauden guziagaitik; baita kristau bizi ta il guztiakaitik ere, neretzat etabetiko bizitzarako osabide izan dedin. Alaxen.

Botatzen du ardoa edontzi (kalizan), eta ur tanta batzuek ezartzen dio, adierazteko gure animak ere Jesu-Kristo'ren Odolaz batu bear dirala, garbitu ta bere antzekuak izateko. Orregaitik bitartean esaten du:

Mirariz gizona egin, eta mirari aundia-goz berriztatu zenduan Jaungoikoa, ardo ta ur onen ezkutu (misterioa) gaitik eman iguzu, Jesu-Kristo gure Jaunaren Jaungoikotasunaren zoridun izan gaitezela, bera gure gizatasunaren artzalle izateraño jetsi zan ezkerro. Zugaz, Espiritu Santuaren batasunian, bizi ta agitzen duben Jesu-Kristo gure Jaunaren izenean. Alaxen.

lasorik edontzi (kaliza), esaten du:

¶ Kaliza ongillea eskeintzen dizugu, Jau-na, zure errukitasuna eskatuaz, beronen usai gozoa, Zure jarleku itzaltsuraño igo

dedin gure ta mundu guztiaren salbaziorako. Alaxen.

Makurtuta esaten du:

Biotz apal eta damutuok artu gaitzetzu, Jauna; ta gure oparia zure gogokoa izan dedilla, egizu. Atoz, dontsugin Betiko Jaungoiko guztialdezuna, ta zure izen santuari gertutako (prestatutako) opagai au onetsi (bedeinkatu) zazu.

BEATZAK GARBITZEAN

Adierazten du Jesu-Kristok apostoluei garbitu ziela oñak, Pilatos'ek bere eskuak, eta apaizak Meza emateko, edozeñek jaunartzeko eduki bear duan garbitasuna, aldendurik ez bakarrik pekatu larrietatik, baita, aldanez, ariñetatik ere; orregaitik, garbitzen ditu, ez esku osoak, baizik beatz muturrak. Esan zazu:

Pekatu ta zikinkerri guztietatik garbitu nazazu, Jauna, ta apaindu Zure grazi ta doerik ederrenaz, bizileku atsegintsu ta usai ederrekoa izan nagizun. Alaxen.

ORATE FRATRES

Erregutu anayok, esan nai du. Anayak deitzen die apaiz jaunak erriko guziei, ala izan bear due-lako. Esan zazu, ba:

Bere izenaren gorapenerako, ta gure ta Eleiza Santu guztiaren onerako artu beza Jaunak zure eskuetako opagaya.

PREFAZIOA

Asipena esan nai du, Mezako zatirik aundi ta ilzaltsuenaren sarrera goratua dalako. Esaten da Jaungoikoari eskerrak emateko. Meza-emalleak agur egiten dio erriari esanaz: *Dominus vobiscum Jauna* (izan bedi) zuekin; eta erantzuten zaio: *Et cum spiritu tuo, Baita zure animagaz ere. ¡Sursum corda! ¡Gora hiotzak! Habemus ad Dominum Jaungoikoagan dauzkaguz Gratias agamus Domino Deo nostro; Eskerrak eman deyozkagun gure Jaungoikoari; Dignum et iustum est. Duin eta bidezko gauza da. Eta gero Meza-emalliak:*

Gauza duin eta bidezkoa, egoki ta osasunkorra da benetan, beti tal alde guzietan eskerrak ematea guk Zuri, Jaun Santu, Aita Guzti-aldun, Jaungoiko Betikoa, Jesu-Kristo gure Jauna laguntzat arturik. Berorren bitartez aundiesten (alabatzen) dute Aingeruak Zure izate goratua, Agintariak gurtutzen (adoratzen) dute, ikaraz makurtzen dira Aldunak, pozez goratzen dutela batera Zeruak eta Zeruetako Indardunak, Gardun zorientsuakin. Artu egizuz, bada, arren, eurenakaz gure aundiespenak ere, apaltasunez aitortzen zaitugula esanaz:

SANTUS

Sanctus, Sanctus, Sanctus, Dominus Deus Sabaoth. Pleni sunt cœli et terra gloria tua.

Hosanna in excelsis. Benedictus qui venit in nomine Domini. Hosanna in excelsis.

Santua, Santua, Santua, Gizon eta Aingeruen Jaungoikoa, Zeru-lurrak beterik daude Zure omenaz (gloriaz). ¡Bizi bedi goyaldietan ¡Onetsia (bedeinkatua) Jaungoikoaren izenean datorrena!

Makurturik esaten du:

Zuri, bada, Aitarik errukitsuena, makurturik eskatzen dizugu Zure Seme Jesu-Kristo gure Jaunaren bitartez, ontzat artu ta donetu dakiguzula emakai ta opari santu oek, eskeintzen dizugunak, lenengo Zure Eleiza Santoaren onez, paketu, zaindu, batu ta zuzendu dagizun mundu zabal guztian; baita Zure otsein (serbitzari) gure Aita Santu (Urlia), Obispo (U), Errege (U), ta Apostoluen eta Erroma ko zinesteke artez-zinesle guzien aldez ere.

BIZIEN MEMENTUA

Mementuak oroipena, esan nai du; Meza atera dubenagaz eta nai dituan beste guziaz oroitzen dalako Jaungoikuaren aurrean apaiz jauna, begi ta eskuak bilduta, itzalik aundienaz. Zabaldu zuk ere Jaungoikuaren aurrean zure gogo ta bear dezun guztia, ta eskatu ichodopen senduenaz; bada emen Jaungoikuak gure gaiztakeri ta ezerbakeriari begiratu gabe, zutik dauzka belarriak Jesu-Kristo gure Jaunak aldaregaiñetik, Kurutzean lez, bere irabazi neurri-gabekuak, aurrean ipiñita, egiten diozkan deadar zolietara.

ostelariaren erantzuna; Nere Jauna ta nere Jaungoikoa (I).

Nik gurtu **KONTSAGRAZIOA** nigatik kruztxean idakoa. Eskertak, Jaun-
Auxe da Meza zatirik itzal eta nagusiena!
Oraintxe Meza-emalleak, arturik bere eskuetan
nin galesti erositako animalak.



ogi apur bat, esango du Jesu-Kristo'ren izenean:
Auxe da nere Gorputza; ta beste gabe geratuko
da ogia, Jesu-Kristo gure Jaunaren Gorputz bizi
biurtuta. Arritu zaitez apaiz jaunaren eskubi-
deaz; ziñestu utsik ezin eman leikean Jaungoi-
koaren itza, ia gurtu Jesu-Kristo, oso-osorik,

ostichu aren irudipean, esanaz: *¡Nere Jauna ta nere Jaungoikoa!* (1).

Nik gurtutzen zaitut, Jesus'en Gorputz nigaitik kurutzean ildakoa. Eskerrak, Jauna, ainbeste naitasunagatik, barkatu nere pekatu, zure borreroak, eta ez galtzen utzi ain galesti erositako animak.

Berdin makurturik esaten dio Meza-emalleak edontziko ardoari: *Auxe da nere Odola*, ta geratuko de Jesu-Kristo gure Jaunaren Odol eginda.

Nik gurtutzen zaitut, Jesus'en Odol, nigatik kurutzean ixuria. Garbitu, Jauna, beragaz nere anima. •

Etorri zaitzu Jaungoiko aundia aldare-gañera, etorri dira aingeruak ere, bera gurtutzera: Sartu zu ere euren artean, berriztu zure eskeintzariak, agertu bearkunde (premiak), eta egin eskariak: auxe da onenetako garaya Jaungoikuagandik nai dana iristeko. Egizu kontu Kalbarican bertan zaudela.

ILLEN MEMENTUA

Emen eskeintzen du Apaiz jaunak Mezaren babilio neurri-gabea atera dubenen illen alde. Jesus'en Odol-tanta bat naikua bada mundu guztiko ta milla munduko pekatu guztiak barkatuak izateko, ¿ze egokia ezta izango Meza Santuan eskeintzen dan Jesus'en Odol guztia, garbilekuko anima errukarren zorra garbitutzeko? Ez uste

(1) Aita Santu Pio X'ak Sto. Tomas sines ogorren itz oek Ostia Dentsua jasotzian, berari begiratuaz esanda, em n ditu zazpi urte ta zazpi berrogeiko barkapenak: eta osua, astean bein.

Meza Santua bezin gauza ongillerik dutenik. Egizu Mezatara deitzen dizun chilinaren bidez, deitzen dizutela garbilekuko animak, eta batezere zure senide, lagun eta ongilleak; euren diadarretara gortutzen bazera, gortuko da norbait zure diadarretara ere, chilin orren beorren bidez garbitokiko gar ikaragarrietatik deitzen dezu-nean. Jaungoikoak erabakia dauka, geuk neur-tzen degun neurriaz, neurtuak izango gerala.

NOBIS QUOQUE PECCATORIBUS

Zure errukitasun ugarian ichodoten de-gun pekatarioi ere egiguzu, Jauna, zati apurchu bat izan dezagula Zure atsegintza (zerua) orretan, Apostolu, martiri ta beste Santu guztiakin batean; ez gure egiña-gaitik, baña bai zure errukitasunari begi-ratuta.

Meza-emalleak egiten ditu kurutze asko, bai esku utsez Kaliz-Ostiaren gañean, bai Ostiaz Kalizari, Jesus'en Nekaldi edo Pasio Santua go-goratzeko. Baita ere belaunikatzen da sarritan, Jesu-Kristo gurtu edo adoratzeko. Gurtu zuk ere onelako bakoitzean, ziñeste ta maitetasunik aun-dienaz.

PATER NOSTER'IAN

Esan zuk ere *Aita gurea* bere zaspi eskabidei ondo begiratuta. Zaspi eskabide oek, Jesus'ek kurutzetik esan zituan zazpi itzak dakartz gogo-ra, ta dirá oek. 1. Aita, barkatu, eztakie zer darabilen-da. 2.^a Gaur egongo zera nerekin pa-raixuan. 3.^a ; Andrea!, ara ar zure semea; (eta gero S. Juan'i): ara or zure Ama. 4.^a Nere Jaun-

goiko, nere Jaungoikoa, zergaitik utzi nazu? 5.^a
Egarriz nago. 6.^a Guzia amaitua da. 7.^a ¡Alta!
nere anima Zure eskuetan uzten det.

OSTIA ZATITZEAN

Adierazten du Jesus'en anima, gorputzetik al-
dendu zanean, Abraham'en egonlekura jetsi zala,
ango animak ateratzera; ta Emaus'ko ikasleak
ezagutu zubela Jesu-Kristo, piztu zan egunean,
ogia zatitzean.

AGNUS DEI

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, mi-
serere nobis. Agnus Dei, qui tollis peccata
mundi, miserere nobis. Agnus Dei, qui to-
llis peccata mundi, dona nobis pacem.

Jaungoikoaren bildots, munduko peka-
tuen kentzallea, erruki zakiguz.

Esan zazu iru bider apaiz jaunakin batean; ta
gero, pizturik jaunartzeko gogoia, esan zazu be-
rakin jaunartu-aurrean egiten duan otoitz edo
erregu eder au:

Nere duiñeztasuna ikusi arren artu bear
dedan zure gorputza, ezdedilla izan, Jesu-
Kристо, ene Jauna, nere galmenarako; ta
bai, zure errukitasunagatik, gorputz-ani-
men janari, ta oen osabidea artzeko.

DOMINE NON SUM DIGNUS

Jauna, ez naiz ni duin Zu nere lechean

sartzeko; baña esan egizu, ta beste gabe nere anima osatuko da. (*Esan iru biden*).



Gogozko Jaunartzea: Eleiz-Amaren naikunde bizia da, Meza entzuten dan bakoitzean Jauna artzea. Ezin badezu, egizu gogozko jaunartzea. Onetarako naikoa da, jaunartzeko gogoa edukitzea, pizturik bere on aundiak zugaratzeko naikunde bero-bero bat. Erarik onena da Meza-emalleak jaunartzen duban bitartekoa; baña egin leike nun efa noiz-nai, baita zure eguneroko zeregifietan jardutzen zerala ere, ta orixe da gogozko jaunartze onek benetakoari egiten dion alde on bat; ta bestea, arrokeri gabe, zure albokoak berak eztakiala, egin al-izatea. Gogo biziz egiten

dan jaunartzeak, dioe jakintsuak, egizko jaunartze epelak baño on geyago dakazkiola animari. Sena'ko S.^{ta} Kataliñari edontzi edo baso bi, bata urrezkua ta bestea zillarrezkua erakutsita, adierazo zion Jaungoikoak, urrezkoak gordetzen zubela egizko jaunartzeak, eta gogozkuak, zillarrezkuak. Baña gogozko jaunartzerako ere, egizko jaunartzerako lez, pekatu aztun ezagun gabarik egon bear du animak.

Emendik aurrera Meza-emalleak egiten duana da, ezkerak eman Jaungoikoari, jaunartuaz egin diozkan on aundiagatik. Eman zuk ere eskerrak, ainbeste bider zure barrura etorri dala-ko; edo, nai badezu, egin zure otoitz edo eskeriak.



ITE, MISSA EST

Esan nai du: «Juan zaitezte: amaitu da Meza». Artu gero apaiz jaunaren bitartez Jaungoikoak ematen dizun oneste edo bendizioa.

AZKEN-EBANJELIOA

Eskerrak, Jauna, Meza Santoa entzuteko on aundia egin dirazulako; agintzen dizut al bait-maizena etorriko naizela. Eman dirazun ikaskizunak ezditut aztuko; erabiliko ditut gogoan zeregin-artetan, aldenburik mundu, deabru, ta aragiak dakazkiten gogapen galkorrek; il lenago, gaur zure aunditasun itzalsua pekatuaz iraindu baño. Zabaldu, Jauna, zure oneste edo bendizio santoa nere gaurko zeregin eta arazo guzietara, zure goreste edo gloriarik aundienerako ondo irten ditezen. Aitar-en, eta Semearen eta Espiritu Santoaren izenean. Alaxen.

Esan apaiz jaunakin batian Meza-ondorengo eskariak, eskatzen diezula, Andra-Mariari, San José'ri ta San Migel Goi-aingeruari, zaindu dezetela Eleiza arerio guztietatik; eta berak esaten duanean *Cor Jesu Sacratissimum*, esan nai du: *Jesus'en Biotz guziz dontsua, erantzun: Miserere nobis, erruki zakiguz.* (Zazpi urte ta zazpi berrogeiko barkapenak eman ditu oraintsu Aita Santuak au iru alditan Meza-ondorean esanda: ¡ez irten esan gaberik!

Aitorkuntza edo konfesioa

Edo konfesioa, edo kondenazioa, eztago bitarterik pekatu aztun edo mortalak egin dituanentzat. Ala irakasten du Eleiz-amak, gizon galdu, griña charrez burutik beatzera lotuta daudenak gorabera.

Baña konfesatu ondo, nola betetzen dezun orretarako bear dan gauza bakoitza begiratuta.

DAMUA TA ERARAKI EDO PROPOSITUA. — *Damua* egindako pekatuen atsekabe ta gorrotua da. *Maitetasunezkoa* edo kontrizioa, ta *bildurrezkoa* edo atrizioa izan leike. Maitetasunezkoaz konfesatu baño lenago ere, barkatzen dira pekatuak, baño gero konfesatzeko asmoaz. Orregaitik alegindu bear genduke, maiz egiñaz, erreztutzen. Artzen da «Nere Jesukristo Jauna» biotzez esanda. Baña bildurrezkoa, izanik errezena, elitzake iñoiz utzi bear, konfesatu aurrean.

Onetarako, azterketa eginda, galde begio bakoitzak bere buruari: Pekatua oek uzten ezpadezuz, inpernuratu bear zera. ¿Ezdezu juañ nai? Utzi, bada, Damu bi oek bear dute izan *zerutikakoak*, au da, gure gañekoak, Jainkoak emanak, ez pekatuak berez dakarren kalteagatik artutakoak. *Biotzeko samurtasuna*, ezda nai-tanaiezkua Pekatua aztunik ezdaukenak, damua beti dauke, naiz eurak orretan ezer pentsatu ez. Alegindu, «Nere Jesukristo Jauna» sarri esanaz, damua geitzeko, grazia geyago artu dezazun. — Aztertu gero ondo zure barrua, ta ikusi geyago pekatuak ez egiteko asmorik ote-daukazun. Askok ez ikusi egiten dute, asmo sendorik ezdutelako; chipiroiena, illundu ura, igesteko. Pekatua ariñetatik, al-

dala, aidentzeko erabakia, ona da, baña ez naita-naiezkoa. Ikusi nolako pekatuetan erortzen zeran, eta erabaki bein, bitan eta geyago, ezdezula berriz egingo: onela gogo makala sendotzen da.

AOZKO AITORKUNTZA.—Izan bear du: 1.^o *Osoa*, esaten dirala atzeneko zuzen egindako konfesioetik oraindano gogoan daduzkan pekatu aztun guztiak. 2.^{en} *Tolesgabea*, pekatuak edertu bagerik, eta pekatuen gertaerak (historiak) alde batean utzita. Ezta esan bear: Aitortzen ditut egin izango nituan pekatu guztiak, amar aginduen kontra egin ditudanak, eta abar. Au ezta ezer esatea. Ez esan lenengo aginduan: aitortzen det ezdetala maite izan Jaungoikoa bear bezela. Aingeruak ere ezdute maite ainbeste. 3.^{en} *Apala edo umilla*, erruduna da aitortzen dana-ta. 4.^{en} *Zurra edo prudentea*, aldiran itz garbienaz esaten dirala pakatuak, baña argi; ta bestien pekatuak agertu gabe. 5.^o *Zintsua* konfesorearen esanei zintso erantzunda, gauza aztunean gezurrik esan gabe.

AITORTZEKO ERA ERREZA.—Esan «Ni pekataria» Ezta bearrezkoa, baña ondo da esatea. Berriz lagun asko daudenean, esan zure aurrekoa absoluzioa artzen dagoan bitartean, konfesorea zure zai eduki gabe. Konfesoreagana eldutakoan, esan: ¡Agur, Maria, guztiz garbia. Nere animako aita! Onenbeste denbora (illabete, urtebete, ta ala) da konfesatu nitzala. (Ezdago esan bearrik: eztaukak ezer lengo konfesiokorik, egin det esamina, badaukat damoa ta asmoa... ta orrela. Zuk ikusi ori, azterketa egiten dezunean, len esan dan bezela). Lenengo aginduan egin det au edo bestea (pekatu larria bada, esan zenbat bider egunean, astean edo illean, batz-beste, guchi-gora-bera). Bigarreanean ezer ezbadaukazu, ez esan: «bigarrena, alperreko juramenturik ez egi-tea; agindu santu onetan eztaukat ezer». Zuaz

irugarren edo daukazun agindura, bitarteko ausi ezdituzunak utzita. Entzun ondo konfesoreak esateu dizuna, ezer aztu ote-zaitzun begira ibilli gabe, ta esan biotzez: Nere Jesukristo Jauna; bës-tela damutua badago (1), nai-ta-naiezkua ezta baño.

PEKATU ARIÑAK. — Aztunik eduki ezarren, ez etorri zertzaz damuturik ezbazendu bezela; San Luis'ek, pekatu ariñ osora iritsi etziran utsegite bi aitortu zituanean, kordegabetua geratu zan. Eztaukazu esan bearrik bakoitza zenbat bider egin dezun. Ezta, guziak esan bearrik ere eztaukazu, ta ohea izango da, guziak zearo aztertu ta aitortzen ibilli baño, aundienak eta kaltekorrenak, ondo damututa, aitortzea. Ala guziz ere, beti izango da ona, lengo bizitzako pekatu aztun bat esatea, edo agindu baten kaltez egindakoa.

KONFESATZEKO LOTSIA: Arritzekoa ta ziñestu ere ezindan gauza da, zenbat anima galzen dituan aitortzeko lotsak. Deabru mutuaren eginkizuna da au. Lotsa izan bear litzake pekatu egiteko; baño pekatura aitortzeko, zergaitik? Ez lotsatzearren, nai izan du Jaungoikoak, gizon argal, erorkorrakin, ez aingeruakin, konfesatzea; ta lotu ditu kastigurik aundienagaz, iñori, ezergatik ere, entzundako pekaturik, ez esateko. Etzaite ibilli beti bildurrez; ezazu egin doneauste edo sakrilegio ikaragarririk, Jaungoikoak, beste asko bezela, zeatu edo kastigatu etzaitzun zu ere. Ezbazera ausartzen bati esatera, juan beste bategana; ta oni ere ezin aitortu badiozu, esan egiozu: Jauna, lagundu, arren, lotsaz nago-ta. Edo esan

(1) Onela aitortzen balekie, geyenak miñutu batean edo bian bakoitza, errez egin leizke, buruauste asko konfesoreari kenduta; ta ikusirik zein errez aitortzen diran, zaletuko lirake maizago konfesatzera, animen irabazi aundienaz.

konfessori bati, zerura juategatik, edo esan jui-zioko egunean, mundu guztiaren aurrean, eta gañera ¡inpernura! Jakizu, arrantzalea zenbat eta arrai aundiagoa arrapatu, pozago jartzen dan; konfessorearen ere, pekatari aundiak artzean, iñoizko pozena geratzen dala.

KITUBIDE EDO PENITENTZIA: Ona da penitentzia aldan lasterren betetzea. Chikiak izanik, geyetan, ematen diranak, obeto egingo dezu, garbileku edo purgatoriuari guchiago egon zaitean, zeuk zerbait geitutzea, geyago errezatuaz, nekeak gorputzari emanaz, parkapenak irabaziaz. Aztutzen bada, ta errez galdetu ezin bazayo konfessoreari; edo ezin bete bada, adibidez gaixo batean, eztago ardurarik bete ez arren. Penitentzia betetzen da, orretarako asmorik euki azerran, agindutako gauza, esateko, errosarioa, errezatu duanean. Penitentziarik onena, lengo pekatuko arriskuetatik alde egitea da.

GUZTI-AUTORKUNTZA EDO KONFESIO JENERALA.
—Izan leike: 1.^o *kaltetzua*, bildutiegia edo eskrupulosuentzat. 2.^{en} *Nai-ta-ezkua*, lengo autorkuntzak gaizki egin dituala, *ziur* dagonarentzat. 3.^{en} *Ongillea*, beñere egin ezduanarentzat, zartzarakuan, eleizakuak artzeko, autorkuntza epelak egin dituanarentzat, eta bizitza berri ona asi nai danean. Guzti-autorkuntza len ondo egin bada, eztago zertan ibilli bizitza guztiko pekatuak berriro esaten: egin len ondo egindako guzti-autorkuntzatik oraındañokua; eta onena izango da, urteoro urte guztikua egitea, batezere Ejertzizioak egiten diranean. Guzti-autorkuntza egin nai dezunean, esan egizu: Onen beste urteko guzti-autorkuntza egin nai nuke, ta ezta (edo bai da) bearrekua, ba bearrekua ezta, ariñago ibilli leike. Beti da, bizitza guztikua izan arren, uste izaten dan baño asko errezagua.

PEKATUA NOIZ DAN LARRIA: Iru gauza biar ditu:

1.^a Izatea gauza *larria*, norberaren iritziz (1). 2.^a *Ezaupide osoa*. Batere ezaupiderik ezpadago, ezta pekaturik ere eztago: ala umeak, adiñ-argira eldu-arte, eztauke pekaturik. Ezaupide apur bat baño ezpa-dago, pekatu ariña besterik ezta egongo; esaterako, erdilotako gogapen (pensamentuetan).

Baña ezaupide au pekatu egin baño lenago euki bear da; ba gauza charra eginda gero datorren ezaupideak, ezdu pekaturik eragiten. Askok umetan, edo gero, ezaupide gabe egin oker bat, eta aundi egindakuan ezagutu, edo sermoiren batean entzun, naiz liburuan irakurri lengo oker ori pekatu dala, ta ibiltzen dira euren buruak atsekabetzen; eta ez guchik, lotsaz autortu gaberrik utzi, ta egin dituzte deunauste (sakrilegio) asko.

3.^a *Nai edo borondate osoa*: Batere nairik ezpa-dago, pekaturik ere ez; nai apur bat bakarik badago, pekatua ere ariña izango da: ala gertatzen da zirikaldi edo tentazioetan, batetik nai ta bestetik toki osorik eman gabe, gabiltzanean. Ezpa-gaude, ba, ziur gauza aztuna izan dala, ta ezaupide ta nai osua egon dirala, ezgaude ziur pekatua *larria* izan dala.

(1) Ezta au bildurtiegi edo eskrupulosuentzat; ba onei guztia irizten zaye *larria*: oek egin begie, itsuan, konfesoraren esana.

Azterketa (esamiña) egiteko itaunak

LENENGO AGINDUA:

Jaungoikoa gauza guztiak baño maiteago izatea.

¿Zenbat denpora da autortu (konfesau) zerala? ¿Ondo autortu ziñan? Charki egin baziñan, ¿zenbat bider autortu ta jaunartu dezu ordutik onera? (Urte edo il bakoitzean onenbeste, guchi-gora-bera).

¿Ba-dakizu ikasbide edo dotriña (1) *?

¿Ukatu dezu gure Erligio Santuko egirik, esateko, inpernua dagola*? Eztaba-
idan ibilli edo dudatu dezu zeure-artian*?
¿Ukatu dezu aoz olako egirik, zeure barruan ziñestu arren*? ¿Olako autuetan dabilzanei aurrerapiderik eman diezu galdetuaz, arpegi argia ipiñita, edo parre eginda*? (2) Ziñestea galdu, naiz oztutzeko,

(1) Izar aundia dauzkaten utseginak beti dira larriak, ezaupide lota nai osuaz egin ezkerok; ta orregtik esan zenbat bider egin diran, Iza chikidunak, pekatu larriak izateko ezaupide ta nayaz gañerr, gai pisua euki bear dute, Izar bagekoak beti dira ariñak.

(2) Onelako zinezgalduei arpegi charra erakusten etzayelako, zabaltzen dijoaz euskalerrian ere, gure ziñiste ederraren kontrako esanak, kalterik aundiena, fedearen oztasuna, dakazkienak. Jaungoikuak irakatsi ta Eleiza-Amak ziñisteko erabakita dauzkan egiak ukatzea, iru pekatu aundienetatik bat da eregiako pekatu ikaragarr-ia, gure aurrekuak eriotzaz zeatu edo kastigatzen zutena.

paper edo libururik irakurri, saldu, erosi, euki, edo eman dezu*?

¿Egon zera luzaro otoitz edo erregurik egin bage*? Nola egin dezu?

Apaiz jaunei (1) edo gauza santuei lotsa galdu diezu?*

¿Jaungoikuaren kontra jeiki zera, esanaz, esatebateko, eztala zuzena, edo errukiorra, zeu edo zeureak naigabetan daudelako?*

¿Salbatzeko ichodopenik galdu dezu, edo uste izan dezu, bestera, agindu guztiak bete gaberik salbatzea*?

Igarleagana (aztia) jua, edo juateko esan dezu?*

BIGARREN AGINDUA

Jaungoikoaren izen santua alperrik ez aitatzia.

¿Jaungoiko nai Santuei biraurik ezarri diezu*?* (2)

(1) . Apaizen kontra ekiteko oitura, kaltekorrena da, itsutzen dualako Jaungoikuaren grazia zerutik lurrera ekartzeko daukagun odi edo urbidea, apaiza. Jakitekua da orixe artu dutela masoyak Erlijioa galtzeko biderik ziurrentzat.

(2) Iru pekatu nagusienak utzita, auxe da beste gustiak baño aundiagoa: bere ondoan eztauko zer ikusi ezta gizona itziak ere.—Oituraz esaten det—Ainbat charrago, zer esaten dezun dakizula esaten badezu. Erdel-belarchar au euskalerrian ere sartzen dijua, guraso ta agimpidea

¿Zin edo juramenturik egin dezu gezurrez edo ezta-baidan, Jaungoikoa, naiz bereizatea berariz agertzen duten gauzak lekuko edo testigutzat ipiñita*?

¿Okerren bat egingo dezula-ta, zin edo juramenturik egin dezu*? (1)

¿Jaungoiko edo santuei egindako *eskeintzari edo botuak*, bete gaberik, aldezula, utzi dezuz?* (2)

dauken beste gustiak, egiñalak egiten ez dituztelako. Oitura deabruzko ori kentzeko, goizian-goizian erabaki biraurik ez esatea; ta uts egiten badezu, zigarrorik ez erre egun artan; edo zenbat bider esan dezun, ainbeste kurutze egin miñgañaz lurrean oerakuan.

Re esanda, Jaungoikuaren izena aitatzia, ezta pekatu larria; ezta *como hay Dios*, gezurrez esatea ere; *Jaungoikuaren egia* ere ez.

(1) Olakuak ez dira bete bear.

Umeak, atzaparrak kurutzea eginda, muñ egiten duenean; edo *Jaungoikorako* esaten duenean, ez tirudi benetako zin edo juramentua. Baña ez dira, ez egiñ, ez esan bear, charragora oitu ezdeitezen, eta Jaungoikuaren izen santuari dagokian lotsagatik.

(2) Gauza ona da eskintzari edo botua; baña ezta ona ariñegi egitea, konfesoreari galdetu gabe.

Sarritan agintzen dio batek Jaungoiko nai santuei au edo bestea egingo duala, artarako pekatuaren azpian lotu gabe. Oek ez tira eskintzariak, eta bai erabaki edo asmo onak; eta orrelako erabaki, asmo edo proposituak austeak, ezta, berez pekatu.

Guraso ta aginpidea dauken beste guztiak, kendu edo indargabetu leizke mendekuen eskin-

IRUGARREN AGINDUA

Jai-igandeak gordetzea (1)

¿Zabarkeriz utzi dezu Meza entzun gabe (2), edo Ofertorioa asita eldu zera*?

Zure nagitasunez utzi dezu meza-nagusia, bezperak, errosarioa, sermoya, dotriña, ta onelako jaya ondo santutzeko gauzak?

tzariak. Senar-emazteak ere bai, batak bestiagan daukan eskubidearen kaltezuak badira. Baita konfesoreak ere batzuetan aldatu leizke Kruzada'ko Buldaren bidez.

(1) Aita Santu Pio X. ^k zortzi jai-egun, igandez-ostean, beste guztiak kenduta, utzi ditu: Jesusen Joyotza (Natividad), Bill-ebaikundia (Circuncisión), Andra-Mariaren Sorkunde Garbia (Concepción), Jasokundia (Asunción), San Pedro ta San Paulo'rena, ta Santu Guztiena. Gutzat berriz beste iru berritu ditu: Sa nJose'rena, Corpuz Cristikua, ta Santiago Apostolua'rena: Gipuzkua'rako gañera San Iñazio'rena.

(2) Eztauke obligaziorik Meza entzuteko:

I) EZIN DUBENAK, eta dira: 1.º *kalte aundichua* datorkienak; edo, bestetan eztauketen irabazi aundia, galdu bear dutenak. 2. *Gaixuak gaixo-ostean*, bildur badira gaitz egingo diela echetik irtetzeak. 3. Beste edozein *bildur* edo *lotsa aundichua* igaro bearuko lutekenak. 4. Nai-naiezko *bidaldia* (beajea) egin bear dubenak, lenago edo geroago ezin entzun badute. 5. *Otsein* edo *serbitzariak*, nagusiak uzten ezpadiete; baña beste nagusi bat, aldala, billatu bear dute. 6. *Eleiza urrutti daukenak*.

¿Mezatan izketan, edo gogo bage, egon zera?

¿Lanik egin edo eragin dezu ordu biterdi inguru*? (1)

II) OPIZIOGATIK egon litezke Meza gabe:

1.º) *Artzayak eta bizar-kentzalleak*, ezin badute beste bat euren ordeaz ipiñi. 2. Amak, umeak echean euki bear dituztenean, edo Eleizan ezin egon diranean, garraxika ibilli gabe, ez eurak Mezarik entzun, ez bestiei entzuten uztenez diela.

III) KARIDADEAGAITIK egon litzke Meza gabe, gaixuak, naiz echea, norberena naiz besterena, zaintzen geratzen diranak.

(1) Eztaukete obligaziorik bearra uzteko:

I) EZIN DUTENAK. Oek dira: *Kalte aundichua* datirkienak, esanbaterako, zoroko gauzak galtzeko arriskuan badaude. 2. *Irabazi aundichua*, beztetan ezdauketena, galdu bear badute. 3. Astegunean euren edo ehekuen *jantziak* garbitu edo konpondu ezin dutenak, jantzi oek garbitu edo konpontzeko.

II) OPIZIOGATIK. 1.º *Ille, naiz bizarkentzalleak*, besterik euren tokian ezin utzi badute. 2. *Sastreta jostunak* ezkontza edo beste onen antzeko gauzako bearrezkua dan jantzia bukatu ezin badute; edo bezeruei, ala-bearrez, emandako itza, ezin bete badute. 3. *Nagusiak agintzen* dutenean; baina, aldala, beste bat billatu bear da.

III) KARIDADEAGAITIK: Erretzen dagon echea itzali, naiz gaisuari laguntzen, naiz beartsu barentzat lanean egon danak.

Mezarik ez-entzute ta lana-egiteaz gauza bi adierazo bear dira: Bata da onetan ez tala ibilli bear norberaren eta bai Paroko jaunaren iritziz, aldala. Bestea: ezin danean Mezarik entzun, edo lan egin leikenian, ezta izango, esan degun bez-

¿Barauak egin dituzu edo egun debekatuetan aragirik jan*? (1)

LAUGARREN AGINDUA

Aita ta Ama onratzea

SEME-ALABAK ¿Egon izan zera echean *maiz* bekoki aztunaz, itz banakak eta gorrak besterik esaten ezdituzula, gurasoak bigun egin arren*?

¿Iseka edo burlarik egin diezu*?

ela pekatu; baña Meza santua izanik berez, eta Meza nagusia oraindik geyago, sure animen janaria; Mezarik eutzuten eztuana, ta batezere jai-egunetan lana egiten duana, arrisku aundian dago anima makaldu ta gorputzak azpiratuta geratzeko. Orrelakuak, abereak bezela, mundu onetako gauzetara guztiz makurtuta bizi oi dira, lantegi edo fabrika aundietan ikusten dana. Eta gorputzari janariren bat ezin eman zayonean, beste bat billatzen degun bezela, animarentzat ere, Mezarik ezin entzun danean, naiz dala erre-guak egitea, naiz liburu on bat irakurtzea, guztiz izango da egokia. Baña, berez, eztago olako obligaziorik.

(1) Eztauke obligaziorik baraurik egiteko:

1.º EZIN DUTELAKO: gaixuak gaisonduan, edo beste edozer makaltasuna daukatenak. Luzaro jan gabe ezin egon diranak, esateko, aurdunak, naiz bularreko umeak daukatenak; eta, eskekuak izan ez arren, barau-eguneko jatordu nagusian, baraua gordetzeko bear leuken beste jan ezin dubenak.

2. *Opizioa gaitik.* Eztauke obligaziorik barau egiteko: nekazariak, achurlariak, argiñak, iel-

¿Zematu edo amenazau dezu gurasorik bekoskoz, itzez, naiz eskuz; bultza egin edo jo dituzu*? (1)

¿Eriotzarik opa izan diezu euren ontasunak zeureganatzeko, edo lasayago bizardzeko*? ¿Biraaurik ezarri*? ¿Euren esanak egin dizutu, Mezatara ta beste gauza onetara juateko, lagun gaiztokin ez ibiltzeko, laister echeratzeko, ta beste oen antzeko gauza pisuak *gogor agindu* dizuenean*?

¿Bete dezu euren azken-nai edo testamentua*?

tseruak, arotzak, errementariak, zapatariak, okin edo panaderuak, bidaldi luzea oñez egin bear dubenak, eta beste oen antzekuak. Jostunak, ala emakumeak nola gizonezkuak, berez eztaude libre edo askatuta: baña eurok, naiz beste edozeñek ezin badute bete euren egin bearra barau eginda, eztaude beartuta barau egitera, ta bai ez egitera.-

3. *Urtea-kaitik*. Eztauke barau egin bearrik ogeita bat urte bete ezduñenak, edo irurogeigarren urtea, ta emakumeak berrogeitamagarrena, asi dutenak. Garizuma guztian (ezta igandetan ere), ta beste barau egunetan ezin leike jan aragirik. Baña aragi-buldak ematen du eskubidea, arraya bakarrik jan bear litzaken egunetan, arrai orde aragia jateko. Ezeuki edo pobreak, onetarako naikua dute aita-gure bat errezatzea, bulda-ordez, Bulda daukanak artu leike aragi-salda ta gero arraya, jatordu batean; naiz arrai-salda, ta gero aragia, jatordu batean, buldaz aragia jan leiken egunetan.

(1) Onelakuak iltzeko agindu zuan Jaungoikuak bere legean. (Exd. 21-15). Berdin gurasuei birauak ezartzen ziztenak* ee (Lev. 20-9)

¿Irabazten dezuna eman diezu, edo gorputzeko ta animako bear-izanetan lagundu diezu, esateko, laister konfesatzeko, zentzua galdu arte ichodon gabe?*

GURASUAK: ¿Ardura aundia euki dezu zeure seme-alabei, ainbat laisterren irakasteko erreguak, dotriña ta dotriñaren azalketa edo esplikazioa, Meza entzun eragiteko, ta konfesau ta komulgau deitezzen, ezaguerara iritsi ezkeru, an da, zaspiturtez guchi-gora-bera, Aita Santuak oraintsu agindu duan bezela*?

¿Lagun-charretatik aldendu dituzu? Erromerira, edo neska-mutillak biltzen diran beste lekuren batera, zainduko dituzten lagun gabe, juaten utzi diezu*? (1)

(1) Deabruak sartuta dauka, zoricharrean, euskalerrian erromerietako oitura, ainbeste animen galtzallea; ta, batezere baserrietan, zorotzat dauzkate aldetzen diranak.

Baña oitura ori gora-bera, egia da Eleizako Irakasleri gustiak diotena: beartuak daudela gurasuak euren seme-alabak pekatuko arriskuetaik, aldala, aldendutzer.

¿Gaurko erromeriak berriz, norentzat eztira pekatuko arrisku? ¿Eta gurasuak arkitzen dira, seme-alabei erromeriak galerazi bearrean, eurentara juateko zirikatzen dituztenak!

¿Kolokatu egin bear ditugu! ¿Ederki kolokatzten dituzute askok inpernuaren erdian! Obeto *Kolokatuko* zinduzten ondo azita, erririk-erri animen arrapatzalle ta bestien parregarri erabiliiaz baño,

¿Illuntzera ezkerro, batezere alaba echer-
atu dezuz*?

¿Lau, bost urtetik aurrera seme-alabei
alkarrekin, edo senar-emaztien gelan
(koartoan), lo eragin diezuz*? (1)

¿Senar edo emaztegayakin alaba edo
semeari bakarrik egoten utzi diezuz*? (2)

¿Pekaturako beste edozein arrisku edo
okasiotik, aldezu, aldendu dituzuz*? (3)

¿Agindu onetan galerazita dagola ikus-
ten dezun gauzaren bat egin dubenean,
atzeratzeko-aña errietan egin edo jo di-
tuzuz?

¿Bialdu dezuz, edo, aldezu, juaten utzi
diozuz mutillari. bear aundirik gabe, urru-
tiko errietara, diru apur bat ekartzearren
euren animak, eta ez guchitan gorputzak
berak, galtzeko arriskurik aundienaz*? (4)

(1) Umiak gaur uste dan baño begi argiaguak
dakarzkite: ¡Amaika umek santutasunaren bi-
zilekua izan bear leuken echean, euren erruga-
betasuna edo inozenzia galtzen dute, gurasuen
ardura-ezagaitik! ¡Oyek eztira gurasuak: euren
biotzeko zatien, umien, eriozleak dira! *Non sunt
parentes, sed preemptores.*

(2) Onelako gurasuak ezin egon leizke pakean
euren kontzientzian, dio San Ligorio jakintsuak.

(3) Auxe da gurasuak euren seme-alabaetako
dauzkaten egin bearretan neurrik laburrena
ta zuzenena. Ikusi nun eukitzen zenduzten gaz-
tetan pekaturako arriskuak; anche eukiko dute
zeuen seme alabak ere. ¡Aldendu! Osterantzian
baukazue zer ikusi Jaungoikuaren aurrean.

(4). Mutil askok zebait izateko, ta gurasuak

¿Bialdu dezu alaba mirabe edo serbitzera, nolako echean sartzen dan, edo nola dabillen begiratu gabe*?

¿Utzi diezu seme-alabei aukeran eta euren adin edo sasoyan bizibide (estadia) artzen*? ¿Galerazi diezu erlijioso naiz apaiz izatea (1); ala, bestera, orretarako beartu dituzu*?

¿Erakutsi charrik eman diezu zeure biraubaz, apaiz edo erlijioaren kontra jardunaz, batari bestiari baño maitetasun geyago, bidegabero, erakutsiaz, echeratze berandukoaz, edo beste nolerebait*? (2)

Ameriketatik etorritako batzuen diruei begi argiegia ipiñita, artzen dute asmoa eurak juan; edo semiak, charrago oraindikan alabak, bialtze-ko: etorri diranen diruei ainbeste begiratu gabe, obeto pentsatuko baluke nolako bizitza, ta batezere, nolako eriotza Ameriketan askok eukitzen duten, eta euren siñesmen eta salbazioa bear dan ainbat maite baluteke, beste ardura izango luteke onetan. Besterik eziñean baizik, ez da bialdu bear!

(1) Au pekatu larria da bidegabe edo arrazoi-gabe egiten bada, naiz kristau ontzat dauden askok sarritan egin. Onetan ez bakoitzak bere buruari siñestu; galdetu konfesore jakintsu, kontzientzi aundiko bati. Baña eroan beragana seme edo alaba ere, bere arrazoyak ematera. Biei entzun gabe, ezin erabakirik eman leike zuzen.

(2) Emen ezarri diran gurasuen egin-bearrak Eleizako Irakasletatik ateratakuak dira: oekin erabaki edo juzkatuko ditu Jaungoikuak. ¡A zen guchi izango diran, orduan, salbatzen diran gur-

SENAR EMAZTEAK: ¿Irakatsi diezute alkarri zale-charrik, arpegi illuna *mais* ipiñita, itz. mingarriak edo asarreak esanda, naiz itzik egin gabe luzaro, gauza utsakaitik, egonda? ¿Irabazi dezuna eman diozu emazteari: ala gorde dezu gauza aundirik taberna, kafe ta batezere jokurako, zure emazte ta seme-alabak gosez edo zorrez utzita*?

¿Emaztearen baimena gabe aldendu zera luzaro zure echetik? ¿Etorri zera berandu echera, emazteari asarrea ta umiei erakutsi charra ematen diezula*?

¿Eskurik jaso diozu, edo asarraldi aundirik eman, batezere aurdun dagoala, edo lan geyegirik olakuetan eragin diozu*? (1)

¿Matrimonio Santuaren kontrako kezkarik badaukazu*?

ANAI-ARREBAK: ¿Asarre aundirik euki edo luzaro itza alkarri ukatu diezute*?

NAGUSIAK: Mendekuei gauza onak irakasteko ta gaiztakerietatik aldentzeko ardurak euki dezu, seme-alabagatik esan dan bezela*? ¿Gogorki artu dituzu*? Eman diezu, eta laister, euren irabaziak*?

asuak! Baña, beste aldetik, gaitzago da gizonezkuentzat, eskondu gabe Jaungoikuaren aginduak gordetzea.

(1) Onegaitik ainbeste aur galtzen dira, ta beste asko jayo argal, indargabe, ezertarako gauza eztirala; edo beinizat izan bear leuken baño makalago: orixe da gure izakera ederra galtzen duban sustrayetatik bat.

¿Euren utsegiteak agertu dituzu, biarrik gabe*?

MENDEKOAK: Bizi zera asarre, otsein edo serbitzaria zeralako*? (Jesus'ek berak esandu bere buruagaitik: ez naiz etorri besteak menperatzeko, baizik neu menpeko izateko)

¿Zure ardurapeko gauzak galtzen utzi dituzu*?

¿Denbora asko igaro dezu alperkerian*?

Nagusien kontra jardun dezu, edo agertu ixillik gorde bear zan gauzarik*?

¿*Botua* eman diozu Erligio ta erriaren alde geyen egingo dubenei, Aita Santuak dion bezela, begiratu gabe nork emango dizun diru geyago; nori zor diozun esker geyago; zein dan adizkidea, zein auzokoa ta orrelakoak*?

Endore (alkate), ziñegotzi (ayuntamentuko), auzi-epalle (juez), osalari (mediku), irakaslari (maixu) ta onelakoak aztertu begizate ondo euren egin bearretan.

BOSGARREN AGINDUA

Ez iñor iltzea

¿Iñor il* (1), zauritu edo jo dezu*? ¿Ola-korik nai izan*?

(1) Uste dan baño maizagotan gertatzen dana da au. Umea guztiz da biguna, batezere jayo baño lenago. Onelakuei jakiñen ganera eriotza ekartzen diena doibazkatua, (eskomulgatua) dago. Baña autor kuntzan (konfesioan) zuzentzen eztan gauzarik eztago; ez, ba, atzeratu orregaitik.

¿Gorrotorik badiozu iñori*? (1) ¿Biraaurik ezarri*? (2)

¿Eriotzarik opa izan diozu zure buruari naigabe *chikiagaitik**?

¿Edan (3) edo jan dezu gaitz egiteraño*?
¿Beste zer-edo-zertan zure edo bestien osasunari kalterik ekarri diozu?

¿Lagun urkuen animari gaitzik egin diozu, pekaturako bidea emanda, itzez, kiñuz edo egitez; kalean, plazan, tabernan, kafe ta beste batzarretan (4); eta, oraindik charrago dana, umiei naiz beste errugabeko edo inozentiei begirik argitu diezu*?
¿Asarratu zera? Bestien izakera (genio) charra eraman?

(1) Gorrotoa ez dan gauza edo beintzat az-tuna ez dana, pekatu aunditzat artuta, atzeratzen dira ez guchi konfesiotik: esan guztia, dan bezela, konfessore jakintsu bati.

(2) Ilko al-zera ta onelakuak gogo edo intenzio gabe esatia, pekatu ariña bakarrik da. Baña ez esan, batezere gurasuak.

(3) Moskorren azkena, geyenean, zoro-eche edo bideertza da, mundu onetan; bestean, impernua.

(4) Auxe da gaizbide edo eskandaloko pekatu aundia. Beragaitik dio Jaungoikuak: «*Animam pro anima*» ¿Anima ostu dezu? Zeure animaz ordainduko dezu.

SEIGARREN ETA BEDERATZIGARREN AGINDUAK

Aragizko pekatuak ez egitea.—Inoren emazterik ez nai izatea.

Atsegin charrik, jakiñen gañean, artu dezu pentsamentuz, nayaz, itzez edo egiñaz: bakarrik, besteekin, eskondugabe edo eskonduekin, edo persona ez danakin*?

Esan zearo, lotsa gabe, Jaungoikoari bezela, bakoitza zenbat bider, egunean, astean edo illean, guchi-gora-bera, inor izentatu gabe.

Aitortu gerta zaitzun beste argalkeri ta loikeri mueta (clase) guztiak, entsunaz, esanez (kontu, ipui ta kantak), ikusiaz, (zure edo bestien gorputz billoiza, estampa, komedia, zinematografo); irakurriaz (liburu, nobela ta oyen antzekoak), dantza, (1) musuka, estutze, bultza, golpe, besar-

(1) Naste-dantza edo *balseoa* berez ez dirudi pekatu, mortala edo aztuna beintzat. Esan nai da, nastedantzan egiten duten guztiak, egiteaz bakarrik, beste zerbaitegaitik ez-bada, ez dala ziur pekatu aztuna egiten dutela. Baña ala guziz ere, egiten da pekatu larria naste--dantzan, naiz beste edozeiñean: 1.º Ikutu charrak egiñaz edo kontu zatarrak esanaz, naiz gogapen edo pentsamentu, ta zalekeri loyei leku emanaz. 2.º Ikutu charrak egiten utziaz, naiz norberak atsegiñik

petu, zirri ta beste aragizko atsegin artzera guztiak. Ba, gauza bat jakin bear da agindu onetan, ezaguera ta borondate osoaz, ezkontzaz-ostean artzen dan atsegin char guztia, pekatu astuna edo larria dala. Eztago, orduan, zer arritu ainbeste

artu ez, uzteko premian ez bada arkitzen; ba, lapurretan beste bati, lagundu bearrez aurkitu gabe, laguntzen dionak, berak ostu ez arren, pekatu egiten badu; baita ikutu charrak egiten uztea, nola dantzan, ala beste edozeinetan, izango da pekatu larria, naiz norberak atsegin loirik artu ez.

Izan leike, batzu-batzuek ez batera ta ez bestera pekaturik ez egitea. Baña bildu saill aundian, estu-estu, neska buru-ariñak, loikeriz eta ez guchitan ardoz betetako mutillakin; soñu, kanta, jantzinasai ta beste aragiaren piztubide guztiak dauden tokian; ibilli ordu bat edo bian loikeria besterik ez ikusi, ez entzun, eza billatzen estala; eta ala guziz ere pekatu larriz loitu gabe irtetzen dana, benebenetan, edo da aingerua edo da arria.

Orrechegaitik ezin siñestu det, jolastea baño beste asmorik ez daukela dioen guztiak, egia aitortzen dutela; ba zartzaruan edo eskontzeko egiten duten konfesioan, esan oi dute naste-dantzagaitik: ¡Banekian gauza ona etzala, baño ¡guztiak izan!

Egin dezagun eztala orduan pekatuan erortzen, baño ¿nolako irudiak sartuko zaizka buruan? ¿Nolako gogapen edo pensamentu, zale ta pekaturako makurtasuna ez zayo ortik sortuko? Ala ikusten dira eun dantza-zaletik ez dirala pekatu larri gabe lau arkitzen. Balak gerretan gorputzak-aña anima, iltzen ditu naste-dantza madarikatu onek. ¡Bai! Aragiak asten ditu naste-dantzak. aragiak danzka oñian, eta aragiak

izatea kondenatzen diranak, ez kondenatzen diran eundik larogeitaemeretzi, pekatu onekatik kendenatzea; ezta Jaungoikoak pekatu itsusi, ezinesaneko au, ainbeste gorrotatu ta neke edo kastigurik izugarrienaz, antziñatik onutza, zigortu ta kastigazea ere.

ZAZPIGARREN ETA AMARGARREN

AGINDUAK

Ez ostutzea.— **Ez besteren ondasunik** (bidegabe) **nai izatea**

¿Ostu dezu, edo ostutzeko gogorik euki dezu*?

¿Saldu-erosietan bidegabekerik egin dezu, gauza ez diranak salduta, edo onak charrez nastuta, bestiak oi duten baño goraguan emanda, neurri chikiagoak eukita, edo, jakiñen gañean, ostutakoa erosita*?

¿Jokoetan tranpaz eker irabazi dezu*?

jarraitzen die. ¡Kendu aragia! Eta munduko gauzarik zoruenak bezela, bertatik kenduko dira naste-dautzak. Orregaitik billatzen dute naste-dantza-zaleak, gauba, bakartasuna, edo erbestea.

¡Bai! Konfessore, sermolari, agintari ta batezere gusasuak, guztiak alkar-artuta, alegiñik aundienak egin bear dira, deabruak, askotan ardo-saltzalliakin bat eginda, gure artean sartu diguten erbesteko oitura gorputz-animen ondatzalle au, al bait laisterren euskalerra maitetik bere to kira botatzeko.

¿Testamentu ta beste azken-aginduak bete dituzu*?

¿Zorrik, aldezula, garbitu gabe ba-daukazu*?

¿Kalterik, jakiñen gañean, egin dezu*?

¿Ostu, naiz kalterik egiteko agindu, edo orretarako biderik eman, edo nolerebait lagundu dezu*?

¿Ostutakoa, edo jakiñen gañean egindako kaltea, al-izanda, ez dezu biurtu edo ordaindu*?

ZORTZIGARREN AGINDUA

Gezurrik ez esatea. — Iñori egin eztubenik ez ezartzea

¿Gezurrik esan dezu*? (1)

¿Esanda iñori kalterik ekarri*?

¿Erantsi edo jaso diozu iñori gezurrezko gauzurik*?

¿Gaizki-esaka egin dezu, bestien gauza onak chartzat artuta, charrak geituta, onak ukatuta; edo bestiak goratzen dituztenean, ixillik, asmoz, geratuta*?

¿Murmuratzan edo gaizki-esaka dabilzaneñ aurrerapiderik eman diezu, gal-

(1) Gezurrik ez da esan bear purgatorioko anima guztiak ateratzeatik ere, aibat guchiago gauzak *erremediatzeko*: onetarako ohea da egia ezkutatzea.

derak eginda, edo arpegi argia erakutsiaz*?

¿Kartarik idiki dezu, jakiñik gauza aztunen bat daukala, edo chartzat jabeak artuko duala*?

¿Bata-bestien kaltez entzundakorik esan dezu, alkarren artian asarrea sartzen dezula*? Izen onaren edo kredituaren kontrako gauzarit esan dezu, naiz egia izan, zabaldegabea danean*?

¿Iñoren kalkez uste edo juzgu charrik euki dezu uskeri-gaitik*?

¿Bestien izen ona galdu dezunean; naiz egia esanda, biurtzeko alegiña egin dezu, esanaz, esatebateko, oker esan zenduala; edo beste gauza on bat bere alde aterata*?

GAZTECHOEN AZTERKETA

Kurutze Santuaren...

Argitu, Jauna, nere adimena (entendimēntua) ta indartu nere naimena (borondatea), azkenengo ondo egindako autor-kuntza (konfesiotik) oraindañoko utsegiñak ezagutu ta biotzez gorrotatzeko.

LENENGO AGINDUA: ¿Goiz-gaubeko otoitz (errezuak) egin dituzu? ¿Nola?

BIGARRENA: Jaungoiko nai santuei biraurik (maldiziorik) ezarri diezu.* Maldizio

chikirik esan dezu? Zin edo juramenturik gezurrez egin*? (1)

IRUGARRENA: Meza jai-egunean entzun dezu*? Izketan, albora begira, parrez, jolasean ibilli, edo bestiei orrelakorik eragin diezu?

LAUGARRENA: Gurasuen aginduak laister eta gogoz egin dituzu*? (2) ¿Zar eta eskekuiei iseka (burla) egin diezu*?

BOSGARRENA: ¿Echeko ta lagunakin asarratu zera*? ¿Arririk inñori bota*? Besterik jo*? Jan-edanak gaitzik egin*?

SEIGARRENA: Loikeririk euki dezu gogapenez (pensamentuz), naikeriz, itzez, ikuszez, entzutez, edo egitez*? ¿Zenbar bider?

ZAZPIGARRENA: Ezer ostu, naiz kalterik egin dezu gauza pisuan*? (3)

ZORTZIGARRENA: ¿Gezurrik esan dezu*? Bestiakaitik gaizki esan*?

(1) *Re* esanda, Jaungoikuaren izena aitatzeari ezta pekatu larria. Ezta *como hay Dios*, ez Jaungoikorako, ez Jaungoikuaren egia esatea, ez eskuakin kurutzeari eginda muñ egitea, naizta gezurrez esan, ez tirudi pekatu larria, baña ez egin olakorik.

(2) Ez asi emen esaten: ezdet ekarri ardua, ura ere ez, eta orrela. Esan dana batean: ezditut egin gurasuen esanak.

(3) Ez asi emen ere esaten: Ostu ditut sagarrak, matsa, eta onela. Esan dana batean: Ostu ditut gauza chikiak.

Damua artzeko esan biotzez: *Nere Jesu-Kristo Jauna*, naiz liburuchu onetako otoitz (orazioak).

KONFESIO AURRERAKO ⁽¹⁾

OTOITZA

Lotsaz arpegia gorriturik eta burua makurtuta nator, Jauna, Zure aurrera. Ez zindudala geyago iraindu edo ofendituko, maite izango zindudala, ¿zenbat aldiz agindu ez nizun lengo konfesioan? ¡Eta ala guziz ere, ona emen zenbat pekatu egin ditudan Zure begi garbien aurrean, Zugandik artutako almen eta zentzuaz. Bai, Jauna, egin det, eta ezin ukatu neike. ¡Ni, lurreko ar zistrin, ezerez au, jeiki naiz Zure aunditasun, aingeruak berak arrituta dauzkana naren kaltez.

Begiratzen det nere animara, ta belztuta, itsusituta, deabru koba bat eginda ikusten det; jetsitzen naiz inpernura, ta ao-zabalik dakust (ikusten det), piztia bezela, nere kontra irrintzika, ni irentsi nayaz; igotzen naiz zerura, ta ichita dagozkit ateak, aingeruak bultzaka ateratzen nautela eztutelako

(1) Otoitz edo erregu oek pekatu larriak daukenentzeko jarriak dira berariz. Baña, guztientzat ezdatoz gaizki, ondo dalako gure bizitzako pekatu guztiak egin-berriak bezela goguan eukitzea, konfesatzen geran bakoitzean.

egon nai, une bateko atsegin zatar bategaitik, euren laguntza gozoa saldu duan burugabeko onekin. Dardaraka nua kalbariora, ¿ta zer da arkitzen dedana? Jaungoiko aundia, zeru-lurren Egillea, nere Aita maitea. ¿Nola? Gaizkillerik aundienaren gisan, kurutzean isekita, ilda. Onelako zori negargarrian ¿nork ipiñi du? ¡Nik, nere pekatuak! ¡Bai, Jesus ona! Iltze gogorrez josita ikusten ditut zure esku-oñak, nik nereak nasaikerira luzatu ditudalako; zatituta gorputz garbi ori, nere loikeriakaitik; arantzazko koroï ori, nere arrokeri ta gogoratzete gaiztokaitik, eta arpegi eder, aingeruen zoragarria, chistu zikiñez beteta, nere itzchar eta birauakaitik; Nik, nik, erabilli det ostikopean zure Odol ederra; biotz gozo, ainbeste maite nauen ori, nik samintasunez bete det.

Baña galdua, gaiztoa ta eskergabekoa izan arren, Zure semea naiz, Jauna, ta Zu nere Aita, aitarik onena, errukiorrena, samurrena ta seme-maitiena. Zor det, baño ez nazazu, Jauna, Zugandik aldendu; Zure oñetan, nere eskergabekeriagaitik negar egiten utzi zaidazu. Barkapen-eske dator-kizunean pekataria, bere pekatuak etzinduztela gogoratuko zeuk esan zenduan; ezta aspertuko ere zaspi bider zaspi amarrkotan barkatzen. Emen naukazu, ain maiz emandako itza, maizagotan ukatu dizudan pekatari gaizto au. Zedorrek eza-

gutzen dezu nere argaltasuna-ta, barkatu nere gaizki egiñak!

¡Ama, María! errukitasunaren Ama ta pekatarien kai ta gordeleku ziurra; Jesus eta bere seme galdu onen artean pakeak egitera, sartu zaite. Ezdet merezi, ondo dakit, zazpi ezpata zorrotzez josi dedan ezkerero biotz gozo ori. Baña Ama zera, ta azturik nere gaiztakeriak, artu nazazu arrera onez; eta Zure magalpean ezkutatuta, Zure seme Jesus'en aurrean agertu nazazu; damu aundiaz eta zearo aitortuaz nere pekatu guztiak, Zure maitetasunean ta Zure seme Jesus'enean sartu nadin. Alan izan bedi.

KONFESIO ONDOREAN

Zure barruan zer gertatu dan ¿baaldakizu, ene anima maiteorrek? Orain unechu batzuk ¿zer ziñan? Eta orain ¿zer zera? Apaiz jaunaren aurrean belaunikoto ziñanean, deabru koba bat ziñan; orain Jaungoikoaren beraren bizi-leku gozatsua. Beltz, ichusi zeunden orduan; orain zuri, eder, argitsu Jaungoiko ta laingeruen aurrean.

Orduan, begiratu Jaungoikoak, eta iguiez ezin ikusita, albora egiten zuan; orain ezin ditu begiak pozez zugandik al-dendu. Orduan deabruaren mendekoa ta

inpernuko illati bat ziñan; orain Jaungoikoaren lagun eta benekato seme maitea, ta orrehegaitik zeruko jabegai. Lengo illuntasuna, lengo larria, kezka ta biotzeko samintasuna ¿nun da? Zer da nere barruan arkitzen dedan poz, zabaltasun eta atsegina? Ziñestu ere ezindan aldakuntza au, ain denbora guchian, ¿nork egin, zu izan ezik, ene Jaungoiko onori?

¿Eta Zu iraindu zaitut? ¿Zure kaltez jeiki naiz? ¿Zu nere biotzetik atera zaitut? ¡A ze damu dedan! ¡A eta olako lotsagaberirik beñere ez egiñagatik zer emango ezneukean! ¡A nor asi leikean daukadan ezaguera ta zure maitetasunaz orainchetik bizitzen, biotz samur, maitekor ori, nere bizitza guztian bein-ere ez mindutzeko.

Baña au nere eskuan ez daukadan ezkerro, erabakitzen dizut, Jauna, orain aitortu dituztan pekaturik, ez besterik, ez dedala egingo. Milla bider il, Zu samindu baño lenago; milla bider il, Zu, nere maiteri, nere biotzeko ostatutik bota baño lenago. ¡Alde nigandik, deabru galtzalleori; alperrik etorriko aiz beste zaspí, eu baño charragoak artuta, garbiturik ikusten duan eche onetan sartzera. ¡Alde; ¡Ez dek nigan zer ikusirik! ¡Alde nigandik pekatu ta pekatuako bideak; alde pekatuko lagunak; alde jostaketa zoro, animak arrapatzeko sareak, alde zalekeri ta kontu zatarrak! ¡Ez beste bein petaturik, Jauna, ez, ez! Naikoa

ta geyegi dira oraindañoakoak. Sarritan eman dizut itza, ta sarritan uts egin det; baña oraingoan ez nuke nai azpiratua irtezea. Ala-ta guziz ere argala naizela, ikusten nazu, Jauna, ta zuk indartu nere gogoa; Zuk josi Zure bildur santuaren iltzeaz, pe-katura erori ez nedin. ¡Jesus'en Pasioa indartu nazazu! ¡Jesus'en Biotza! ¡Zure barruan gorde nazazu!

Eta Zu, nere Ama maiteorrek, begi ain samurraz, orren pozik begiratzen didazun ezkerro, eman dedan itza eusten lagundu egidazu. Ara or nere biotz onen giltza, gorde egidazu eriotzaraño; ta iñoiz eskatzen badizut, ez zoro baten esanei baño ge-yago entzun, Zu ta Zure seme Jesus'ekin bizi, Zuek lagunduta il, eta Zuen arpegi ederra ikusten egon nadin betiraunde osoan. ¡Ala izan bedi!

JAUNARTZE SANTUA

Jaunartzeko Sakramentu Santua, Sakramentu guztietatik aundiena, santuena, ta beste guztien burua da; Jesukristo gure Jauna egiz eta oso-osorik bere gorputz, odol, anima ta Jaungoikotasun guztiaz bertan artzen dalako. Juan maiz, eta alik gertaera (prestaera) onenaz graziaren iturburu onetara; zure anima ase ta aberastu nai badezu.

GERTUERAK (prestaerak): *Gorputzerako;* baraurik egon bear da, ezer jan ez edan gabe, aurreko gaubeko amabietatik aurrera (1). Ortzetatik irtendako odol apur bat, naiz agiñartean gelditutako ondakiña irentsiarren, ezta barau ori galtzen; ezta auba uraz garbituta ere, ez garbitzekoan ez-tarritik bera juandako tantaren bataz ere; zigarroa erreta ere ez.

Animarentzako: grazian egon bear da, esan nai da, pekatu larririk gabe; eta pekatu larrian erori danak, grazi ori konfesioaren bidez, aldala, iritsi bear du. Konfesatu-ta gero pekatoren bat gogoratu arren, ez dio ajola, ¡Jaunartu!; ta aztu zaitzun pekatua, urrengo konfesioan ai-

(1) Edozein ordulari edo erleju dezu gidari, oso zorua ez-bada.

tortu. Jakitekoa da, Jaungoikoaren grazian geyenian daudenak, jaunartu lezatekela, pekatu larri *ziurrik* (segururik) ezpadaukate.

Agiñakin ostiari ikututzea, ezta pekatu; ezta jaunartuta gero chistua botatzea ere; baña jaunartu ta laister ohea da ez botatzea, naiz musuzapi edo pañueluan artu. Ondo da, baña ez naitaezkoa, konfesoari jaunartzeko baya (permisua) eskatzea.

JAUNARTU AURRERAKO

OTOITZA

¿Nor datorkizu, ene anima? ¿Zer da egi-tera zuazena? ¿Jaungoiko aundia, zerulurrak betetzen dituana, ta beste milla zeru ta lur balegoz ere, bertatik beteko lutezkena, artuko dezu zure barru chikian?—(1) Zure zoria Andra-Mariaren zoriaren antzekoa da: Andra-Mariak bere sabelean euki zuana, auxe bera euki bear dezu zuk ere zure barruan.—Ola da, Jauna: nere begiak ogia besterik ezdute ikusten; baña Zuk diozu oso-osorik zaudela osti chiki orretan. Bada nik ziñesten det bene-benetan, eta nai nuke era eduki, egi maitegarri onen alde nere odola ta bizitza osoa

(2) Arrai bakoitzean geratu zaite apur batean, irakurritakua goguan erabiltzen.

emateko. Sendatu, Jauna, oraindik geyago nere ziñeste argala.—Bai; estalpe batean nigatik jayo ziñana, nigatik ainbeste zigorkada igaro zenduzena, nigatik kurutzean il ziñan berberori nere biotzean artu bear zaitut.

¿Norgana dator, baña, Jaungoiko aundia? ¿Nor naiz ni munduko gizon guzien aldean? ¿Eta zer dira munduko gizon guztiak aingeru guzien ondoan? ¿Ba zer izango naiz ni, Jaungoikoakin berdintzeko?—¿Eta pekaturik egin ezbanu? ¿Baña zenbat bider loitu ezdet biotz au?—¿Eta biotz itsusi onetan sartu Zu ¡ene Jesus garbi ta garbizaleori!--Zeruak berak eztaude garbi Zure aurrean, aingeruetan ere loya arkitu zenduan, eta nere biotz iguigarriak ez zaitu atzeratuko?—¿Ainbeste gaizki esan, itz zatar eta, benturaz, birau. esan dituan mingain oni ikutuko diozu? ¿Ainbeste naikeri loiren sorlekoa, deabruaren kabi bat izan dan biotz itsusi onetan jarri zure egolekua, aingeruen ego-gañean bizi zeran orrek?—San Juan Bataitzalleak, ezta zure oñ-lokarria askatzeko ere etzala diña bazon; San Pedro'k, Zu ikusita, deadar egin bazuan: kendu, Jauna, nigandik, pekatari bat naiz-ta; ¿nola irichiko naiz Zugana, ain pekatari aundia izanik, ez oñ-lokarria askatutzera, nere bularrean artu, ta nere gorputz loi onekin zure gorputz garbi ori

batasun estuenean, jatekoa jaten duanakin bezela, bat egiteraño?

¿Zertako dator? Nere Aita da; ta, bere Biotz ederra maitetasunez beteta, seme galdu au laztandutzera dator; osalaririk onena da, ta gaixo au sendatzera dator; irakaslaririk onena, irakastera; atsegin guztien jatorria, ni pozez betetzera.

Etorri, ba, Jauna, etorri ordu onean. Badakit ondo, eznaizela diña; baña ñnora juango naiz, izanik Zu nere bizitza ta zoriontasun guztia? Etorri, ba; nere biotzchu au zure eder orrekin bat egin dedilla; garbitu, osatu, argitu, poztu ta atsegindu nazazu.

¡A, Jauna; eta ze argi ikusten dedan nere biotzaren oztasuna! ¡Eta nola mintzen nauan Zu geyago ez maitatzeak! ¡Jauna! maitatu nai zinduzket aingerurik sutsuenak ainbe, Zure Ama Mariak ainbe, Zu zedorrek ainbe. Artu, Jauna, zere izenean maitetasun guzti ori, nere baliz bezela, nere biotz loitu onek atzeratu ez zaitezan ¡Jesus'en Biotza! altaran zauden bezela, maitetasunez erretzen, zorioneko Margarita Alakoke'ri agertu ziñan: labe gori orretatik, chinpartchu bat nere biotz epel onetara.

¡María, Jesus'en eta nere Ama maiteori! Bitarteko izan zakizait ordu onetan.— Amak semechoa beste bati agertu bear dionean, begiratu arpegira; ta, loitua ikusten badu, garbitu gabe ez du uzten. Be-

girakunechu bat nere animora ere, ta Zure Biotz errukitsu orretatik dariotzun graziazko ur tanta bat az bada ere, garbitu nere biotza, Zure seme Jesus'en aurrera erru gabe agertu nadin; eta eskutik artuta bezela, eraman nazazu beregana; edo, obeto, sartu zaite nere barruan, eta artu egidazu zuk, bizitzan artzen zenduan bezela, nere anima zikin onek Zure Seme maitea loitu eztagizun. Amen.

Iruditu bear dezu, Andra Mariak esku batetik eta aingeru zaitzalleak bestetik artuta, ipintzen zaituztela Altarako Mai Santuan. Piztu zuk zure ziñistea; ta egizu, osti aretan ikusten dezula Jesús, munduan zebillen bezala, gizon-autzera, ta apaiz jaunak erriari begiratu, eskuetan artu ta jasotzen duanean, berakin batian iru bider apaltasunik aundienaz esan egizu:

¡Jauna! ez naiz diña, Zu nere echean sartzeko; baña esan, ta beste gabe, nere anima sendatuko da. (1)

Gure Jauna artzeko egon geldi lotzaz eta itzal aundiaz, alboetara begiratu gabe, jaso burua, begiak bera edo ichita dauzkazula; zabaldu auba, atera mingaña, beko ezpañña baño apur bat geyago, ta irentsi Ostia Santua, apur bat bustitakuan.

(1) Euntari, edo eun soldadun nagusiak, bere echera morroya sendatzera Jesus zettorrela ikusirik, esan zituan Eleizak jaunartu aurretako dauzkan itz oek.

JAUNARTU-ONDOREAN

Jaunartuta, juan toki ezkutura, ichi begiak, eta bildu, pake-pakean, beste zentzu guziak.

Egin bear dana da: 1.^o **Ikusi zure barruan Jesukrisio, gure Jauna**, munduan zebillen antzera ta aingeruz ingaraturik, eta gurtu edo adorau berakin batian esanaz:

¿Egia da, Jauna, nere barruan zaukatzula? ¿Biotz ain chiki ta itsusitura zerk ekarri zaitu? ¡Ezagun da, nere Aita benetako ta maitatzallea zerala!—Ni makurtzen naiz Zure aurrean, eta nere indar guztiaz gurtu (adoratzen) zaitut aingeru oyekin batean. Oyen adimentu zorrotz eta naimen (borondate) sutua euki nai nituzke, berak bezela, Zu ezagutu ta maitatzeko. ¡A, nork leuzkan eskuan zeru, lur eta ichasuetako gauza guztiak, Zure aurrera Zu gurtutzero ekartzeko! Benik-bein artu egidazu nere biotzchu au, ta berakin batean, nereak balira bezela, Andra Mariak, zeruko zorioneko ta lurreko santuak, munduko izate danak, ematan *dizuten* gorotasun eta alabantza guztiak.

2.^{an} **Eskerrak eman:** Eskerrak ematen dizkitzut, Jauna, jayotzatik onera egin dizkidazun on guztiakaitik: sortu, ta kristau egin nazulako; ainbeste aldiz, pekatuak barkatuaz, inpernutik gorde nazula-

ko, nere barrura etorri zeralako, ta Zuk dakizkizun beste on guziakatik: Guztien kitubidetzat eskeintzen dizut Zure gorputz, odol, anima ta Jaungoikotasuna; ba nerea zera, bein nere barrura etorri zeran ezkeru.

3.^{en} Ikusi nola dagoan Jesus gure barruan esku biak ondasunez beteta, ta gizonei arpegian ematen, eurak, ondasun guztien bearrez egon, eta beragana eske ez datoze-lako, A. Alvarez, S. Teresa'ren konfessore, birtute aundiko Jesuitak, ikusi zuan bezela; eta NAI DEZUN GUZTIA ESKATU; ba Jaungoikoagandik nai dana eskuratzeko auxe da erarik onena.

¡Ene Jesus ona! Zure ondasunak nigan zabaltzen etorri zeran ezkeru, mesede bat eskatu nai dizut, ¡aundiena! ez nadilla inpernura jua! ¡Jauna! ¿Nere mingain au orain Zu alabatzen, eta gero Zu madarikatzen egon betiko inpernuan? ¿Nere biotz au orain zu maitatzen; eta gero gorrotorik bizienaz betiko Zu gorrotatu? Zurekin bat bezela eginda orain, eta gero Zuegandik betiko aldendu? Zu zeranagatik, eta une onetan erakusten dirazun ondo-nayagatik, ¡ez, Jauna, arren, olakorik!

Gorde nazazu, Jauna, ainbeste bider azpiratu nabere oitura char onetatik ere; eman egidazu indarra mundu, deabru ta aragia menderatzeko. Bota egiozu Zure oneste edo bendizio santua eskuartean

darabildan arazo oni; baita nere echeko, senide, adizkide, ongille ta etsayei ere. Eta, ni gaisua ta Zu sendagillea izanik, almenikalmen eta zentzunik-zentzun ekarri bear zaitut. ¿Ez dezu ikusten irudi charrak ain errez ekartzen dituan irudimen au? Garbitu egidazu. ¿Zure gauzetarako ain illuna dedan adimen au? Argitu egidazu. ¿Eta naimen makal, gaur jaso, biar erori dabilen au? Indartu egidazu. Emen dauzkazu begi oek, gauza charretarra berez dijoazek; belarriak, mundurako idikita, Zur-etzat ichiak; mingain au, gaizkiesan eta izketa zatarretako ain ariña. Ikutu egiezu gaixo mota guztiak ikutuaz bakarrik sendatzen zenduan gorputz orrekin; garbitu ta zaindu nazazu, pekatura erori ez nadin.

Lagundu egizu Aita-Santu, Obispo, Apaiz, erligioso, agintari ta beste erligioari on asko egin leikien guztiei ere; bakoitzat bere egin-bearrak ondo beterik, pake santuan aurreratu ta zabaldu dedin gure erlijio salbagillea.

Ixuri, Jauna, azkenik, garbilekuko animei ere, batezere gure artekuei, neri ain ugari eman dirazun odol garbitzalle orren tantacho bat bada ere; atsekabe ain aundietatik ainbat lasterren irtenik, Zure errukitasuna alabatu ta gure alde geyago ta geyago eskatzera zeruratu deitezen.

4.^{en} ESKINI. Mesede aundi onen orde, ¿zer emango dizut, Jauna? Baña Zure es-

kutik artu ez dedanik, ¿zer daukat? Baña badakit gauza bat nai dezula beste guztien gañetik: ez dedala geyago pekatu egin. ¿Eta ain lotsagabea izango naiz? ¿Maitetasunik aundienaz, eta nere onik aundienerako artu dezun nere biotzeko bizitokitik aterako zaitut? ¿Nor artzeko, baña, Zure orde? Zure ta nere etzairik aundiena ¡deabrua berbera! ¿Eta aldakuntza kaltekor au egingo ete-det? Ez ete-det eukiko Zurezat, ez nere buruarentzat ondo-nai geyago?

Kopoi Santua ardoz, beste edozein ontzi balitz bezela, loitutzea, pekatu aundia bada, Zure Gorputzak eta olio Santuak ikutu diolako, ¿zer izango da Zure jarlektzat artu dezun nere biotz au, munduko gauzarik loi ta itsusienaz, pekatuaz, belztu, zikindu ta deabruaren bizileku eginda ipintzea?

Ez; ezditut loituko begirakune nasaiz santututa dauzkan begi oek, ez belarriak gaizki-esan eta izketa zatarrak gogoz entzunaz, ez mingaña itz zikiñak, ainbat guchiago inpernutarren birauak esanaz; eta Jaungoikoaren beraren bizilekua dan biotz au, gauza santua bezela, pekatu larri guztietatik zaindu nai det.

Gure misioetako gertakuntzetan irakurtzen da, eldurik indio bat Pazkoaldian misiolariagana, gure Jauna eskatu ziola. Misiolariak: ¡Esan egidazuz, ba, pekatuak! —Eta indioak: ¿Ze pekatu? —Igeztik oraindañokoak.—¿Zer? erantzun zion

indioak, dana arrituta, an, zuen erritan, kristauak, jaunartuta gero ere goraindik pekatu egiten dute?—Indio orrechek ikasi zuan ondo, jaunartzea zer dan.

Esaten dute ordu-laurden baten guchigora-bera egoten dala Jesu-Kristo jaunartzen duanaren barruan: orrechegaitik guchienez ordu laurden batean egotea eskerrak ematen, guztiz da egokia. Ez askok egiten duten bezela, jaunartuta bereala irten eleizatik. Jesus ate batetik euren echera sartu ta eak beste batetik iges; ¡lotsagabekeri aundia gizonik ezerezanekin egiten eztana! Zorioneko Aita Avila'k, ikusirik gizon bat jaunartuta bereala eleizatik irtetzen, agindu zien bi mutilli kandela bana artuta lagundu zegiela. Arrituta gizona mutilcho biak alboan ikustean, esan zion Santuak: «Sakramentu Santua nola barruan dar-
amazon, nik bialdu ditut argi egitera».

S. INAZIÓ'REN

OTOITZA

Artu, Jauna, ta zeuretu egidazu nere aukeramen (libertade) osoa, nere oroimen, adimen eta naimen osoa, daukadan eta dedan guztia. Zuk eman zizkidazu: zuregana, Jauna, biurtzen ditut, zurea da guztia; agindu gogo osoaz. Zure maitetasun eta grazia eman, eta naikoa det.

300 eguneko barkapenak, egunean bein esanda (Leon XIII).

S. INAZIO'K ESAN OI ZUAN

OTOITZA

Kristo'ren anima, santutu nazazu.

Kristo'ren gorputza, salbatu nazazu.

Kristo'ren odola, asetu nazazu.

Kristo'ren bularreko ura, garbitu nazazu.

Kristo'ren Pasioa, indartu nazazu.

¡O Jesus ona! aitu egidazu.

Zure zaurien barruan gorde nazazu.

Zugandik aldendutzen ez ni lagatu.

Etsai gaiztoagandik gorde nazazu.

Nere eriotz-aldian deitu egidazu.

Eta Zuregana juateko agindu zadazu.

Santu guztiakin Zu gozatzeko

Betiraunde guztian. Amen.

300 eguneko barkapenak esan-aldi bakoitzean; zazpi urtekuak egunean bein Meza, naiz jaunartze ondorean, eta barkapen osoa illean bein konfesatu, jaunartu, Eleiza ikustatu ta bertan zer-bait erregututa.

JESUS KURUTZEKOARI

OTOITZA

Auspezturik naükazu emen, Zure aurrean ¡Jesus ona eta gozo-gozuorrek. Nere animako berotasunik aundienaz eskatzen dizut, idatzi egidazula nere biotzean zi-

nespen ichodopen eta maitetasun bizi bat; nere pekatuen damu egizkoa, ta aurreran-tzean besterik ez egiteko erabaki sendoa; nere biotzeko samintasun eta erukirik aundienaz, gogoratzen ditudan bitartean Zure bost zauriak, begien aurrean eukirik Zugatik jone Jesus onori! David igarle santuak, ziona: *Zulatu dituzte nere esku-õnak, eta zenbatu leizke nere ezur guztiak.*

Otoitz au Jesu Kurutzetuaren aurrean egin, Aita Santuarentzat zerbait eskatuaz, esateko *Aita gure* bat, eta irabazten da barkapen osoa, garbilekuko animei eman leikena. (Pio IX 1858'g. —Uztaren 31).



Birjiña Mariakin bat eginda Jaunartzea.—Guztiz da ongillea, *Jaunartu aurrean*, utzi zure gertapen (prestapenak), eta artu zuretzat Birjiña Mariak jaunartze-aldian eukiko zituenak. Eskatu eman deizula bere Biotza, bertan artu dezazun Jesus, ez zurean, loi dagota. Esan, zor diozkatzun mesedekaitik eskerrak ezin emanik, Jesus emanda, oraindik artzeko geratzen zerala; eta Belen'go estalpean, loya izen arren, Jesus'ekin egotearren, pozik egon zan ezkerro zugana ere etortzeko.

Jaunartu ezkerro: Bildu-bildu eginda, baña es-tutu gabe, sartuko dezu Jesus ona Andra Mariaren Biotzean, berak ipiñi degizun zurean Be-ngo askachoan bezela: eta orduko antzera berak zure ordeztu gurtu ta maitetu dezan. Entzun Ama —Semeak esaten dizutena.



Jesusen Biotzaganako oneraskuna (debozioa)

«Ona emen gizonak ainbeste maitate izan dituan Biotz au, bere maitetasuna erakusteko agortu ta ezereztu arte geratu ez dana. Baña ain maitetasun aundiaren ordezt, geyenak esker charra, sakrilejioak, oztasuna ta aintzat ez artzea besterik ez dute erakusten. Orrechegatik eskatzen dizut, Korpus'ko zortzigarren egunetik urrengo ostiralean nere Biotza goratzeko berarizko jai bat egin dedilla, jaunartu ta agiriko eskintzaria egiten zetala, agirian egon naizen egun oyetan egin diraten iraiñen ordezt. Eta agintzen dizut nere Biotza idikiko dala, nere maitetasunaren doayak ugari emateko, gorapen au eman eta bestiak eman dagiten alegindu diranen aldezt.»

Jesus'ek bere Biotza agirian zubela, zotioneko Margarita M.^a Alakoke'ri esan ziozkan itz eder oez irakatsi zigun: 1.^o *Bere*

Biotzaren oneraskun eder, gozutsu, ongillea zertan dagoan, au da: begiratu ze maite gaituan Jesus'ek, eta maitetasun orri maitetasuna erakustean; eta ikusi ze gaizki erantzuten dioten geyenak maitetasun aundi orri, ze atsekabetsu daukaten, eta poztutzeko alegin egitean.

2.^{en} *Zer dan orretarako, batikbat, egin bear dana: jaunartu ta zerbait eskeiñi*

3.^{en} *Ortik datozen aberastasun ugariak: ona emen berberak Margarita Mariari egindako amabi agintza nagusiak: 1.^a Beren bizibidean bear dituzten laguntasun guztiak, Nik emango dizkiet. 2.^a Beren sendi edo familietan pakea zabalduko det. 3.^a Atsekabe guztietan Nik atseginduko ditut. 4.^a Ni izango naube estalpe ta gordeleku ziurru bizitzan, eta batezere eriotzan. 5.^a Beren eginkizunak ugari onetsi edo bedeinkatuko ditut 5.^a Pekatariak errukizko iturri ta ichaso ondo-gabea arkituko dute Nere Biotzean. 7.^a Anima epelak berotuko dira. 8.^a Beruak betetasun aundira bereala iritziko dira. 9.^a Eleiz-gizonei (apaizei) biotzik gogorrenak biguntzeko erreztasuna emango diet. 10.^a Nere Biotz onen irudia agirian eta aintzat artuta dauzkaten toki guztiak, onetsiko (bedeinkatuko) ditut. 11.^a Oneraskun au zabalzen duten guztiak, beren izena nere Biotz onetan ezarrita eukiko dute, ta etzaite iñoiz kenduko. 12.^a Nere Biotz onen errukitasun gainezkakoan*

eskintzen dizut, nere maitetasun guztiz altsuak azken-damuko doaya emango diela, bederatzi illabete errezkarako lenengo ostiraletan jaunartzen duten guztiei, eztirala ilko nere aserrean, ezta eleizakoak artu gabe, ta une artan nere Biotza izango dutela babes ta gordeleku ziurra.

Oneraskun au da, San Juan Ebanjelariak Santa Gertrudis'i esan zionez, Jaungoikoak mundu zar, otza, berriztu ta bertzeko azken-aldian bialdu duana, ta loikerizko ugaldean itotzen dagon mundua gordetzeko kucha: izorigaiztokoak sartu nai ez dutenak!

Eskarizko Apostolutasuna: Jesus'en Biotzaren oneraskun au betetzeko, Eskarizko Apostolutasuna da gaur onena: 1.º *Malla*, eguneroko neke-bearrak eskeintzea, esanaz 4'garren orrialde onetako eskaria. 2'g. *Malla* bosteko Errosarioaren amarreko bat errezatzea. 3'g. *Malla*, ordaintzeko jaunartzea, egunero, astero edo guchienez illero.

Gañera: 1.º Ez atsekabetu pekatuz, gaiztoak ainbeste saminduta daukaten Jesus'en Biotz samurra. 2'g. Atsegindu berau, batezere, ostiral guzietan, geyago illaren lenengoetan, eta asko ere geyago bere egunean; 3'g. Apaindu ta ornitu bere altareak, batezere garagarrillean; 4'g. Euki echean eta biotzean bere irudiak, eman bestiei, ta zabaldu oneraskun au bero, ba-

ña zur (prudentziz). 5'g. Eskatu zabaltzen duten Eleizgizon eta, batezere, mixiolarien alde; baita beste guztien alde ere, beste ainbeste egin dezaten. 6'g. Sartu bere-Eleizbatzarretan, eta bete agintzen dan guztia, naizta pekatuaren azpian orretarako lotuta ez egon.

AGONIAN EGONDAKO JESUSEN BIOTZ-ARI, GAUR IL BEAR DUTENEN ALDE

Eun eta berrogei milla inguru gaur il eta agertu bear dute Jaungoikuaren epaitokira. Betiko zorioneko edo zorigaiztoko izatea une onetatik dago. Guk gure ezkariakin egin genentzake, zoriharreko izango ziran asko, betiko zorioneko izatea.

¡Jesus guztiz bigun eta animen maitetzalle sutsua! Zure Biotz guztiz Santuaren agoni, ta Zure Ama garbi-garbiaren atsekabeakatik, eskatzen dizut, zure odolaz garbitu ditzazula agonian dauden, eta gaur ilko diran mundu guztiko pekatariak. ¡Agoniko Jesus'en Biotza! Erruki zaite iltzen daudenatzaz.

GORAPENEZKO GORDETZA⁽¹⁾

Erregeen jauregitan beti dago bat edo geyago gordetzen (guardia egiten). Lotsagarri izango litzake Jesu-Kristo, errege gustien Erregea, bere

(1) Guardia de Honor.

jauregian, Eleizan, zaintzalle gabe kristauak eukitzea. Antzina bezela, dio gaurko egunean: «*Poztuko nauben billa nabill, eta eztet arkitu*». Ba irain garratz au Jesus'ek aurrerantzean egin eztagigun, asmatu da *Gorapenezko Zaintzea Bere EGINKIZUNA* da goratu (onratu) Jesus'en Biotz lantzaz ikusgarriro bein, eta ikusten eztala pekatuz ezin-kontala bider egunean zauritua, emanik eten-gabeko goratasun, maitetasun eta ordainkizuna. EGINBIDEA: 1.º Eleiz-batzar nagusi (archicofradia) onetan sartuta daudenen izenak, ezarri ordulari (erloju)-antzeko laurkuan (cuadro).

2.º Lagun bakoitzak, berak aukeratutako orduan, eleizara jua bearrik gabe, norberaren eginbearretan dabillela, eskiñi Jesus'en Biotzari, poztutzeko, ordu artako gogapen (pentsamentu), nai, itz, egin eta igaro bear dan gustia. Ordu orren barruan egin leikena da maitetu Jesus'en Biotza; noizean bein 9'g orrialdeko biotz-otoitzak esan; nekeren bat eskiñi ta egin *eskintzari ederra* deritzayona. Baña eztago ezer izendatuta, pekatu chikirik ere ez onelakuak utzita. Bakoitzaren ordua eldutakoan, esan leike urrengo

SAINTZEKO ORDUAREN ESKINTZA

¡Jesus bigun eta guztiz gozoa! Eskintzen dizut Zaintzako ordu au. Sarri ta gartsu nai zinduket bertan maitetu, goratu ta poztu. Artu, ba, Jesus maiteorrek, orretarako nere gogapen, nai, itz, eginkizun eta eramankizun guztiak; artu, batezere, ene biotz au, oso-osorik; garbitu ta gartu egidazu zure maitetasuneko suaz.

ESKINTZARI EDERRA

Artu egiguzu, Aita errukiorra, Eléiz-Amaren bear-izanetarako ta gizonen pekatuen orde, zure Seme maite Jesus'en Biotzeko zauritik irtendako ur eta Odol ederra. Ala izan bedi.

ORDU SANTUA

Jesus'ek berak irakatsi zion Margarita M.^a Alakokeri, zer dan, eta nola egin bear dan, esanaz:

Gaubero, ostegunetik ostiralera, igaro eragingo dizut Jetsemani'ko baratzen euki nai izan nuen eriotzarañoko min-garratza. Eta nere Aitari orduan egin nion eskari apalean laguntzeko, jeikiko zera amai-ketatik amabiak bitartean, eta kopetaz lurra jotzen dezula, belaunikatuko zera, bai pekatarien alde, Jaungoikoaren asarr-ea gozatu dedin, bai nere apostoluen orduko loak eman ziran atsekabea zerbait guchitzeko.

Ordu Santu au guztiz da egokia gau-gurtzallientzat (gabeko adoratzallentzako). Beste batzuek ere egin dezakete, nekazariak izan arren, beren gelan. Osteguneko eguzkiaren sartalditik ostiraleko irtenaldirarte ordu beteko gogarte (meditazio) (1), naiz edozein eskari Jesus'ek Jetse-

(1) Orretarako gogarteak nere «Gogartiak» deritzayon liburuan arkitu leizke.

manin egin zuanaz batuta egin ezkeru, barkapen osoa irabazten da.

SAKRAMENTUKO JESUS'I BOST IKUSTALDI GURE MAITETASUNAREN AGERKARI TA IRAIÑEN ORDAIN-BIDETZAT

Lenengo ikustaldia: Gurtu dezagun Sakramentuko Jesus, ezkutu (misterio) agurgarri au ipiñi zualako eskerrak emateko.

¡Sakramentuko Jesus'en Biotz guztiz maitegarria! Auspezturik agurtzen zaitut Sakramento aundi onetan, eta eskerrak ematen dizkitzut mirari guztien batzakuntza ta gureganako maitetasunaren agerkari au ipiñi diguzulako. Eta gelditu gabe eskerrak ematen egoteko, deitzen diet lurreko santu ta zeruko zoriondun guztiei, guziak batean betiraunde osoan Zu goratu ta maitatu zaitzaten.

Baita gurtzen zaitut ziñesgabeko ta kristau-gaiztoegandik Sakramentu onetan artzen dituzun iraiñen ordeez ere; ta batezere ainbeste SAGRARIOTAN bakarrik utziaz egiten dizuten esker char eta aintzat ez artzeagatik. Guztietan emendixek apal-apal gurtu nai zindukek; baturik nere pozkarichuok zure Biotz orren maitetzallerik zintso ta boroenak ematen dizuenakaz. Artu, arren, Jesus maitetsu orrek, nere benetako eskariak, lurrean ogi-antz-

ean gurturik, zeruan, betiraundean, onetsi ta goratu zaitzadan.

Aita gurea, Agur-Maria ta Gloria.

Bigarren ikustaldia: Gurtu dezagun Sakramentuko Jesus, ainbeste bider artu degulako eskerrak emateko.

¡Jesus bigun, nere animaren salbatzailea! Eskerrak ematen dizut eman dirazun on guztiagatik; eta, bazetere, nere barrura ain maiz etorri zeralako, Zure Biotz gozo orren iturburutik zure errukitasunak eskuak-betean zabaltzen dirazula. Zenbat argitasun, zenbat biotz-ikutze, zenbat dei biotzik-biotz naukazula, ez ote-dizkirazu egin zure lege santuaren uztarri biguñera ekartzeko! Emen naukazu zure oñetan esku ta oiñ loturik. Ez diet zure maitetasunezko deyei geyago entzun-gor egin nai. Menderatu nazazu, Jauna, ta zuk bakarrik agindu ezazu nere biotzean. Guztiak ezagutu, maitatu ta zure Biotzeko maitetasunari erantzun degiela, guztiok maitatu ta goratu zaitzagun betiko zeruan.

Aita gurea, Agur-Maria ta Gloria.

Irugarren ikustaldia: Gurtu dezagun Sakramentuko Jesus, ziñesgabeko ta ziñestaule edo erejiagandik artzen dituzan iraiñen orde.

¡Jesus'en Biotz guztiz maitegarria, ziñesgabekoen zitalkeriz Sakramentu gurgarri orretan etengabe iraindua! Nere bi-

otz ezerez onen indar guztiaz gurtzen zaitut; eta ainbeste iraiñen zerbaiteko kitugarrizat, deitzen diet zeruko guztiei ta batezere gardunei (serafiñei), beren gogo sutsuak nere epel onekin baturik, Zu poztu, goratu ta ordaindu zaitzadan nere biutzako egun guztietan. Gizon guzien biotzak goratu zaitezela, Jesus maitagarriori, ta beren gorapenak zeruko santu ta aingeru guztienakin, eta batezere zure Ama guztiz Santuaren Biotz garbiak ematen dizuenakin bat egin ditezela. Azkenik Zeu zera Jaungoikoaren omenaren (gloriaren) ordaintzale-ta, Zedorri izango zera irain ain aundien bear ainbat kitukizuna ere. Artu, arren, Betiko Aita, Zure Seme bakarraren Biotzakin batean nere eskari apalok, berakin Espiritu Santuaren batasunean bizi ta agintzen dezu-ta.

Aita gurea, Agur-Maria ta Gloria.

Laugarren ikustaldia: Gurtu dezagun Sakramentuko Jesus, ziñestedun askoren aldetik artzen dituzan lotsagabekeri ta doneauste (sakrilejioen) ordeztu.

¡Ene Jesus maiteorren Biotz Santu-Santua! Kristau askok, pekatu larrian Zu artzera urreratzen diranean, egiten dizuten irain ikaragarrien oroipenaz, biotza atsekabez igarota nator Zure aunditasunaren aurrera. Oyehek dira Judas'en saldukeri ta Judearren gaiztakeria berriztatzen di-

zuenak. Azpiratu, Jauna, zure errukiaz ainbeste biotz eskergaiztokoen zitalkeri ori. Argitu, ekarri guztiak Zu maitatzera, Zu zera bere Osagille, Artzai eta Aita maitekorrita; eta aurrerantzian ez utzi, ezta bati ere, pekatu larrian Zu artzen. Zure Biotz gozo ta Zure Ama Andra-Marienaren chit maitetsuagatik eskatzen dizut. Egidazu, Jauna, lurrean on au, ta zeruan Zu ikusi ta zurekin betiko atsegintzea.

Aita gurea, Agur-Maria ta Gloria.

Bosgarren ikustaldia: Gurtu dezagun, gogoz, lurreko eleiza guztietan, ain azturik, ain gaizki arturik eta guchik ikusirik dagon Sakramentuko Jesus.

¡Jesus'en Biotz guztiz maitegarriori! Gau ta egun gure maitetasunez aldare orretan egonarren ¡ze aztuta zauzken gizonak! Sakramenturik zauden eleiza guztietan gaur ikusi nai zinduzket, eta eskeiñi gizon guztien biotzak eta batu nere alegin ezer ezak lurreko gartsu ta zeruko guztiak egiten dizuen agurrakin. Orainche bai ikusten dedala zure neurri-gabeko iraupena, damu naiz milla bider, Jesus errukiora, nik ere Zu aztu ta iraindua. Gartsu, zintso ta iraupenez emendik aurrera Zu jarraitu ta maitatzeko indartu nazazu. Argitu nere adimena, berotu nere naimena, garbitu nere biotza; ta neri ta gizon guztiei ondasun guztien iturburu, Sakramentu Santu

oneganako benetako oneraskuna, eman egiguzu. Orrela ichodoten det zure ontasun eta errukitasun neurrigabegandik, Zu goratu ta agurtzen betiraunde osoan egon nadin. Eta Zuk, Jangoikoaren Ama ta nere-orek, zure Biotz gozoaren santutasun eta garbitasunagatik, irichi egidazu zure seme Jesus'en Biotzaganako oneraskun egizko ta iraunkorra: berakin estu-estu baturik, nere eginbear guztiak bete, biotzeko poz eta gozotazunaz ibilli, ta bere Biotz biguñ eta errukiorra bizi naizen artean atsegindu dezadan.

Aita gurea, Agur-Maria ta Gloria.

Birauren orde z gorapenak ⁽¹⁾

Onetsia (bedeinkatua) izan bedi **Jaungoikoa**.

Onetsia bere **Izen Santua**.

Onetsia **Jesukristo Jangoiko ta gizon egizkoa**.

Onetsia **Jesus'en Izen Santua**.

Onetsia **Jesukristo Altarako Sakramentu Santuan**.

Onetsia **Jangoikoaren Ama goratu, Maria chit Santua**.

Onetsia bere **Sorkunde santu ta garbia**.

Onetsia **Ama ta Dontzella Mariaren Izena**.

Onetsia **Jaungoikoa bere aingeru ta Santuetan**.

(1) Jaun Sakramentukoa bere tokian utzi aurrean esateko oso dira egokiak, eta oitura au erri askotakoa da.

KURUTZE-BIDEA

Kurutzearen eginda, esanezazu: Nere Jesu-Kristo Jauna.

Eskintzea: ¡Jesus Biotz-samur eta errukiorra, nere pekatuak barkatu, ta ni inpernutik ateratzearren, ainbeste neke ta lotsa igaro zinduzena! Zure kalbarioko oñazei jarraiturik, nai nizuke gaur erakutsi zure Nekaldi edo Pasio Santuagatik dizudan esker on eta maitetasuna. Irabazi ditza dala eginkizun eder oni Eleiz-Amak ezarri diozkan barkapen ugariak; eta Zuk geyen nai diezun, eta nik geyen zor dietan garbilekuko animentzat izan bitez.

**Munduan gozatu ta
Jesus'i jarraitu,
Izango ezin dana
Daigun ezagutu.**

**Neke ta Kurutzeak
Irri ta parreak,
Sarri izango ditu
Jesus'en semeak.**

Lenengo egonaldi edo estazioa.--Eri-otzako epai edo sententzia Jesus'i eman ziotena.



**Epaituta dago
Jesus maitea,
Kurtzean iltzeko
¡O ze nekea!**

¡O Jesus ona! Errurik ez dezula jakin arren, ¡ze ixillik entzun dezun Pilatos'en epai gogorra! Eta nik esaten diraten itz garraschu bat, ¿ezin isillik entzungo otedet? Eman egidazu, Jauna, indarra esaten diraten iraiñak, eta egiten diraten kalteak, zure maitetasun eta nere pekatuakatik ixillik eramateko, Juizioko egunean nere aldeko epaya entzun al izan dezadan.

Aita gurea, Agur-Maria ta Gloria.

Bigarren egonaldia.—Jesus'i kurutzea ipiñi zioten tokia.



**Orain artzen ditu
Kurtze batean,
Gure pekatuak
Bere gañean.**

¡Benetako Isaak esanekoa! ¿Zeu iltzeko egurra lepoan dezula, ¿nora zuaz? Soldadua zure gezurrezko erruak deadarrez esaten, Eskribo ta Fariseoak pozez, talde aundia begira: ¡ta Zu, arpegia chiztuz, odol eta izerdiz, belaunak dardar, kurutze aztuna lepo zaurituan daramazula!—Eta Zu orrela ikusirik, ¿nola ez daukete nere begiak negarrik? Nere biotz legor au samurtu ta ezkotu ezazu, ta Jaungoikoaren naimena, naizta gogorra izan, gogoz betetzeko indarra eman egidazu.

Aita gurea, ta bestiak, len bezela.

Irugarren egonaldia.—Jesus Kurutzeaz lenengo erori zan tokia.



**O ze aztuna dan
Nere obena,
Begira lurrean
Jesus laztana.**

Zeruak eta lurak indartzen dituzun Jesus, ikusten zaitut makaldu ta lurrera eroria!—Eta au jakiñik, nola egon neike pekatuaz damutu gabe? Egizu, arren, Jauna, ezaguturik nere erru ta utsegiteak, nere biotza laister jeiki dedilla, zure bide zuzenak jarraitzeko.

Aita gurea, ta...

Laugarren egonaldia.—Jesus'ek bere Ama arkitu zuan tokia.



**¿Nork esan'aldaike
Amaren nekea,
Ikusita ain lotsaz
Seme maitea?**

¡O, amarik errukarriena! Negarrez bi-
llatzen zenduan Seme laztana ¿nola arkitu
dezu? Burua arantzaz josirik, arpegi ederra
chistuz, autsez eta odolez ichusiturik, gor-
putz osoa zauriz beterik: ¿Nora begiratu
zeinkio, zati osorik ezpa-dauka? Nigana bi-
urtu itzatzu zure begi errukitsu oyek; eta
Ama-Semion atsekabeak ez ditzadala nere
pekatuaz iñoiz berritu.

Aita gurea, ta...

Bosgarren egonaldia.-Zirine'ko Simon
Jesus'i kurutzea eramateko, laguntzat
eman zioten tokia.



**¿Kurutzea igarotzen
Laguna nai dezu?
Ba emen nai dute
Lagun bat artn.**

¡O, Jesus maitea! ¡Nolako gogortasuna arkitu dezun gizonen artean! Laguna emateak, errukia zirudian; baña ara emen zukanako amurruaren asmorik okerrena! Guchi derizkiote, orain-arte egin dizutenari, beren eskuz josi nai zaitue kurutze orretan, eta edan eragin kaliz garratzaren azkenengo ondar samiñak. Egizu, ba, bi-altzen dirazun atsekabe guztiak ondo eramenez, kurutzea eramaten lagundu daizudala.

Aita gurea, ta...

Seigarren egonaldia. —Beronika'k Jesus'i arpegia garbitu zion tokia.



**Zapi garbi batean
Iru tolezetan,
Kristoren arpegia
Geratu izan zan.**

Noiz-bait errukia arkitu dezu, Jesus onorrek, eta zapiaren iru tolezetan saritzat

utzi diozu emakume sendoari Zure ar-
pegiaren irudia. Sendotu nere anima ere;
ta munduko bildurrak ostikopetuta, Zure
aginduak jarraitzeko indarra eman egida-
zu. Ezarri nere biotzean Zure irudia; bere
oroipena izan dein neretzat gauza char
guztietarako gorrotoa, ta onetarako era-
gillea.

Aita gurea, ta...

Zaspigarren egonaldia.--Bigarren al-
diz Jesus erori zan tokia.



**Bigarrenean Jesus
Emen erori da;
Gorrotatu dezadan
Nere pekatua.**

Nere pekatuen aztuntasuna noiz ezagu-
tuko ote-det ondo! ¿Jesus bigarrenean
eroririk eta kurutzearen azpian ikusita,
zeren zai egon neike nere errua ezagutu
gabe? ¡O pekatua! Nere animan nola geya-

go tokirik izan zeinke? ¡Ez! ¡Alperrik jei-
kiko dira inpernuko talde guztiak! Biziko
naiz bere ontasunez Jesus'egan, eta bera-
gan ilko naiz.

Aita gurea, ta...

Zortzigarren egonaldia.— Jesus'ek
Jerusalen'go alabei itz egin zien tokia.



**Pekatuagatik
Negar egizu;
Bada bestek ez du
Jesus nekatu.**

¡Bai, Jesus maiteori! Nigan daukat, bai,
nik zeri negar egin; ba nere pekatuak
egoera orretara ekarri zaitue. Eta Aita Be-
fikoak, nere pekatuak Zure gainean artu
dituzulako ainbeste asarre agertu badu,
¿zer izango da nizaz bere asarreko egun
ikaragarrian?—Benetako negarrez, arren,
garbitu nadilla, ta bere bildur santua nere
betiko jakinduria izan bedi.

Aita gurea, ta...

Bederatzigarren egonaldia.—Iru-
garrenean Jesus erori zan tokia.



**¡O, pekatuaren
Aztuntasuna!
Jo eragin dio
Iru aldiz lurra**

¡Zeruko Irakaslari Jesus! ¡Ze ederki irakasten dirazun Zure iraupen orrezaz, nere kurutzea azkeneraño eramaten! Nere pekatuak dira Jaungoikoaren indarriori irugarren aldiz lurrerratu zaituenak. Indartu nazazu, nik ere nere kurutzechoak azkeneraño eraman ditzadan, Zure atsegintzara jarraitzeko.

Aita gurea, ta...

Amargarren egonaldia.—Jesus'i, jantziak kendutako tokia.



**Jantzi apain eta
Billoizakatik
Arkitzen da Jesus
Lotsaz billoizik.**

Zeruak izarrez eta zelayak loraz jazten dituzun Jesus, ikusten zaitut billoizturik!

¿Zer billoizturik? Guztiori zaude erantzia ta odolez estalia. Nere pekatuetatik erantzi nadilla egizu, ta zure graziazko soñekoz jantzirik, bizi nadilla iñoiz ichusitu gabe, betiko ezta yetara deitzen dirazunean, garbi arkitzeko.

Aita gurea, ta...

Amaikagarren egonaldia.—Jesus kurrutzean josi zuten tokia.



**Oin eta eskuak
iltzez josirik
Emen dago Jesus
Miñez beterik.**

¡Zure esku ta oñak gugatik kurutzean josteko pozik eman dezuzan Jesus bigun eta maitetzalle aundia! ¡Ze neke samin eta aztunak ez daramazkizu, kuzutze orretan bizirik josita! Ez nadilla ni ere gozatu, Jauna, lurreko atsegin gezurrezkoetan, Zure bildur santuaren iltzeaz nere esku ta oñak josirik, kurutze orretan lagundu dagizudan.

Aita gurea, ta...

Amabigarren egonaldia.—Jesus kurutzean il zan tokia,



**Emen Jesus il zan
Gizonen aldez:
Berazaz zu beti
Oroitu zaitez.**

¡Zeruko Aita! Il da zure Seme bakarra,
ta guri betiko bizitza ematearren il da.
Ainbeste lotsa ta neke igaro ditu, guri on-
dasun ugariagoak uzteagatik. Asko da
gogortasunik. Bere eriotza izango alda
nere zalekeri char guztien eriotza, bera-
kin batean zeruan betiko bizitzeko.

Aita gurea, ta...

Amairugarren egonaldia. — Jesus'en
gorputz illa bere Amari magalera eman
zioten tokia.



**Amen magalean
Jesus dago illik
Eztago ikusteko
Emen biotzik.**

¡O, Ama naigabetsua. Zure Seme ain maitea, esku-oñak eta biotza zauriz idikita magalean zendukenean, ai zure samintasuna! ¡Negarrezko kakartasun orretan nork lagundu al-legizun! Zure semetzat, arren, artu nazazu; eta bizitza garbiz zure atsegiña izan nadilla, gero zeruan zure amatasunaren esker gozoak eman dagizudan.

Aita gurea, ta...

Amalaugarren egonaldia.—Jesus obi berrian sartu zuten tokia.



**Obi bat nai luke
Jesus'ek zukan,
Berakin zu beti
Bizi zaitezán.**

¡O, Amarik errukarriena! Benetan bakar gelditu zera! ¿Nun dezu zure Semea? ¿Zure biotz estutuak nun atsedengo du? Orain artean, illik bada ere, ikusten zenduan; baña arlosa batek estali du, ta zure begiak eztaukete inun atsegiñik. Zure negarren lagun egin nazazu, gero zeruan betiko atsegindu nadin.

Aita gurea, ta...

AZKENA.—Ez ditzagun jarraitu Jesus'en oñatzeak irakurtze utsez. Animarako bear ditugun ondasunetara jua gaitezán. Ezagutu dezagun, aragiaren atsegin eta munduaren arrokeri ta labainkeritan eztala arkitzen zerurako biderik; eta oek uzten ez dituenak, ezin jarraituko diotela Jesus'i, ez berakin zeruan tokirik eduki.

JESUS'EN BOST ZAURIEN GURTUKETA

Eskerreko oñeko zauriari: Biotz guztiz gurtutzen zaitut, nere Jesus'en zauri eder ori; eta beragatik nere ibillera gaiztoz egindako pekatu guztien barkapena eskatzen dizut.

Aita gurea ta...

Eskuiko oñeko zauriari: Biotz guztiz gurtutzen zaitut, nere Jesus'en zauri eder ori; eta beragatik nere itz ta egin gaiztoz egindako pekatu guztien barkapena eskatzen dizut.

Eskerreko eskuko zauriari: Biotz guztiz gurtutzen zaitut, nere Jesus'en zauri eder ori; eta beragatik nere begi ta beste zentzunez egindako pekatu guztien barkapena eskatzen dizut.

Eskuiko eskuko zauriari: Biotz guztiz gurtutzen zaitut, nere Jesus'en zauri eder ori; eta beragatik nere oroimen, adimen eta naimenaz egindako pekatu guztien barkapena eskatzen dizut.

Sayetseko zauriari: Biotz-biotzetik gurtutzen zaitut, nere Jesus'en zauri guztiz ederrori; eta beragatik eskatzen dizut, Jauna, Zure Biotza lantza gogorrak, eta Zure Ama guztiz biguñarena ezpata zorrotzak josi zuan bezela, baita nere anima ere Zure maitetasunaz josi zakidazula.

Ama Birjiñaganako Oneraskuna

San Franziskor'en Anaidi'ko gertakuntzetan irakurtzen da, Anai Leon'ek malladi (eskallera) bi ikusi zituala: gorria bata, ta bere goyan Jesukristo; bestea Zuria, Birjina Maria gañean zeukala. Gorrian-gora zijoazenak, laister lur-jotzen zuten; baña zuritik igotzen ziranak, etziran gora irichi arte geratzen, Birgiña Mariak eskua ematen zietelako. ¡Amaika Kristaubak beren salbazioa irichi leikie errezago ta ziurrago, Ama Birjiñaren bitartez billatuko baluteke! Geyago oraindikan: Eleizako Guraso Santuak diote, naita-ezkoa dala salbatzeko Maria Birjiñaren zaletasuna. Oneraskun au nola agertu bear degun irakurri 72'g. eta 73'g. orrialdean.

AMA BIRJIÑAGANAKO JOPUTASUNA: (esclavitud): Beste oneraskun edo debozioera bat dago barru-barrukoa, geroago ta zabalduago mundu osoan dijoana, ta onik aundienak animara dakarzkiana: Ama Birgiñaganako joputasuna.

Gauza bi dauzka: 1.^a Gere gorputz eta anima, munduko ondasun eta zerurako aberastasunak, egin eta igaro bear deguna, geran eta daukagun guztia, oso-osorik, Birgiña Mariari ematea; jopua bere jabearen

mendean bezela, Maria Birjiñaren mendean geratzen gerala, mendetasun onen ordeztartekorik ere, morroyak bezela, eskatugabe. Jopu onek, pekatuaren azpian orretarako beartu ez arren, ez dauka bererik ezercho-ere, egiñak, eskariak, irabaziak, guztiak ipintzen ditu Ama-Mariaren eskuetan; eta beste bati, ala bizia nola illa izan, zerbait eman bear badio, Ama-Birjinari, apal-apal eskatzen dio. Baña ezagun da eztala orregatik ezer galtzen, Ama-Birjinari emandakoa guregana, geituaz, datorrelako, ta guztia dagolako bere eskuetan, guretan baño toki obean.

2^og. Eskeintza au berritu, gauza guztiak egiten dirala: a) *Ama Birjiñaren bitartez*. Guk egin gentzaken guztia, gure biotza loituta egonik, Jaungoikoaren aurrean guchi da; batu ditzagun gure irabazi ezerezak Andra-Mariaren ugariakin, eta orduan agertuko dira garbituta, geituta Jaungoikoaren aurrean, eta Ama Mariaren eskuetatik obeto artuko ditu. Gauza guztiak gañera egin bear dira: b) *Ama Birjiñakin batean*: ukatu bakoitzak bere iritzi ta egikera guztiak, begiratu nola egingo zuan Maria-Birjiñak, ze ederki, nolako Jaungoikoa goratzeko gogoaz; eta ola, aldegula, egin guk ere; ez guk, baña Birjiña-Mariak geugan, gauza bakoitza egiten duala, geratzen gerala bere magalean,

berak zuzendu gaitzan gu ta gure gauza guztiak.

Ezin adierazi leike itz guchitan gauza ain aundi ta sakona: zorionekoa Ama-Mariak irakasten diona, artu ta jarraitzen badio (ba asko dira ondo artzen dubenak, guchi jarraitzen dubenak); ikusiko du nolako zaltetasuna artzen dion Ama-Birjiñari, ze paketsu, ze garbi, ze santu egiten dan.

Eskeintza au egiteko, ondo litzake astebetean, edo beintzat egun batean, ze zatar eta loyak geran ikusten ibiltzea, eskaturik Jaungoikoari, Ebanjelioko itsuak bezela: Jauna, ikusi dezadala. Bigarren astean edo egunean eskeiñi egite guztiak Ama Birjiña ezagutzeko, ta esan orretarako errosarioa. Irugarrenean eskatu Maria Birgiñari Jesukristo ezagutzea, ta esan «Salbea».

Onela gertuta (prestatuta), egin Ama-Mariaren edozein egunean, jaunartu ezkerro, urrengo eskeinza; ta ondo izango da norberaren santuaren egunean, batayoko eskeintzariak berritutzeko ere:

JESUKRISTORI

AMA MARIAREN BITARTEZ

ESKEINTZA

Ene Jesus, Jaungoikoaron jakinduri gizondua! Nik, pekatari zintso-oz onek zure

eskuetan berritzen ditut nere batayo santuko eskintzariak. Uko egiten diet betiko Satanas eta bere asmo ta eginkizun guztiei; eta Jesukristo jakinduri gizonduari oso osorik ematen nazayo, nere kurutzea bere atzean nere bizitza guztian eramateko, ta orain-arte baño zintsoago izan nadin. Zeruko guztien aurrean artzen zaitut gaur, Maria, nere Ama ta Jabetzat. Nere gorputz eta anima, barruko ta kanpoko ondasunak, lengo, oraingo ta geroko nere egite on guztiak, dana eskeintzen dizut; ematen dizudala eskubide oso ta betea nigan ta nere gauza guztietan, bat utzi gabe, Zuk nai dezuna, Jaungoikoaren goratasunerako, orain eta beti, egiteko.

IRU AGUR-MARIAK

Santu askok, beren artean San Antonio Padua' tarrak, San Estanislao, San Leonardo Puerto-Mauricio'tarrak, eta, batezere, San Alfonso Maria Ligorio'k guztizkotzat euki ta irakatsi zuten egunero Ama-Birjiñari iru Agur-Maria esatea, aitorturik Aitak eman zion altsutasuna, Semeagandik artu zuan jakinduria, ta Espiritu Santuak bere barruan ain ugari zabaldu zuan maitetasun eta errukitasuna.

Baña gaurko egunean ziñestu ere eziñalako ja-guntasunak iristen dago mundu zabal guztian oneraskun errez, gozo ta ongille au. Paperak dande, beste zeregin gabe esker (mesede) aundi ta ugari onen berri emateko. Irakurri, ta arrituko zera; ta, geyago oraindik, zedorrek zugaran ikusi daikezunean. *Salbazioa*, baterez guchiago, eske-

intzen du eguneroko iru Agur-Maria onen ordez San Alfonso Maria Ligorio'k. *Garbitasuna* iristeko batezere, baña beste edozein animako naiz gorputzeko bearretarako ere, onak baño obeak dira. Ezta au esatea bein edo batzuetan iru Agur-Mariak esanda garbi geratuko dala; baña irichiko du, aspertu gabe esaten baditu. Aita Santu Pio X.^{ak} 300 eguneko barkapenak ezarri diozka iru Agur-Maria oei gañera esanda: ¡Andra-Maria! Zure Sorkunde garbiagatik, garbitu nere gorputza ta nere anima.

Askok egiten du bederatziurrena ere, bederatzi egunetan iru Agur-Maria esanaz.

KARMEN'GO ESKAPULARIOA

Sari guztiz aundi bi dauzka:

1.^a *Inpernuto sugarretara ez juatea*. Orrela esan zion Ama-Birjiñak San Simon Stock, Karmeliten nagusiari. Ez du onek esan nai eskapularioa eraman ezkerre, naiz ona, naiz okerra izan, Salbatuko dala: esan nai da, eskapulario au eramaten duanari, salbatzeko berarizko laguntasunak irichiko dizkiola Ama-Birjiñak. On aundi au iristeko bearrekoa da: 1.^o Karmengo anaidi (Kofradian) sartzea; 2.^o ipintzeko eskubidea daukanak ipiñita eramatea; 3.^o eriotzan eukitzea (begiratu, ba, iltzeko dagonari ote-daukan).

2.^a *Garbitokian* (purgatorian) ere Ama-Birjiñak *poztu ta ainbat lasterren*, eta batezere ilda lenengo larunbatean (zapatuan) ateratzea. Bigarren sari au norberaganatzeko, eskapularioa erabilliaz gañera, garbitasuna gorde bear da, norberaren bizibidean (estaduan); eta Ama-Birjiñaren Arrendi Chikia (Oficio Parvo) egunero esan. Baña eskubidea dago au beste otoitzera edo errezoera batzuetan aldatzeko; esan leizke sei Aita-gure, sei Agur Maria ta sei-Gloria, edo beste edozein izentatutako erregu.

Eskapulario au bestiei josita eramán leike, Bein zuzen ipiñi ezkeru urrengo berria bedeinkatu bearrik eztago. Guztiz asko dira irabazten diran barkapenak. Oraintsu Pio X. ordaiñezko medallak, Jesusen Biotza batetik eta Mariaren irudia bestetik dutenak, eramateko eskubideak eman ditu; baña obe da, aldala, eskapularioa eramatea.

ESKAPULARIO URDIÑA

Sorkunde Garbiko Birjina-Mariarena da. Zinestu ezin-añakoa da baña Aita-Santuak egi-tzat erabakita daukana berakin, sei Aita-gure, sei Agur-Maria ta Gloria, Ama-Birjiñaren Sorkunde Garbia goratzeko esanda, zenbatu ezin ala barkapen (induljentzi) zatituaz, gañera bostegun eta ogeitamabost (535) barkapen oso irabazten dirala esaten diran bakoitzean.

MARIA BIRJIÑAREN ELEIZ-BATZARRAK (KONGREGAZIOAK)

Jesus'en Lagundiko anai Sebastian Cabarra-si'k bere ikasleak munduko arriskuetatik alden-du nairik. Ama-Birjiñaren inguruan batu zituan; eta bertatik asi ziran emakai (frutu) ederrenak Ama maitekor onegandik eskuratzen. Zabal-du zan laister Eleiz-batzar au mundu guzt-ian, sarturik ordutik onera izan diran jakintsu, errege, ta Aita-Santu, geyenak eta aundienak eta latezere gaur aldaretan dauzkagun Santuak. Oetatik aundienetakoak, San Alfonso Maria Ligorio'k dio: «On guztiak emendik etorri zait».

Ezta, orduan, eleiz-batzar au edozeiñena; gar-bia izan nai, ta orretarako Ama-Birjiñaren ma-galpera irichi nai dubenena da. Orregaitik ohea

da guchi ta beroak euki, asko ta munduzaleak baño.

Neskacharena bakarrik ere ezta; mutillena geyago da, onak izaten gaitzago dutelako. Orrela, lenengo mutillentzat asmatu zan; eta gaurko egunean ere, gogoz artu ta zintso jarraitzen badute, berak dira onik geyen ateratzen dutenak. San Luis, naiz San Estanislao, bigarren zaindaria (patronoak) bakarrik dira; lenengoa Ama-Birjiña da beti, ta orregatik Birjiña-Mariarenak deitzen zayote.

Agindu oi zaye (baña ez pekatupean), goizean jeikiorduan *iru Agur-Maria esatea*, eskatuaz gaitientzat ain bearrekoak diran garbitasuna, esanekotasun (obediencia) ta apaltasuna (humildadea); *sarri aitortu ta jaunartu*; (oitura da illero guchienez egitea); ta *lagun gaizto ta dantza-nastuetatik* (balseo) *aldentzea*. (Ikusi onen kalteak 48 ta 49.^{en} orrialdean). Illeroko ikustaldj (bisita) ere agintzen zaye neskachei beren arautegian (reglamentuan), baña mutillentzat ere guztiz ona izango litzake.

IKUSTALDIA (BISITA) IZENDATUTAKO EGUNEAN EGITEKO

Garbitasuna iristeko: Ama Birjiña guztiz garbi ta orban gabea! Nere garbitasuna zure amazko magalpean gorde egidazu. Ni ta batzar onetako lagun guztiak etsayen saretatik zaindu gaitzazu; ez gaitetzela galdu ez munduak bere uskeriakin, ez deabruak bere malmuzkeriakin (tranpa), ez gure aragi makalak bere naikeri ta labainkeriakin. Ni ta nere lagun guztien alde eskatu beti zure Seme Jesus'i; ba agin-

tzen dizugu emendik aurrera zure alaba (edo seme) izango gerala. Apaltasuna ta garbitasuna beragandik irichi egiguzu, ta gure biotza bera ta zuganako maitetasunean beti erretzen egon bedi.

Aita gurea, Agur-Maria ta Gloria.

Bizibidea (estadua) zuzen artzeko: Jaungoikoaren eta zure naimena bete dezadan, argi bizi-bizia ixuri egidazu. Ipiñi, arren, gogapen (pensamentu) onak zein bizibide artu bear dedan igarri, ta ezagutakoa artzeko. Aukeratze au zorionerako lenengo oinkada (pausoa) izan bedi. Zure graziak lagunduta, Jaungoikoa nere egun onetan obeto otseindu (serbitu) ta maitatzeko bizibidea artu nai det, zure benetako alaba (edo seme) egin eta betiko zorionerako zuzenduko naubena.

Aita gurea, Agur-Maria ta Gloria.

Batzarreko lagunak geitutzeko: Geitu zure Sorkunde Garbia goratzeko asmatutako Eleiz-batzar au: Zugandik irtzen dan argi ta zure garbitasunaren zuritasuna beregandu dezatela. Eleiz-batzar au ekan-donerako (birtuterako) iturburua izan bedi. Geitu ditezela, garbitasunezko bizibidea ze zure gogozkoa dan ezagutu, sendoki artu ta beti gordeko dutenak, beti zure inguruan, zurekin batean euren berarizko edesti (kantua) abestu dezaten; eta ezkonzarako deituta dautenak, gertu (presta)

ditezela, senar-emazte onak izanda, Jaungoikoaren gogozkoak eta gizadirako onak irtetzeko.

Aita gurea, Agur-Maria ta Gloria.

Pekatarien biurpenerako: Lagundu, Maria, deabruaren sareetan katigatuta, okerreko bidetik dijoazen aizpai (edo anayei). Argi-errañu bat; arren, beren biotz barrura, galduta dijoazela ezagutu deza ten. Indartu, ezagututako okerreko bidea utzi, Jaungoikoagana biurtu, ta beren galdideak (eskandaloak) kendurik, zure seme bakar Jesus'ek bere odolaz irabazitako euren animak betiko zeruratu ditezen.

Aita gurea, Agur-Maria ta Gloria.

Jaungoikoaren asarrea beratzeko: ¡Zenbat bider asarratu eragin ote-dio Jaungoikoari loikerizko pekatuak! Beragatik erre zituan uri aundiak, eta urjol ikaragarriak mundu osoa uretan ondatuta utzi zuan. Loikeria da mundua galduta daukana. Batu, ba, Birjiña Maria guztiz garbiorrek, zure erreguak gureakin, Jaunak ez-entzun egin eztagigun: entzun ditzala egiten diozkagun eskariak. Itzali dezala su maradikatu au; ez, antziña bezela, zeruko suaz, eta bai guztiok biurtuko gaituan bere maitetasunezkoaz. Urjol ondatzalleaz gabe, bere graziazko ur osasuntsuaz ito dezala griña char au, berakin piztu ta indarturik, griña charrak lotu, ta zure sorkunde garbian ar-

gi egiten duten onbideak gureganatu ditzagun.

Aita gurea, Agur-Maria ta Gloria.

OTOITZA

¡Andra guztiz garbi ta errukiorra! Zuk ikusten gaituzu ainbeste arriskuen erdian gaudela. Ondo dakizu, gure argaltasunagatik ezin gerala ayetatik gorde. Lagundu, ba, arren, zure indarraz; eman grazia, bizitza onetako bagetan (olatuetan) ondatu gabe, zeruko kai ederrera eldu gaitezen.

Aita gurea, Agur-Maria ta Gloria.

Esan 104'g. orrialdean dauden arrentzak (letaniak).

Antiph: Ze ederra zeran, nere maiteori, nere usoori, nere orban gabekori; zure soñekoen usai gozoa lora guztiena baño obea da.

Otoitza: Andra Mariaren Sorkunde garbiaz zure semeari bizitoki egokia ipiñi ziozun Jaungoikoa. Seme orren aur-ikusitako eriotzaz, orban guztietatik bera gorde zenduan bezela; arren, gu ere bere bi-tartekotasunaz zugana garbi irichi gaitezela. Zurekin batean bizi ta agintzen duan Jesu-Kristo gure Jaun beragatik.

Emen eskatuko da, bearrez (premian) dauden eleiz-batzar onetakoan alde, illen alde, erreinua-ren alde ta Aita santuaren beste asmo guztietarako; ta gero esango da urrengo

AGURRA

¡Dontzella ta Jaungoikoaren Ama, Maria! Zure alaba (edo semetzat) eskeintzen nayatzu; ta zure garbitasuna goratzeko, ematen dizkitzut nere begiak, nere belarriak, nere mingaña, nere eskuak, itz batean, nere anima ta gorputz guztia; irichi, arren, beste bein pekaturik ez egiteko laguntasuna.

¡Ene Ama! Ona emen zure alaba (edo semea). Zugan daukat, amarik biguñena, nere ichodopen osoa; ez naiz izango lotsatua.

Agur, Maria, guztiz garbia
Orban gaberik sortua.

Onetsia ta goratua izan bedi Andra Mari beti dontzellaren Sorkunde Garbi ta orban bagea.

Zu zera nere Jabe
Eta Ama laztana:
Artu nere biotza,
Begi, mingain dana.

Ondo etorriko litzake Andra-Mariari 104'g orrian dagon eskeintza egitea.

AGURTZA (ERROSARIOA) ESATEKO

BIDEA

Kurutze Santuaren...

Nere Jesukristo Jauna...

v. *Domine, labia mea aperies.* Esan nai du:

(Jauna, nere ezpañak idikiko dizkidatzu).

R. *Et os meum annuntiabit laudem tuam.*

(Eta nere aubak Zure gorapena esango du).

v. *Deus, in adiutorium meum intende.*

(Jauna, lagun zakidazu).

R. *Domine, ad adjuvandum me festina.*

Neri laguntzera, azkar zatozkit).

v. *Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sancto.*

(Gorapena Aitiari, ta Semeari ta Espiritu Santuari).

R. *Sicut erat in principio, et nunc, et semper, et in saecula saeculorum. Amen. Alleluya.*

(Lenengotan zan bezela, orain ta beti ta betiraunde guztian Alasen. Poza).

EDO. *Laus tibi, Domine, Rex aeternae gloriae.*

(Gorapena Zuri, betiko atsegintzako Errege Jauna).

Batek: Maria grazia ta errukiaren Ama.

Besteak: Etsayetatik gordeaz, eramangu zugana.

POZEZKO ZIÑESKAYAK

(Astelen eta ostegunerako)

- 1.^a Jaungoikoaren Semea gizondu zane-koa.
Aita gure bat, amar Agur-Maria ta Gloria.
- 2.^a Ama Birgiñak Isabel aideari egin zion ikustaldia.
- 3.^a Jaungoikoaren Semea jayo zanekoa.
- 4.^a Ama Birgiñaren eliz-sartzea.
- 5.^a Jesus galdua arkitu zanekoa.

ATSEKABEZKO ZIÑESKAYAK

(Astearte ta ostiraletako)

- 1.^a Jesus'ek Jetsemani'ko baratzan egin zuan otoitza.
- 2.^a Jaungoikoaren Semea astindu zutenekoa.
- 3.^a Jaungoikoaren Semea arantzaz koroi-tu zutenekoa.
- 4.^a Jesus'ek Kalbariora Kurutze aztuna eramau zutenekoa.
- 5.^a Jaungoikoaren Semea Kurutzean josi ta il zutenakoa.

ATSEGIÑEZKO ZIÑESKAYAK

(Asteazken, larunbat eta igandetako)

- 1.^a Jaungoikoaren Semea piztu zanekoa.
- 2.^a Jaungoikoaren Semea zeruratu zanekoa.
- 3.^a Espiritu Santua etorri zanekoa.
- 4.^a Ama Birgiña zeruratu zanekoa.
- 5.^a Ama Birgiña zeruan koroitu zuenekoa.

AMA BIRJIÑA LORETO'KOREN

ARRENTZAK (LETANIAK)

Kyrie, eleison
Christe, eleison
Kyrie, eleison
Christe, audi nos
Christe, exaudi nos
Pater de Coelis Deus
Fili Redemptor mundi Deus
Spiritus Sancte Deus
Sancta Trinitas unus Deus
Sancta Maria,
Sancta Dei Genitrix,
Sancta Virgo Virginum,
Mater Christi,
Mater divinae gratiae,
Mater purissima,
Mater castissima,
Mater inviolata,
Mater intemerata,
Mater immaculata,
Mater amabilis,
Mater admirabilis,

Ora pro nobis

Mater Boni Consilii
Mater Creatoris.
Mater Salvatoris,
Virgo prudentissima
Virgo veneranda,
Virgo praedicanda,
Virgo potens,
Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiae,
Sedes sapientiae,
Causa nostrae laetitiae,
Vas spirituale,
Vas honorabile,
Vas insigne devotionis,
Rosa Mystica,
Turris Davidica,
Turris eburnea,
Domus aurea
Foederis arca,
Janua coeli,
Stella matutina,
Salus infirmorum,
Refugium peccatorum,
Consolatrix afflictorum,
Auxilium Christianorum,
Regina Angelorum,
Regina Patriarcharum,
Regina Prophetarum,
Regina Apostolorum,
Regina Martyrum,
Regina Confessorum,
Regina Virginum,
Regina Sanctorum omnium
Regina sine labe originali concepta
Regina Sacratissimi Rosarii

Agnus Dei qui tollis peccata mundi,
Parce nobis Domine
Agnus Dei qui tollis peccata mundi,
Exaudi nos Domine

Ora pro nobis

Agnus Dei qui tollis peccata mundi,
Miserere nobis.

V. Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix.

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi:

OREMUS

Zure Seme Bakarraren bizitza, eriotza ta piztutzeaz betiko salbazioa ekarri diguzun Jaungoikoa. Eskatzen dizugu, ezkutu (misterio) oek Andra-Mariaren Errosario Santuaren bidez gogoratuaz, dauketena antzeztu, ta agintzen dutena irichi dezagula.

Jesus eta Mariaren Biotz Santuei. *Credo ta Salbe.*

SAN BERNARDO'K AMA BIRGIÑARI

EGITEN ZION OTOITZA

Oroitu zaitez, Birgiña Maria guztiz errukiorrori, eztala iñoiz entzun Zuk utzi dezula, zugana irichi, ta Zure laguntasuna eskatu duanik. Ichodopen onekin sendoturik, Zugana nator laisterka. Zure aurrean nago negarrez. Ez, Jaungoiko-Semearen Ama, nere itzei ezentzunik egin; eta bai arrera onakin aitu egidazu, ta eskatzen dizudana eman egidazu.

300 eguneko barkapenak, bakoitzean; osoa, illean.

Ama Birjiñaganako oneraskunerik onena, bere ekandonak (birtuteak) jarraitzea da. Orretarako berriz guztiz asko laguntzen du, gure Aita San Iñazio'k irakasten digun bezela, ikusi, esatebateko, Birjiña Mariak nola begiratzen zuan; eta gero, gureganatuta, egin; ¿eta nik nola darabiltz nere begiak? Eta orrela beste zentzu ta almen, eta eginkizun guzietan: begiratu nola gauza bakoitza egin oi zuan, eta bere antzera egin.

SAN JOSE'GANAKO ONERASKUNA

Jesus eta Ama Birjiñarenakin batian, San Jose'rena da beste oneraskun (debozio) guztien gañekoa.

Onetara zaletutzeko, ona emen Santa Teresa'ren itz eder oek. «Eztaukat gogoan San Jose'k, eskatu diotadan gauzarik, irichi gabe utzi dirala. Arritutzekoa da Santu onen bitartez Jaungoikoak egin dizkidan mesede aundiak; zenbat arrisku, bai gorputzeko bai animakoetatik gorde nauen. Beste santuei bear baten edo bestean laguntzeko doaya Jaungoikoak eman dietela, dirudi; santu dontsu onek berriz, ezagututa daukak guztietan laguntzen duala; eta Jaungoikoak adierazo nai digula, lurrean bere mendean egon zan bezela, zeruan eskatzen diona egiten duala. Ez det ezagutu santu au benetan maite duanik, olbidean

geyago aurreratu gabe, bere zaliei (dobotuei) chit asko laguntzen dielako. Bakarrik eskatzen det, sayatu dedilla, Jaungoikarren, ziñesten ez dubenak, eta ikusiko du ze ongillea dan Aitalen doatsu oni erre-gutu, ta beraganako oneraskuna eukitzea.

SAN JOSE'REN ZAZPI IGANDEAK BERE
ZAZPI POZ-ATSEKABEAK OROITZEN
DIRALA

Irabazten dira urteko edozein zazpi igandetan eten-gabe eginda: 1.^o-300 eguneko barkapenak lenengo sei igandetan; 2.^o-Barkapen osoa zazpi-garrenean, baña konfesatu ta komulgatuta; 3.^o Barkapen osoa igande bakoitzean ere, konfesatu ta komulgatu ondoren erre-gu apur bat, esaterako, iru Aitagure ta Agur-Maria ta Gloria, baita guchiago ere, Aita Santuaren asmoetako esanda.

Irakurtzen eztakianak, bera dagon tokian erri-entzat erre-gu oek egiten ezbadira, beren orde-zazpi Aita-gure, Agur-Mari ta Gloria esanda, aita-tatu diran igandetako barkapenak irabazi leizke, bear diran beste gauzak, esan dan bezela, egin ezkeru.

Barkapen guzti-oek garbilekuko animentzat izan litezke.

LENENGO POZ-ATSEKABEA.—¡Mariaren Senar garbi, San Jose doatsua! Ze aundia izango ote-zan zure biotzaren atsekabe ta estuasuna, zure Emazte orban-gabea utziko zenduan, ala ez, eztabaidan zebiltzanean! ¡Baña ze izango zan zure poza

ere, Jaungoikoa gizonduzko ezkutu aundia aingeruak agertu zizunean.

Poz-atsekabe onegatik eskatzen dizugu, gure biotza alaitu dagizula orain bizitza onaren pozaz; eta gure azkenengo atsekabietan, zurearen antzeko eriotzaz, Jesus eta Maria lagun ditugula.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

BIGARRENA.—Aitalenik zoritsuena, beste guzien artean Jaungoiko gizonduaren Aitatzat aututako San Jose doatsua! Jesus-Aurrá alaňako ezerezean jayotzen ikusita artu zenduan atsekabea, zeruko poz laister biurtu zaitzun, aingeru-soňuak entzun, eta gau miraritsu artako argitasuna ikusirik.

Poz-atsekabe onegatik eskatzen dizugu, bizitza onetako bidea igarotakoan, aingeru-soňuak entzun eta zeruko argitasuna ikustera juan gaitezela.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

IRUGARRENA.—¡Jaungoikoaren legien betetzalle zintso, San Jose doatsua! Gure Erosle Jesus-Aurra Bill-ebaikunde edo zirkunzisionan ixuri zuan odolak biotza ausi zizun. Baña Jesus'en izenak pozez beteta indartu ziñuzun.

Poz-atsekabe onegatik eskatzen dizugu, kendurik bizitzan gure gaiztakeri guztia, pozik il gaitezela, Jesus'en izen santua aota biotzean degula.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

LAUGARRENA.—¡Gure Erospen santuko ezkutuetan artu-emanan izan zenduan, San Jose zintso ta doatsua! Simeon Igarleak Jesus eta Mariak igaro bearko zituztenak agertu zizkizunean, eriotzaraño biozkatu ziñan; baña neke oyek ainbeste animen onerako izango zirala esanaz, posez beteta utzi zinduzen.

Poz-atsekabe onegatik eskatzen dizugu, Jesus'en irabazi ta Mariaren bitartekotasunez, munduaren azkenean zorioneko bizitzarako jasoko diranen artean arkitu gaitezela.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

BOSKARRENA.—¡O, Jaungoiko gizonduaren begirale arduratsu ta barru-barruko, San Jose doatsua! ¡Zer etzenduan igaro bear izan Jaungoikoaren Semea janaritu ta zaintzeko, batezere Egipto'ra iges zenduenean! Baña zenbat atseginduko ziñan, Jaungoikoa bera zurekin eukiaz, eta Egipto'ko jainko gezurrezkoak lurrera erasten ikusita!

Poz-atsekabe onegatik eskatzen dizugu, inpernuko etsaya urrin eukirik; ta batezere aldendurik arrisku ta galbidietatik, erori dedilla gure biotzetatik munduko maitetasunen jainko gezurrezko guztia, Jesus eta Maria'ren jarraitzalle izanda, eurentzat bakarrik bizi gaitezen, gozatsu iltzeko.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

SEIGARRENA.—¡O, lurreko aingeru, San Jose doatsua, zeruko Erregea zure agin-
dupean mirariturik ikusten zenduana!
Egipto'tik echeratzean, Arkela'on bil-
durrez zure poza minkaiztu bayatzun, ain-
geruak ziurpeturik, pozik Nazaret'en bizi
izan zinan.

Poz-atsekabe onegatik eskatzen dizugu,
bildur char guztietatik gure biotza gor-
deta, bizi gaitezela barruko pake goza-
tsuan, Jesus eta Maria'kin ibilli ezkerro,
eurak lagundu dagiguen eriotz-orduan.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

ZASPIGARRENA.—¡Santutasun osoaren
ispillu, San Jose doatsua! Errubarik gal-
dutako Jesus-Umea, zure atsekabe aundia-
gorako, iru egunean billatu bear izan zen-
duan, alik-eta Eleizan, irakaslarien erdian
pozik aundienaz arkitu arte.

Poz-atsekabe onekatik biotz-biotzetik
eskatzen dizugu, ez dezagula inoiz galdu
Jesus ona pekatu aztunaz. Eta inoiz gal-
duko bagenduke, samintasunez billatu de-
zagula, errukitsu arkitu dezagun eriotz
orduan, berakin zeruan egoteko, bere
errukitasunak zurekin batean kantatzen.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

ANTIPH.—Ipse Jesus erat incipiens qua-
si annorum triginta, ut putabatur filius
Joseph.

v. Ora pro nobis, Sancte Joseph.

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS

Deus qui ineffabili providentia Beatum Joseph Sanctissimæ Genitricis tuæ Sponsum eligere dignatus es: præsta, quæsumus, ut quem Protectorem veneramus in terris, intercessorem habere mereamur in cœlis. Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. Amen.

SAN JOSE'RI OTOITZA

Zugana gatoz gure estutasunean, Jose zoriontsua; ta zure Emazte guztiz Santaren laguntasunaren ondoren, zure bitartekotasuna ere ichodopen osoaz eskatzen dizugu.

Jaungoikoaren Ama, Maria Dontzella orban gabekuakin bat egin zinduzen ongina, ta Jesus-Aurra laztantzen zenduan maitetasun biguñagatik, apal eskatzen dizugu, errukiz begiratu dagiozula Jesukristo'k bere Odolaz irabazitako sendi edo familiari; ta zure al-izate ta laguntasunaz bete ditzagula gure egin-bearrak.

¡Gordezazu Jaungoikozko zendiaren zaintzalle guztiz arduratsuorrek, Jesukristo'ren enda edo arraza autua. Aldendu gugandik utsegite ta gaiztakerizko orban edo mancha guztia. Lagundu errukiz zeru-

tik, gure azkatzalle chit indartsu orrek, inpernuko deabruakin darabilgun burruka onetan; eta beste aldi batean Jesus-Aurra eriotzako urreko arriskutik atera zenduan bezela, baita orain ere zainduzazu Jaungoikoaren Eleiza Santua bere etsayen ezetsi ta zorichar guztietatik. Gorde beti gutako bakoitza zure andurapean; zure laguntasunaz indarturik, zure antzera santutasunean bizi, eriotza ona egin, eta zeruko betiko zoriontasuna irichi dezagun. Alaxen.

AITA S. INAZIO'GANAKO ONERASKUNA

Iñor bada, gipuzkoarrak izan bear luteke, Aita San Iñazio ganako zaletasun bero ta benetakoa diotenak; ez bakarrik gure artekoa dalako, ta orregatik berdiñean besteak baño maiteago gaitualako; baita berak berez, eta bere semien bidez, egin izan eta egiten dizkigun mesedeagatik ere.

Ona izango litzake, ba, bederatziurrena urtero egitea; baña bera gogozkoagoa da urtero, edo beintzat bizitzan bein, berak asmatu ta ain maitezituan Ejerzizioak egin eta dakarzkiten on aundiak geregantzia.

SAN INAZIO'RI OTOITZA

Jabier'tar San Frantzisko'k, bizi zala, egin ziona. Nere animako aita, guztiz agurgarria. Nik belaunak lurrean josirik, aurrean ikusiko bazinduz bezela, apal eskatzen dizut, nere aldez Jaungoikoari geratu bage

otoitz dagiozula, bere naimen guztiz Santua argi ezagutu ta osoro betetzeko laguntasuna eman dagidan.

v. Aita San Inazio, gure aldez Jaungoikoari eskatu.

R. Zure seme on eta maitariak izan gaitezen.

OTOITZA

¡Zure izen santuaren gorapena zabalteko, San Inazio'ren bidez zure Eleiza gudaritari indar berria eman ziñion Jaungoikoa! Egiguzu, bere antzera ta bere laguntasunaz lurrian guda eginda, berakin zeruan sarituak izan gaitezela; Zurekin Espiritu Santuaren batasunean betiraunde guztian bizi ta agintzen duan Jesukristo gure Jaun eta zure Semearen irabaziatatik.

JABIER'TAR SAN FRANZISKO'GANAKO

ONERASKUNA

Ona emen santu euskaldun bat, Jaungoikoakin euskera izketan ij zana. Arritzekoa da ziñes ga-beak berak santu aundi oni dioten oneraskuna. Lotsagarria izango litzakigu ayek baño guchiago guk egitea. Bereganako otoitzera entzutetsuena *graziako bederatziurrena* deritzana da, bere bidez anima naiz gorputzerako edozein grazi eskuratzen dalako.

Epailaren (Marchoaren) amabigarren egunerako (Santua San Inazio'kin altaratu zanekoa)

ipiñi zan; baña egin leike bere egunerako ere Lotazillaren (Abenduaren) iruan), naiz beste edozein egunerako ere. Egin leike, ondorengo otoitz oek bederatzi egunetan edo ostiraletan esanda:

JABIER'TAR S. FRANZISKO'RI OTOITZA

Santu guztiz maitagarri ta maitalaria. Zurekin batean itzalez gurtutzen (adoratzen det Jaungoiko aundia. Pozturik eman zizkizun grazi ain berarizkuagatik, eta orain zeruan dauzkatzun atsegiñakatik, eskerrik aundieñak egiten dizkiot, eta eskatzen diot, bizitza ta eriotza ona eukitzeko laguntasuna zure bitartez eman dagidala. Baita eskatzen dizut irichi zakidazula bederatziurren onetan nai dedana (*izentatu zerdan.*) Baña au Jaungoikoaren goratasun eta nere arimaren onerako ondo ezbadator, biontzat ondoena etorriko dana.

Esan iru bider Aita-gurea, ta Agur-Maria ta amar bider gloria.

Jabier'tar San Franzisko, Indietako Apostolu anima-zalea, itzetan nola egiñetan ain indar aundikoa, zure laguntasun eske zatozkizunei agertzen diezun errukitasunagatik, eta ziñesgabekoei amar urtean Jaungoikoaren itza azaltzeko indartu zinduzun anima-zaletasunagatik, apalki eskatzen dizugu, bere bitarteko izan zaitezela ziñesgabekoak biurtu, ziñestausleake ta banatuak Eleiz-amagandu, pekatariak zer-

uratu, ta zuzenak santutu ditezen. Eskatu Jaunari garbitokiko animen alde; baita kristau-erregien arteko benetako pake ta alkartasunagatik ere. Neri berriz lagunurkoari pekaturako biderik eman ezta kioldan, egidazu; ta bai itzaz eta irakatsiz, Jaungoikoaren ezaupide ta maitetasun aundiagora ekarri dagidala, Jaungoikoak ipiñi nauan bizibidean Zure antzekoa izanda, zure lagun izan nadin-zeruan betiraunde guztian.

Santuak asmätutako otoitza, ta sarri esaten zuena: ¡Gauza guztien Egille, betiko Jaungoikoa! Oroitu zaite, zuk egin dituzula zure antzera ziñesgabeko ta pekatarien animak. Begira, Jauna, nola betetzen duten inpernua, eta ez aztu berak salbatzeagatik ixuri zubela bere odola, ta ainbeste neke igaro zure Seme Jesukristok. Ez utzi ziñesgabeko ta pekatariak zure Semea ta gure Jauna aintzakotzat ez artzen; baña anima on eta zure Seme guztiz Santuaren Emazte Eleizaren eskariakatik bigunduta, azturik beren jainko gezurrezko, ziñesgabetasun eta gaiztakeriak, Jesukristo ezagutu ta biotzez maitatu dezatela, bera dan ezkerõ gure bizi ta berrizpiztea, gure berriz-erosle ta azkatasuna. Omena (gloria) berari betiraunde osoan.

V. San Franzisko, gure alde eskatu.

R. Jesukristoren agintzak irabazi dagidazan.

OTOITZA: ¡Erri ta erregiei zure izen santua erakusteko, San Franzisko Jabier'tarra graziazko ontzi autu dezun Jaungoikoa! egiguzu, zure goratasunaren zabaltzalle arrigarria lurrean gurtutzen degunok, gure salbaziorako bitarteko zeruan eduki dezagula, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

BORJA'TAR SAN FRANZISKO'RI

Santu andi au euskalduna ez zan; baña bai Duke ta kataluñako Errege-ordeko izan da gero, Erromatik kardenal egin nai zutelako iges egin da, geure Oñatiko echea egiten peontzan ibillizana. Bergara'ko gaixotegian (ospitalean) dago berak lo egiten zuan oya. Euskerarik jakin bage, gure asaba euskera besterik ezekienei, bere sermoyeekin amaika negar eragin zien. Amaika on egin zuan alde onetan bere apaltasunaz ta lurreko gauzentzako ta bere buruaganako gorrotoaz.

OTOITZA: Benetako apaltasunaren irudi ta sari (premio), Jesu-Kristo gure Jauna: munduko aunditasunaren gorrotoaz San Frantzisko zeure antzeko egin zenduan bezela; gu ere bere antzeko ta zeruko lagun, arren, egin gaitzatzu. Aita Jaungoikoakin Espiritu Santuaren batasunean bizi ta agintzen dezun orrek.

SAN LUIS'I SEIURRENA

Guxtiz zabaldua da San Luis'i Jesus'en Lagundian egin zituan sei urteak goratzeko egiten

zayon otoizkera au: Orrillaren (Mayatzaren) berderatzigarren egunetik urrengo igandean asi leike, bagillaren 21'g. amaitzeko. Baña egin leike bere egun osteko sei igandetan, edo noiz-nai, baña errenkadan. Bearrekoa da aitortu, jaunartu ta eguna gauza onetan igarotzea, edo eskariren bat egitea; izan leike urrengoa. Barkapen osoa dauka, igande bakoitzak.

SAN LUIS AINGERUARI GARBITASUNA IRISTEKO

¡Aingeruzko oituradun Luis dontsua! Zure eskuetan uzten dizut nere anima ta gorputzeko garbitasuna, Jesu-Kristo Bildots orbanbageari ta bere Ama guztiz garbi dontzellen Dontzellari, pekatuaz loitu gabe, emon dagiezun. Ez utzi, ene aingeru orrek, orbanik chikienaz nere anima loitutzen; eta ezetsi naiz pekatuko arriskuan ikusi nagizunean, aldendu nigandik gogapen (pentsamentu) ta gurari zikin guztiak; ekarri nere gogora betiraunde (eternidade) eta Jesus Kurutzetuaren gogoratzea; josi nere biotz-barru-barruan Jaungoikoaren bildur santua, ta erre bere maitetasunezko sutan: lurrean zure antzeko izan ezkerro, zeruko atsegintzan zure lagun izan nadin.

SAN ANTONIO'GANAKO ONERASKUNA

Edozeñek daki ze zaletasun aundia dioten santu mirarigille oni gustiak, baña euskaldunak bate-

zere, batzuek uste dubenez, ama euskalduna ikustera bertatik igaro zalako (1).

San Antonioren amairu astearteak

Epailaren (Marchoaren) 13' garren egunetik urrengo asteartean así litezke, bere egunean, bagillaren 13' g. bukatzeko. Baita egin leizke egun artatik asita, urrengo amairu igandetan ere; baita beste edozein amairu astearte edo igandetan, baña, eten gabe. Barkapen osoa dauka bakoitzak. Au irabazteko bearrekoa da aitortu, jaunartu, ta, astearte edo igande bakoitzean, Santuaren gorapenerako gogarte (meditazio) edo eskariren bat egitea. Izan leike urrengo

OTOITZA

¡Gizonak eta aingeruak zure mendean dauzkazun, agintarien Jaun eta Jaungoikoa, zure otsein (serbitzari) San Antonio'ri gauza galduak arkitzeko eskubidea eman ziozuna! Eskerrak ematen dizut santu aundi au ainbeste goratu dezulako; ta bere bitartez eskatzen dizut, eman dagidazula zeruko argi eragillea, nere griña charrak menderatuaz, zure irakatsiak jarraitzeko; ez dagidala galdu zure graziaren arri ederra; ta iñoiz galdu albaneike, laister arkitu dezadala. Baita eman egidazu, astearte onetan eskatzen dizudana ere, nere onerako ta Santuaren gorapenerako bada.

(1) Dana dala, egia da. Jaungoikoak, Urkiolan, euskalerrriaren erdi-erdian, jarleku goratuan bezela, gure zaindaritzat ipiñi duala.

NORBERAREN IZENEKO SANTUARI

¡Zure ontasunagatik zerutar artera igo zeran, eta Jangoikoak ni zaintzeko izendatutako Santu aundia: nere eginbearrak beteta, zure antzeko izan nadilla eskatu Jaungoikoari; zure izena zatartu gabe; zure lagun zeruan betiko izan nadin.

Norberaren egunean ez litzake inor aitortu ta jaunartu gabe geratu bear. Ondo da batayatu ginduzenean, egindako eskintzariak egun onetan, jakiñean, berriztutzea. Jakin gabe egin ginduzen eskintzari oek, baña betetzeko (kunplitzeko) beartuak gaude; ba aita-besoetakoak gure izenean eskiñi zituan, jakiñik zeruko jabegai egitea naiko genduala: berriz, zeruko jabegai izateko eskubide orrek dakarzkin egin-bearrak, eskintzari oek, bete egin bear dira. Orrela izan bearko luke beste edozein jabetasun gure izenean artuko balue ere.

GARBITOKIKO (PURGATORIOKO)

ANIMAGANAKO ONERASKUNA

Garbitokia bai-dago. Pekatu larriaren errua aitorkuntzan (konfesioan) barkatzen da; baña oyekgatik euki bear genduan errusari (kastigua) ez da barkatzen damu oso aundia ez badegu. Baita pekatu ariñak ere beren zorra euki bear dute. Errusarri ta zor ori kitutzeko dauka, ba, Jaungoikoak toki bat, animak, soñekoak gobar-an (lixiban) bezela, garbituta, zeruratu ditezen.

Garbitokian nolako atsekabeak dauden.—Bিতাকোak dira bertako atsekabeak; inpernuoen

antz-antzekoak. 1.^a kallezkoa, Jaungoikoa ikusi gabe egon bearra, 2.^a suak ematen diena. San Agustiñen iritzian inpernuko sua ta garbitokikoa bat dira.

Ze bidezkoa dan garbitokiko animen aldez eskatzea.—1.^o Atsekaberik aundientan dāude; 2'g. Eak beren buruentzat ezin dute ezer egin; 3'g. Gure guraso, seme—alaba, senide, ongille ta adizkideak dira; 4'g. Ayen aldez egiten badegu, Jaungoikoak eta eak lagunduko digute, bizitzan, eriotzan eta garbitokian. Egizu zure aita, ama, seme edo alaba surtan dagoala zuri deabarrez, ¿ez zinakio lagunduko?

Zeretzaz lagundu leikezun: Mezak alera ta entzunaz. jaunartuaz, beartsuei lagunduaz, beste edozein egikizun onaz, eta Parkapenak irabaziaz.

Barkapenak (induljentziak) irabazteko 1.^o grazian egon bear da, norberentzat irabazi bear badira; 2'g. orretarako agintzen dan guztia egin; 3'g. barkapen osoa bada, pekatu aundien ta chikien damu oso-osoa eūki bear da; baña, oso-osorik irabazi ez arren, irabazten da zenbat eta damu aundiago, osoago.

Asmoa (intenzioa) barkapenak irabazteko naikoa da bein betiko eukitzea, baña ohea da goize-ro berritzea.

Barkapen osoa irabazteko agindu oi da: 1.^o Aitorkuntza. Baña astean bost aldiz, guchienaz, jaunartzen dūtenak, parkapenak irabazteko ez dute aitorkuntza-bearrik. 2'g. Jaunartzea; 3'g. Eleiz-ikustaldia (bisita), Aita Santuaren asmoetako zerbait erregutuaz. Naikoa da Aita gure, Agur Maria ta Gloria bat esatea; baña oitura da iru bider asatekoa. Jaunartze bataz barkapen asko irabazi litezke, beste agitzen diranak bete ezkeru.

Eta egiten ditugun errezo ta beste gauza askori barkapen asko emanak daudelako, guztiz ona da eleizan sartzen geran bakoitzean Aita-gure, Agur Maria ta Gloria bat esatea, Aita santuaren asmuetarako, barkapen ayek irabazteko.

Barkapenetan geontzat eta garbitokiko animentzat mina ederra daukagu.

Eun eguneko barkapenak irabazten diranean, esan nai da, Eleizan antziñetan eun eguneko neke (penitentzi) aundiakaz barkatzen zan pekatuen zorra, eun eguneko barkapen oýek irabazi dituanari ere barkatzen zayola.

EGINTZA BIKAIÑA (ACTO HEROIKO) GARBITOKIKO ANIMEN ALDEZ

Jaungoikuaren grazian egonda, egiten ditugun esanegiñak dira: 1.º *Sarikorrek*, au da, zeruko saria geitutzekoak; 2.º *Biguinkorrek*, pekatugatik asarratuta dagon Jaungoikoa biguntzekoak; 3.º *Irizkorrek*, Jaungoikoagandik gauza onen bat iristekoak, 4.º *Kitakorrek*, pekatuen zorra kitatutzekoak.

Ba *egintza bikaiñak* egiten duana da gure egite on guztiak daukaten kitakortasuna geontzat gorde bearrean, garbitokiko animei eman. Baña ez uste onezaz ezer galtzen degunik, baizik geyago irabazi, garbitokiko animei egiten diegun maite-tasunezko eskintza ederragatik. Garbitokian ere uste liteke, ez gerala luzaroago egongo; ba garbitokiko animaz errukiorrak bagera, Jaungoikoa guzaz errukiorra izango da.

Egintza au egiten dutenai Aita Santuak ematen die: 1.º Jaunartze bakoitzean barkapen osoa irabaztea, baita astelen guztietan garbitokiko animen alde zentzuten dan Mezan ere; 2.º Barkapen gustiak garbitokiko animentzat ezarrigarrak izatea.

Egintza bikain au egiteko esan daikezu ondorengo otoitza:

ESKINTZA

Izatez bakarra, baña irukoitza zeran ene Jaungoikoa! zure gorapenik aundie-

nerako, gure Erosle Jesukristo'ren, antze-koak izateko, ta errukitasunaren Ama ta garbitokiko anima errukarriena Maria guztiz santuari diotan menpetasuna agertzeko: erabakitzen det, Jaungoiko zuzenari dagozkion nekezko zorraz lotuta dauden anima ayek ainbat lasterren azkatzeko (libratzeko) alegin egingo dedala. Eskintzen dizut, Jauna, Ama Birjiñak nai dituan anima guztiak ateratzeko daukadan naitasun zintsoa.

Orregatik nerendutako egite onen kitukortasun (satisfacción) guztia, bizitzan, eriotzan ta eriotz-ondoren eukiko dedana, Ama guztiz maite onen eskuetan uzten det. Eta au guztiau berak nai dituan animak ateratzeko naikoa izango ez balitz, eskintzen nazazu, Jauna, orrela nai badezu, garbitokian igaro bear duten guztia neronek ordaintzeko, uzten naizela neronizure Errukitasunaren ta zure Ama guziz gozoaren eskuetan. Nere eskintzari onen lekuko (testigu) izan bitez zeruko, lurreko ta garbitokiko guztiak.

ESKARIAK

JESUS'EN BIOTZARI GUZTIEN ALDE. ¡Jesus'en Biotz guztiz santua! Ixuri ugari zure onestea (bendizioa) Eleiza guztiari, Aita Santu, Obispo, apaiz ta erligiosuei. Onai iraupena eman egiezu, pekatarietara biurketa.

Argitu ziñesbageak, onetsi gure guraso, senide, adizkide, ongille ta auzokoak; lagundu iltamuan (agonian) daudenei, garbitokitik atera animak, eta lotu biotz guztiak zure maitetasunezko lokarri biguñaz.

Espiritu santuari.—Espiritu Santuaren argiaz zure ziñestedunen biotzak argitzen dituzun Jaungoikoa; egiguzu Espiritu orren laguntasuna, gauza onak maitetu, ta bere pozaz atsegindu gaitezen.

Sendi (familiaren) alde.—Aldendu, Jauna, ezbear guztietatik sendi au, Andra Mariaren bitartekotasunagatik; eta zure aurrean biotzez auspezturik dago-ta, etsayen sareetatik errukiz zaindu egizu.

Garbitasuna eskatzeko.—Erre, Jauna, Espiritu santuaren suaz, gure errai ta gure biotz au, gorputz garbiz zu jaraitu, ta bizitza garbiz zure gogokoak izan gaitean.

Gogapen (pentsamentu) charrei jarkiteko). Jaungoiko guztialdun ta errukiorra; entzun bigundurik gure eskariak, eta gogapen charrak gure biotzetik aldendu, Espiritu Santuaren bizitoki egokia izan gaitean.

Pakea eskatzeko.—Jaungoiko pakegille ta alkarganako maitetasun-zalea! Zure serbitzarien naimena, zure orrezaz bat egin bedi, zirikatzen gaituen ezetsi (tentazio) guztiak azpiratu ditza-gun.

Eur a eskatzeko.—Bialdu egiguzu, Jauna, euri ongillea, ta lur leortu au zeruko uraz ezkotu egiguzu.

Ekaitz (tenpestadeak) kentzeko.—Bota, Jau-

na, zure ehetik etsai gaiztuak, eta ekaitz kaltekor au aldendu egiguzu. Jesukristo gure jaunaren bitartez.

Norberaren umien alde.—Zure aingeruak, gu zaintzeko, ardurarik aundienaz bialtzen dituzun Jauna, entzun gure eskariak, eta gure semiak, aingeruak gordeta, beakin betiko atsegintzara juan ditezela.

Gaixuen alde.—;Guztialdun eta betiko Jaungoikoa, zugar zinesten dutenen betiko osasuna! Zure serbitzari gaixuaren alde egiten dizugun eskariak entzun egiguzu, osasuna irichita, zure Eleizan eskerrak eman ditzagun. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Aberien alde.—Abereak berak gizonen nekien gozagarrizat eman diguzun Jaungoikoa, ez gaitzela, arren, oyek bage geratu, ain bearrekuak ditugun ezkeru.

ILLEROKO BAKARTALDIA

Gutziz ona da, ta askok egiten dutena illean-illeko bakartaldia (erretiroa). Ostu apur bat asti zure eguneroko arazoei; egin gogarte (meditazio) bat; eta batezere, begiratu nola zuazen zure animako zeregin aundian. Onetarako, berriz, eriotzaren oroipena bezelakorik ez dago. Sartu, ba, zure gelan; eta Jesus kurutzetua zure eskuetan dezula, egizu esaten dizula Ezekias Erregeari Isafas Igarleak esan ziona: Gertu (prestatu) zure gauzak, il bear dezu-ta.

Deitu, ba, eskribauari, ta egin testamentua; aitorentzuleari ere bai, zure azkenengo aitorkuntza egiteko. Entzuten dezu chiliña? Gure Jauna badakarkizute. Iruditu artzen dezula. Oleo Santua ere badakarkizute. Jesus Kurutzetuz egin kurutzea zentzu bakoitzean, esanaz apaiz jaunak oleo-santua ematean diona: "OLEO SANTU ONE-

GATIK ETA BERE ERRUKITASUN GUSTIZ BIGUÑAGATIK, BARKATU DIZAZULA BEGIAKIN, (egin kurutzea begietan) EGIN DITUZUN OKER GUZTIAKO. Esan beste ainbeste belarrietan, sudurrean, miagian, eskuetan, oñetan, kurutzea eginaz.

Egizu gero oe-ondoan dauzkatzula guraso edo seme-alabak, senideak, lagunak; apaiz jauna ere bai, liburu Santua eskuetan dubela. Zu berriz begiak itzal, sur eta belarri-ertzak zurbil, ao-zabalik, arnasa-oska, izerdi lizunetan, eskuetan daukazun kurutzeari mañ egiteko indar gabe:

1.º Gogoratu: Pekatu guztiak zuzen dauzkatzu esanda? ¿Estutzen zaitun zerbait badaukazu? Zauden bezela, lurretik irten naiko zenduke? ¿Ala zer-edo-zer egin nai ote-dezu? ¡Egin, ba, orainche!

2.º Orain arte zer egin dezu? ¿Zertan igaro dituzu ainbeste urte? Zure anima ta Jesu-Kristoren alde, zer egin dezu?

3.º ¿Otoitz, meza, aitorkuntze ta jaunartze geyago ta obeto egitea nai zenduke? Jolas, dantza, erromeria, beranduko echeratze ta gorputz orri eman diozkatzun atseginagatik zer derizkiotzu? Eta gaixo, neke ta Jesus'egatik igarotako beste nabez eta atsekabiak, mindu ala poztu egiten zaitue? Daukazun bizibidea (estadua) ta lagunak nai zinduzke orduan euki?

Begiratu, ba, zerk larrituko zaituan orduan, eta kendu; zerk poztuko zaituan, eta egin; ba, orain eriotzan ez egon arren, naita-ez egongo zera, ta onenean urte au bukatu baño len ilko zera.

Iruditu zaite il zerala. Zure animak, gorputzetik irten, eta mundu berri artan sartzen danean, lurreko gauzei nola begiratuko die?

Or ago, dio, gorputz zatar, ainbeste atsegin emandian ori, geldi, ichusi: laster egingo aiz arren janari. ¡Iri ainbeste begiratu bearrean, estua-go nork artu alegikean!

¿Nere entzute ta izen aundiagatik zer dit?

¿Dirnak, nik ainbeste izerdi ta alegiñez bildutako diruak, nun ditut? An darabilzkite eskuetan nere senideak, nizaz ainbeste oroitua gabe. ¡Ai, benetako aberastunak, nerekin beti eukiko nituztenak. biltzeko, orrenbeste alegin egin banu!

Gero, Jesus'en Lagandiko Borja'tar San Franzisko'k gogoratzen zuan bezela, egizu zure aingeru zaindaria esaten dizula: Urria, mesede aundi bat egin dizu Jaungoikoak: tira lurrera, il onetako; bizi, garbitekiko atsekabeak guchitu, ta zeruko atsegiñak geitutzen.

Orrela, ba, ez lur onetakoa, beste mundukoa baziña bezela, bizi bear dezu il onetan.

ERIoTZA ONA IRISTEKO OTOITZA⁽¹⁾

Ontasun utsezko Jaungoikoa ta Aita errukior nere Jaun Jesukristo. Emen naukazu zure aurrean biotz apal eta damutuaz.—Zure eskuetan ipintzen det nere azken-ordua, ta bere ondoren etorriko zatan guztia.

Nere oñak, zirkin bage geratuaz, mundu onetako bidaldiaren azkenetan nagola adierazten dietenean: *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

Nere eskuak ikaraz eta sor, oratuta dauken kurutzea estutu eziñik, oegañera erortzen uzten dutenean: *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

Nere begiak, gañean dedan eriotzaren

(1) Eskari onek 15 urtekin katoliko biurtu, ta 18'g. santu-usayan il zan protestante neska batek asmatuak dira.

bildurrez kristaldu ta irtenik, euren begirakune erdi-illak zugana zuzentzen ditue-
nean: *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

Nere españ otz eta dardariak zure izen gozoa azkenez esaten dutenean: *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

Nere arpegi ori ta zurbilduak inguru-
kuei tamal (lastima) eman eta bildurtzen dituanean; eta nere buruko illeak eriotz-
izerdiaz azkortuta (goratuta), nere azkena urre dagola agertzen dutenean: *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

Nere belarriak gizonen izketara betiko ichi, ta betiraun osoan zorioneko edo zoricharreko egingo nauen epaya entzuteko idiki bear diranean: *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

Nere irudimenak, irudi bildurgarriz ikaratuta, eriotzarañoko estutasunak dakartzitanean; eta nere gogoa, zure zuzentasun eta nere erruen oroipenaz zorabiauta, zuganako ichodopena galdu nai ditan inpernuko etsayakin burrukan dabillenean: *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

Nere biotza, gaixo ta miñez makal eta estu, eriotzako bildurrez konkortu, ta nere salbazioko etsayakin burrukan nekatu ta eratsita dagonean: *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

Nere azkenengo negarimalkoak, desegingo naizen ezaupideak, ixuritzen dituanean, artu, Jauna opagai bigungarritzat,

nere pekatuen ordez il nadin. Eta ordu bildulgarri artan; *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

Nere zentzuak illundurik, mundu osoak nere begietatik iges dijoanean; eta iltamuko (agoniako) estutasun eta eriotzako larritasunetan inzirika nabillenean: *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

Nere biotzañen azken-zotiñak anima gorputzetik irtetzeko beartutzen dubenean, artu egiazu, Jauna, zugana juan-gogoak ateratzekotzat; eta orduan: *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

Nere anima mundu onetatik betiko irtetzen danean, gorputza ori, otz, bizi gabe utzita: beronen usteltzea zure aunditasunari eskeiñitako opagaitzat artu egidazu; ta ordu artan: *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

Azkenik, nere anima zure aurrean agertu ta zure aunditasunaren argia ikusten dedanean; ez, arren, Zugandik jaurti: Zure magal errukitsuan artu nazazu; Zure gorapenak betiko abestu (kantatu) ditzadan; eta beti: *Jesus errukiorra, erruki zakidaz.*

OTOITZA

Eriotzarako erabaki arren, bere ordu ta unea ezkutau dirazun Jauna; egizu, nere bizitzako egun guztiak zuzentasun eta santutasunean igarorik, lur onetatik zure mai-

tetasunean irten nadilla. Zurekin Espiritu Santuaren batasunean bizi ta agintzen duben Jesu-Kristo gure Jaunaren irabaziakatik.

Urrengo otoitza bizitzan bein biotzez egiten dutenai aita santu Pio X.^{ak} barkapen osoa eman die, autortu ta jaunartuaz.

OTOITZA

¡Ene Jaun eta Jaungoikoa! Gogo ta apaltasun oso-osoaz artzen det orainchetik zure eskuetatik, eman nai dirazun edozein eriotza, bere estutasun, atsekabe ta min guztiakin.

BIZIKERA ONA EUKITZEKO

Gabeko azterketan (6'g. orrialdean) daukazu, euskaldun langilleak euki leikeana.

Gañera, zortzian bein, aldala, konfesau, ta aldanik sarrien, Aita Santuak nai daben bezela, jaunartu. Eta guztia baten esateko, artu konfessore jakintsu, zuur eta animazale bat. Oar (abisu) guztien oarra deitzen dio oni San Frantzisko Sales'tarrak. Eta gañeratzen du: «Milla konfessoretatik bat artu zazu, dio A. Maixu Avila'tarrak; eta nik diot: amar millatik bat artu, uste degun baño guchiago dira onetarako gauza diranak-eta.» Auzietan letraurik onena, gaixuetan osalaririk aituena billatzen degu: ¿eta salbazioa, geyen dan gauza, lenengo topatzen degu-

naren eskuetan ipiñi? Ikusi guztiak; eta artu, iñoren esamesei jaramon bage, onbidean a-ko aurreratze-ko geyen laguntzen dizuna, ez gozotsuago artuko zaituana; zabaldu berari zure biotza, ez euki zoko illunik, eta bera galdetu bage, ez gauza aztunean erabakirik artu. Ez beste gana juan, urtean batzuetan, edo geyago laguntzen ote-dizun ikusteko ez-pada.

Gauza bat da aitorentzulari (konfesoría), ta beste bat gogo-artezkaria (aita espiritualá). Aitorentzulari izateko, ezta ainbeste bear; berriz gogo-artezlari ona aututzean, iya guztia dijoa, ikusten danez. Euki leike bat aitor-entzularitzat, eta gogo-artezkaritzat beste bat: naikoa da onegana noizian-bein juatea, animako gora-bera guztien berri ematera.

GURKERAK (ERREBERENTZIAK)

Gure Jaunik ez dagon altaran, BURUA besterik ez makurtu.

Gure Jauna DAGON altaran, ESKUIKO BELAUNA bakarrik makurtu, baña lurra joarte. Berdin MEZATAN, gure Jauna allargañean dagon bilar-tean.

GURE JAUNA AGIRIAN dagonean, BELAUN BIAK, eta gañera BURUA makurtu. Berdin Jauna ematen dagoan allaratik igarotzen danean:

¡Eleiza Jaungoikoaren echea da!

¡Eleizan ez chisturik bota!

¡Eleizan ez itzik egin!

¡Eleizan ez errezau altu!

¡Eleizan itzalez (errespetuz) egon!

¡Eleizan emakumeak burua estaldu!

ARDURADUNAK (ZELADORIAK)

ARTUALDIAN

Kurutziak, agerkayak (diplomak) eta arantegiak (erreglamentuak) altara-onduan ipiñita; Zuzentzalliak, erroketak eta estola zuriaz, agertuko die guztiei eginkizuna. Arduradun izango diranak belaunikaturik altara-aurrean, euretako batek egingo du urrengo

ESKINTZA

Jesus guztiz bigun, agortu ezindako maitetasunaren iturria, errukitasunaren Aita, eta poz osoaren Jaungoikoa. Zuk gure ezereztasun eta duin-eztasunari begiratu bage, agertu dizkiguzu zure Biotzeko ezin-esanalako aberastasunak. Ba oekatik eta neri ta beste guztiei egin dizkiezun onakatik eskerrak egiteko; ta, batezere, Sakramentu Santuan erakusten diguzun maitetasunari erantzun, eta bertan egiten dizkitzuten gaiztakeriak ordaintzeko, naizen guztiau ematen nazayo zure Biotz Santuari animen salbaziorako.

Zure eskuetan uzten ditut, Jesus maitegarria, nere ondasunak, daukadan eta aldedan guztia; ta agintzen dizut, zure laguntasunaz zabalduko dedala nere indar guztiakin zure Apostolutasun eta maitetasuna.

Artzen det, gañera, Apostoluen Erregiña

ta pekatarien gordeleku, Andra Maria, nere berarizko Amatzat. Naizen eta daukadan guztiau eskiñi ta ematen nayakio bere Biotz Garbiari ere; ta agintzen dizut bera bezela pekatariakanako errukiorra izango naizela; ta eurei obeto laguntzeko, nere indar guztiaz zabalduko dedala bere Biotz Garbi ta Errukiorraganako oneras-kun edo debozioa.

Artu gozaro, Jesus biguñ orrek, eskin-tzen dizudan opari au; ta, nai-izatia eman dirazun bezela, betetzea ere, arren, eman egidazu.

Bakoitzak, edo, asko badira, guztiak batian, esango dute:

Jesus'en Biotz Santua, ni ematen nayatzu.

KURUTZEA EMAN-ALDIAN

Artu ezazu ezaupide au, ta zure biotz-gañean eraman ezazu; Jesus'en Biotzak dizun maitetasuna, ta zuk berari izan bear diozuna, geratu bage gogoratu dagizun.

AGERKAYA (DIPLOMIA) EMAN-ALDIAN

Artu agerkaya; beronen bidez izango zera Jesus'en Biotz, eta Eskarizko Aposto-lutasuneko arduradun.

ARAUTEGIA (REGLAMENTO) EMAN-ALDIAN

Artu arautegia ere, gordeaz, egunean baño egunean egokiago izan zaitean, Je-

sus'en Biotz eta Bere Apostolutasuneko arduradunaren izen goratu ta pozkillea eramateko.

Gero Zuzentzalleak onesten ditu, esanaz.

¡Jesus, gure Jauna! Artu, arren, zure banderapean zure asmuei eutsi ta zure gorapena aurreratutzeko gogoia duten zure seme oek. Agiri ta ezkutuko etsayei ezesteko indaremolle, ta betiko garaitzearen ziurgai izan dezetela ipiñi zayen ezaupidea.

Abestu *Magnificat*, edo nai dana.

LATIÑEZKO ABESTIAK (KANTUAK)

PANGE LINGUA

Pange, lingua, gloriósi
 Córporis mystérium,
 Sanguinisque pretiósí,
 Quem in mundi prétium
 Fructus, ventris generósi
 Rex effúdit géntium.

Tantum ergo Sacraméntum
 Venerémur cernui;
 Et antiquum documéntum
 Novo cedat ritui:
 Præstet fides suppleméntum
 Sénsuum deféctui.

Genitóri, Genitóque
 Laus et jubilátio,
 Salus, honor, virtus quoque
 Sit et benedictio:
 Procedénti ab utróque
 Compar sit landátio. Amen.

IGANDETAKO BESPERRAK

Pater noster et Ave María.

v. Deus, in adiutorium meum intende.

R. Domine, ad adjuvandum me festina.

Gloria Patri. Sicut erat in principio, et nunc, et semper, et in sæcula sæculorum—Amen—Allelúja.

Psalmus 109.—Dixit Dominus Domino meo: *
Sede a dextris meis:

Donec ponam inimicos tuos, * scabellum pedum tuorum.

Virgam virtutis tuæ emittet Dominus ex Sion: *
dominare in medio inimicorum tuorum.

Tecum principium in die virtutis tuæ in splendoribus sanctorum: *
ex útero ante luciferum genui te.

Juravit Dominus, et non poenitebit eum: *
Tu es sacerdos in ætérnum secúndum órđinem Melchisedech.

Dominus a dextris tuis, * confrégit in die iræ suæ reges.

Judicabit in nationibus, implébit ruínas: *
conquassabit cápita in terra multorum.

De torrente in via bibet: * proptérea exaltabit caput. Glória Patri.

Psalmus 110.—Confitebor tibi, Domine, in toto corde meo: *
in consilio justorum, et congregatione.

Magna ópera Domini: * exquisita in omnes voluntates ejus.

Confessio et magnificentia opus ejus: * et justitia ejus manet in sæculum sæculi.

Memoriam fecit mirabilium suorum, misericors et miserator Dominus: *
escam dedit timéntibus se.

Memor erit in sæculum testaménti sui: * virtútem óperum suórum annuntiábit pópulo suo:

Ut det illis hereditátem Géntium: * ópera mánuum ejus véritas, et judícium.

Fidélia ómnia mandáta ejus: confirmáta in sæculum sæculi, * facta in veritáte et æquitáte.

Redemptiónem misit pópulo suo: * mandávit in ætérnum testaméntum suum.

Sanctum, et terríbile nomen ejus: * inítium sapiéntiæ timor Dómini.

Intelléctus bonus ómnibus faciéntibus eum: * laudátio ejus manet in sæculum sæculi.

Gloria Patri.

Psalmus 111.—Beátus vir, qui timet Dóminum: * in mandátis ejus volet nimis.

Potens in terra erit semen ejus: * generátio rectórum benedicétur.

Gloria, et divitiæ in domo ejus: * et justítia ejus manet in sæculum sæculi.

Exórtum est in ténebris lumen rectis: * miséricors, et miserátor, et justus.

Jucúndus homo qui miserétur et cómmodat, dispónet sermónes suos in judício: * quia in ætérnum non commovébitur.

In memória ætérna erit justus: * ab auditióne mala non timébit.

Parátum cor ejus speráre in Dómino, confirmátum est cor ejus: * non commovébitur donec despiciat inimícos suos.

Dispérsit, dedit paupéribus: justítia ejus manet in sæculum sæculi, * cornu ejus exaltabitur in glória.

Peccátor vidébit, et irascétur, déntibus suis fremet et tabéscet: * desidérium peccatórum peribit.

Gloria Patri.

Psalmus 112.—Laudáte, púeri, Dóminum: * laudáte nomen Dómini.

Sit nomen Dómini benedíctum, * ex hoc nunc, et usque in sæculum.

A solis ortu usque ad occásum, * laudábile nomen Dómini.

Excelsus super omnes Gentes Dominus, * et super cœlos gloria ejus.

Quis sicut Dominus Deus noster, qui in altis habitat, * et humilia respicit in cœlo et in terra?

Suscitans a terra inopem, * et de stercore erigens pauperem:

Ut collocet eum cum principibus, * cum principibus populi sui.

Qui habitare facit sterilem in domo, * matrem filiorum lætantem. Gloria Patri.

Psalmus 113.—In exitu Israël de Ægypto, * domus Jacob de populo barbaro.

Facta est Judæa sanctificatio ejus, * Israël potestas ejus.

Mare vidit, et fugit: * Jordánis conversus est retrorsum.

Montes exsultaverunt ut arietes, * et colles sicut agni óvium.

Quid est tibi, mare, quod fuisti: * et tu, Jordánis, quia conversus es retrorsum?

Montes exsultaverunt ut arietes, * et colles, sicut agni óvium.

A fácie Domini mota est terra, * a fácie Dei Jacob.

Qui convertit petram in stagna aquarum, * et rupem in fontes aquarum.

Non nobis, Domine, non nobis: * sed nómini tuo da glóriam.

Super misericórdia tua, et veritate tua: * nequándo dicant Gentes: Ubi est Deus eórum?

Deus autem noster in cœlo: * ómnia quæcúmque vóluit, fecit.

Simulácula Géntium argéntum et aurum, * ópera mánuum hóminum.

Os habent, et non loquéntur: * óculos habent, et non vidébunt.

Aures habent, et non áudient; * nares habent, et non adorábunt.

Manus habent, et non palpábunt: pedes habent, et non ambulábunt: * non clamábunt in gútture suo.

Similes illis fiant qui faciunt ea: * et omnes qui confidunt in eis.

Domus Israel speravit in Domino. * adjutor eorum et protector eorum est.

Domus Aaron speravit in Domino: * adjutor eorum et protector eorum est.

Qui timent Dominum, speraverunt in Domino: * adjutor eorum et protector eorum est.

Dominus memor fuit nostri: * et benedixit nobis.

Benedixit domui Israel: * benedixit domui Aaron.

Benedixit omnibus, qui timent Dominum, * pusillis cum majoribus.

Adjiciat Dominus super vos: * super vos, et super filios vestros.

Benedicti vos a Domino, * qui fecit caelum, et terram.

Caelum caeli Domino, * terram autem dedit filiis hominum.

Non mortui laudabunt te, Domine: * neque omnes, qui descendunt in infernum.

Sed nos qui vivimus, benedicimus Domino. * ex hoc nunc et usque in saeculum. Gloria Patri.

MAGNIFIKAT

Magnificat * anima mea Dominum.

Et exultavit spiritus meus * in Deo salutari meo.

Quia respexit humilitatem ancillae suae * ecce enim ex hoc beatam me dicent omnes generationes.

Quia fecit mihi magna qui potens est: * et sanctum nomen ejus.

Et misericordia ejus a progenie in progenies * timentibus eum.

Fecit potentiam in brachio suo: * dispersit superbos mente cordis sui.

Deposuit potentes de sede * et exaltavit humiles.

Esurientes implevit bonis * et divites dimisit inanes.

Suscipit Israel puerum suum, * recordatus misericordiae suae.

Sicut locutus est ad patres nostros, * Abraham, et semini ejus in saecula.

Gloria, etc... Sicut erat in principio...

Aita Jesuiten Mixioetarako abestiak

(kantak)

ELEIZAN SARTZEAN

ERRIAK

- 1.^a ; Atoz, pekataria,
Atoz Eleizara!
Jaungoikoaren itza
«Gogoz aditzera» (Bitan).

KANTARIAK

- Bitan. { 1.^a Ez egon pekatuan,
Ez egon luzaro
Damu izan ez dezazun
Alperrikan gero
- Bitan. { 2.^a Pekatuan oera
Etziten bazera,
Urrian inpernuan
Esnatuko zera.
- Bitan. { 3.^a Misioko denboraz
Baliatu gabez
Daude, bai, inpernuan
Gaur asko negarrez.

ERDIRAKO

I

- 1.^a Pekatariok Ama,
Birgiña, zaitugu:
Zugan gure biotza
Gaur ipintzen degu
- Bitan. }
- Egizu Zuk, Maria,
Gugatik erregu,
Eriotzako orduan
Ez gaitezen galdu.*
- Bitan. }
- 2.^a Zure izen Santuak
Lagundu bekigu,
Zure Biotz onean
Ustea guk degu.
- Bitan. }
- 3.^a Zure Semiak gaitu
Zerutik billatu,
¿Nola zuk naiko dezu
Gu gaitezen galdu?
- Bitan. }

II

- 1.^a Agur dolorezko
Ama larritua,
Erregiña laztan,
Errukiz urtua.
*Ar gaitzugu, Ama.
Seme nekatuok.*
- Bitan. }
- 2.^a ¡O Rakel ederra,
Nekez asetual
Gu semiok gagoz
Negarrez urtuak.
Ar gaitzugu, etc.

- 3.^a Zure Biotzeko
Ezpata sutsuak
Sartu izan dizuz
Gure pekatuak.
Ar gailzugu, etc.

AZKENERAKO

I

- 1.^a Jesus gure Jaun maite
Amoriotsua
Damu degu guztiok (Bitan)
Zu ofenditua. (Bitan)
- 2.^a Josirik ikustean
Kurulze orretan Zu
¡Urrikariz biotza (Bitan)
Nork urratuko ez du? (Bitan)
Baita baleuko ere
Arri biurtua
Damu degu guztiok...
- 3.^a Burutik oñetara
Gorputz eder ori
Zauri bat egiñikan (Bitan)
Dezu guztiori (Bitan)
¡Ai! zorigaiztokoa
Gure pekatua.
Damu degu guztiok...
- 4.^a Oñak, esku ta albo
Danak zulaturik,
Bizkar-aldea azotez (Bitan)
Dana zatiturik, (Bitan)
Arantza gogorrakin
Josirik burua,
Damu degu guztiok...

II

ERRIAK

Jesus eskatzen dizut
 Nik barkazioa
 Lolsaz beterik nator
 Guztiz damutua.

Bitan. }

KANTARIAK

1.^a ¿Noiz arte bear dezu
 Egon pekatuan
 Ikusirik zaudela
 Ia inpernuan?
 Damuz begiraturik,
 Arren, animari,
 Bigun bedi, Kristaua
 Biotz gogor ori

Bitan. |

2.^a

Jesus agertzen
 Dana urralurik,
 Odola dariola
 Gurutz-iltzaturik

Bitan. { Ni naiz ¡o Jesus'ona
 Zure borrarua!
 Damu det milla bider
 Zu ofenditua. Bitan.

3.^a

Emen nankazu Jauna
 Negarrez urturik
 Nere erru guztiaz
 Oso damuturik

Bitan. { Jesus, eskatzen dizut
 Biotz-biotzetik
 Bedeinka nazazula
 Gurulze orretatik. Bitan.

ALTARAKO SAKRAMENTU SANTUARI

I

ERRIAK

Ogi zerutik—etorria.
 Zu zera gure—poz guztia. } Bitan.

KANTARIAK

- 1.^a Bildotz Santua—ara emen
Munduko gaitzak—kentzearren
Sagrarioan—nolan zauden,
Lurra zeruaz—bat egiten. (Bitan)
- 2.^a Misteriorik—aundiena
Jaungoikoaren—oroipena
Gozotasunik—gozoena
Gizonentzako dagoena. (Bitan)
- 3.^a Gauza gustien—Egilea
Zeru ta lurren—Erregea
Gure artean—bizitzea
Ze zoriona—dan gurea. (Bitan).

II

ERRIAK

Or zaude, Jesus—altarean
Gorde nai zaitut—biotzean
Gorde, gorde, biotzean.

KANTARIAK

- 1.^a Zeruetako—Jaun aundia
Egiñik gure—janaria
O maitetasun ugaria
Gizonarentzat—geyegia.
- 2.^a Ondasun danen—iturria,
Iltzeko gure—egarria:
¡O misterio—pozgarria,
Zeru ta lurren—miraria!
- 3.^a Ondo gabeko—ichasua
Zerutik jechi zeran sua,
¡O, maitetasun—ain osoa,
Arimarentzat—chit gozoa!

III

KANTARIAK

O Biotz gozo—Jesus'ena,
Gure biotzen gozapena,
Jesus onaren—Biotz ona,
Bitan. | Erruki zaitez—guzaz, Jauna.

KANTARIAK

1.^a Gugatik zaude—zauritua
Gogor arantzaz—koroitua
Iltze gogorrez—igarua
Bitan. | Danori miñez—samindua.

2.^a Ainbesteraño—nazu maite,
Biotza eskintzen—beti zaude.
Jesus maitea—bai nik ere
Bitan. | Zuri erantzun—nai nizuke.

3.^a Maitasun—labe goritua,
Karidadean—su—gartua,
Sulu egizu—gaur mundua,
Bitan. | Gizonen biotz izoztua.

SAKRAMENTU SANTUAREN BATZARREKO EREZERKIA

¡ Abestu (1) dayogun maitasunari!
¡ Abestu Jaunari!
¡ Ona emen Jauna!
Eldu, Jaun-gurtzalliak,
Gurtu (2) daigun Jesus Eroslea

(1) *Abestu* da kantau.

(2) *Gurtu*, (kurtu, makurtu), da adoran.

Bitan. { Omen (3) Zuri, o Jesus!
 Zeru ta lurrak onetsi zaizela:
 Omen, ta gora Zu, Zeruko Errege!
 Maitasuna Zuri, Jaun laztana.

JESUS'EN BIOTZARI

tan. { Jesus'en Biotz
 Maitetsua
 Zu zera gure
 Jaun altsua.

- 1.^a Sutua zande—beti gizonen
 Naiz gaizluenen—amorean,
 ¿Zergatik, Jauna, -su-gar biziak
 Dauzkatzu ichiak—Biotzean? (Bitan)
- 2.^a Atoz gugana—Jesus maitea
 Zure eskeintzea betelzera
 Zu zera gure—Errege, Jabe:
 Bizi zu bage—ezin gera. (Bitan)
- 3.^a Biotz gozoa—Zu aingeruen
 Eta Santuen—pozkarria,
 Barka eiguzu—gugan jartzeko
 Eta ezartzeko—Zuk begia. (Bitan).

ANDRA MARIARI

I

¡Agur, agur, agur Maria!
 Agur, agur, guztiz garbia!

- 1.^a Alabantzak Maria—sortzez garbiari.
 Jesus'en eta gure—Ama maiteari.

(3) Omen (aumen, famia) da gloria.

- 2.^a Maria sortu ziñan—orban bagekoa.
Santutasun guztiaz—apaindutakoa.
-
- 3.^a Oinpean zapaldurik—Luzbel'i burua
Garaitu dezu, Ama—betiko inperua.
-
- 4.^a Gurekin ere babel—gu arrapatu nairik:
Zu lagun bazaitugu—¡alperrik, ¡alperrik!
-
- 5.^a Zeru-goi orretatik—Ama begiratu.
Euskaldun-ziñestea—zutunik eukizu.

II

Ainbat edertasun—ta argi loretan
Zerua ikusten da—Eleiza onetan
Zu zera zeru—ain pozkaria
Ama maite—Birgiña Maria.

III

Nere Ama—chit, laztana,
Ni zuretzat ar—nazu
Lagundu, ta—gorde beti
Zeruratu—nazazu.
Ama batek ezin badu
Semia gaizki ikusi,
¡Nola ama-rik onenak
Al-izango-nau utzi
Diabruak,-gríña charrak
Eta mundu-galduak
Gogaitula-nauke Ama,
¡Luzatu zure eskuak!
Negarrezko—erbestian
Asko igarotzen degu:
Gure malko samintsuak
Arren, Ama, leortu.

IV

Ama maite, Maria,
Egiguzu lagun,
Zure bitartez Jesus
Ikusi dezagun
Aingerutar lirio
Chit maitegarria
Usai gozozko lora
Zerutik jeichia.
Gorde gaitzugu Ama,
Birjiña Maria,
Ez dezagun zikindu
Birtute garbia.

V

1.^a Agur, Jesusen Ama,
Birjiña maitia,
Agur ichasoko izar
Distiatzallia:
Agur zeruko eguzki,
Pozkidaz betea:
Agur pekatarien
Kaya ta estalpea.

2.^a ¡Agur, gizonen Ama,
Zeruko Erregiña,
Ama gozo, chit maite
Maitasun-oxiña!
Zugandik aldetia
Da gauza samiña:
¡Agur, neure biotzeko
Poz eta atsegiña!

Bitan. }

VI

Goizeko izarra
 Gustiz argia,
 Orbanik bage
 Ikusten da.
 Baña, Maria,
 Aren argia
 Zure aldian
 Iluna da.
 Bitan. } Agur, Maria,
 Gure eguzkia
 Maria, agur
 Agur, agur.

KRISTO GURE ERREGE

Bitan. { Kristo gure Errege
 Adora dezagun
 Zeru-lurren jabe
 Aitortu dezagun

2.^a Fede bizi baten
 Danok ernai.

Bitan. { Zuriak gera gu
 O, Jesus, bail!
 ¡Ez beste jaberik
 Eztegu nai!

3.^a Jesus'en etsayak
 Betoz noiz-nai,

Bitan. { Armak eskuetan
 Gauden erani:
 Jesusekin goazen,
 ioazen alai.

¡ A U R R E R A !

Bitan. { ¡ Aurrera! biotz fedez beteak!
¡ Aurrera, euskaldun kristaua!
¡ Aurrera! ¡ bai! bildurrik bage
Kristo gurekin dijoa.

Begira gure bandera
Begira zein ederra
Ezta ikusi inoiz berdiñik
Zeru goitik bera.

Jesus'en Biotz gozua
Munduaren erdian
Errege coroatua
Ikusi artean
Gerra beti, gerra bizia
Bere etsai gogorrakin
Su-tagar badatoz ere
Inpernu beltzakin.

Bitan. { Kristo izango da | Bitan.
Beti ¡ bai!
Euskaldunen Erregea
Gure biotzen jabea
Beste jaberik
Eztegu nai.

Bitan. { Entzun beza, entzun beza
Inpernuk,
Au da Jesus beraren oyua
«Ni, bai; ni, bai
Errege izango naiz
Mundu guztikua!
¡ Bai!

Bitan. { ¡ Aurrera! ¡ bai! ta aurrera beti.
Krista! euskaldun fedez sutua
¡ Aurrera! ¡ bai! bildurrik bage
Jesus gurekin beti dijoa

IÑAZIO

Iñazio,
 Gure Patroi aundia,
 Jesus'en Konpañia
 Fundatu
 Eta dezu armatu;
 Ez da ez etsairik
 Jarriko zaitzunik
 Iñolaz aurrean
 Gaurko egunean;
 Naiz betor
 Luzifer deabrua,
 Utzirik infernua.

Bitan.

Zure soldadnak
 Dirade aingeruak,
 Zure gidaria
 Da Jesus aundia
 Garaitu ditu
 Zure Konpañiak
 Etsayak.

Ez dauka fedeak
 Ez kristau nereak,
 Ez dauka bildurrik
 Iñungo aldetik.
 Iñazio or dago,
 Beti ernai dago,
 Armetan jarria
 Dauka Konpañia.
 Chispaz armaturik
 Bandera zabalik,
 Gau ta egun guk
 Guztiok bakea dezagun,
 Beti gau eta egun .

UMEAK JESUS'EN BIOTZARI ESKINTZALDIAN

I

...umeak
Datoz Jesus'gana
Eskintzen diotela
Biotz eder bana.

Jesus maite
Maite, maitea
Izan beti
Gure Jabea.

II

Emen gaude umeak
Pozik Zure aurrean
Gorde gaitzatzun beti
Zure Biotzean.

Jesus maite...

III

Zureak gu gerala
Jesus, badakigu
Ez bazaitugu ere
Zintso Zu jaraitu.

Jesus maite...

IV

Jesus izan dedilla
Guztion Errege
Gure biotz-animen
Jauna eta Jabe.

Jesus maite...

ARKI-BIDEA



	<u>Orria</u>
Esnatzean.	3
Oerakoan.	5
Jan-aurrerako	7
Ziñespen, ichodopen eta maitetasuneko egintzak	8
Biotz-otoitzak	9
MEZA SANTUA	10
AITORKUNTZA	30
Asterketa edo esamiña.	35
Gaztechoen azterketa	52
Konfesio aurrerako.	54
Konfesio ondorean.	56
Jaunartu aurrerako.	59
Jaunartu ondorean	62
San Inazio'ren otoitza	67
Jesus kurutzetuari otoitza	68
Ama-Birjiñarekin bat eginda Jaunartzea	69
JESUS'EN BIOTZAGANAKO ONERASKUNA	70
Erreguzko Apostolotasuna	72
Agoniako Jesus'en Biotzari	73
Gorapenezko Gordetza	73
Ordu Santua.	75
Sakramentuko Jesus'i bost ikustaldi.	76
Birauen orde z gorapenak.	80
KURUTZE-BIDEA	81
Jesus'en bost zaurien guturketa.	89

AMA BIRJIÑA'GANAKO ONERASKUNA	97
Iru Agur-Mariak.	100
Karmen'go eskapularioa	101
Eskapulario urdiña.	102
Ama-Birjiñaren Eleizbatzarrak	102
Ikustaldiä.	103
Agurtza (errosarioa)	108
San Bernardo'ren otoitza	112
SAN JOSE'GANAKO ONERASKUNA.	113
San Inazio'ganako oneraskuna	119
Jabier'tar San Franzisko'ri oneraskuna.	120
Borja'tar San Franzisko'ri.	123
San Luis'i seiurrena	125
San Antonio'ren amairu astearteak.	125
Norberaren izeneko santuari.	126
Gorbitokiko animaganako oneraspena	126
Eskari batzuek	129
Illeroko Bakartaldia.	131
Eriotza ona iristeko	133
Bizikera ona eukitzeko.	136
Gurkerak (errekerentziak)	137
Arduradunak (zeladoreak) artualdian	139
Pange lingua.	141
Igandetako bezperak	142







